



2014-05-23
EGUBAKOITZA
597. ZENBAKIA
14. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

"Genero kontuetan mentalitatea irauli behar da"



Arantza Santesteban
Iritzi-zutabegilea | 7

Izen eta aditu handiak, Lege Soziologian

Munduko 200 aditu baino gehiagoren topaleku izan da | 4

Antzuolako Mairuaren Alardearen webgune propioa aurkeztu dute | 23



Bergarako jaiak berrikuntzekin, ekainaren 6tik aurrera | 16



Gipuzkoako Eskolarteko finala domekan jokatu da Arrasaten | 31



OINTXE, OINTXE, OINTXE!

Domekan Lauko Finala irabazita, EBA mailara itzuliko da Arrasateko taldea | 28

Ointxe! saskibaloi taldeko jokariak Iturripen, oraingo asteko entrenamenduetako batean. | JAGOBA DOMINGO

SINADURAK

Autogolaren zain | 8
DIEGO MARTIARTU

8 | Euskaraz are banilla gehiago
JON BEREZIBAR

Ekonomatue | 26
XABIER HERRARTE

40 | Nondik begiraten den
IDOIA ETXEBERRIA

Ilusio txikia eragiten duten hauteskunde handiak

Europako Parlamenturako hauteskundeak dira etzi, domeka. Hauteskunde garrantzitsuak dira, Europatik etortzen direlako eguneroko bizitzako arlo askotan eragina duten zuzentarauak. Hala ere, abstentzio handia iragartzen dute galdeketek, 2009an baino handiagoa. | 2



Astelehenean, Europako Parlamenturako hauteskundearen Debagoieneko emaitzak eta analisisa *Goiena* paperean. Goiena Klubeko bazkide ez bazara, erosi kioskoan 1,10 euroren truke.



ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 4
ELKARRIZKETA 7 | IRITZIA 8 | HERRIAK 11
KIROLA 28 | KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36
EZKONTZAK 37 | ESKELAK 37 | NON-ZER 38



Asteko kultur zozketa, Elkar argitaletxeari esker Irabaz ezazu Jon Andueza arrasatearraren "San Ferminetan, Lesakan" liburu berriaren ale bat 8 liburu ditugu zozketagai.

PARTE HARTZEKO:

SMS: KLUBA [Lesaka] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: klubak@goiena.com WhatsApp: KLUBA [Lesaka] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketan honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestiozatzeko. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezertzatzeko, helbide honetara idatzita: klubak@goiena.com

goienakluba

SEAT LEON ST BERRIA



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70



Ilusioa galdu zeneko hauteskundeak

Europako Parlamenturako hauteskundeak dira etzi, domeka; bozkatzera joango direnek ere europar proiektuaren akatsak azpimarratzen dituzte

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Europako Parlamenturako hauteskundeak izango dira etzi, domeka, Europako hainbat herrialdetan. Parlamentuko 751 kideetatik 54 aukeratu beharko ditu Espainiak. 751 parlamentariak datozen bost urteotan erabakiko dute Europaren legedia merkatu bakarrean, giza-askatasunetan eta beste arlo batzuetan.

Krisiak eta ilusio faltak baldintzatutako hauteskundeak dira, eta abstentzioa 2009an baino 2,4 eta 5,4 puntu artean handiagoa izango dela diote galdeketeak: zehazki, zentsua osatzen dutenen %40 eta %43 artean joango dira botoa ematera. Hala ere, orri hautetan elkarrizketatu ditugun lau lagunek bozkatzera animatzen dute.

AINHOA LARRAÑAGA
HUHEZI-KO IRAKASLEA

"Kataluniak Europaren babesa izan dezake"

Hauteskunde garrantzitsuak dira, Europatik etortzen direlako gure eguneroko bizitzako arlo askotan eragina duten zuzentarauak. Garrantzia dute arau horiek Europak baduelako zeresana Kataluniakoa moduko prozesu baten, eta Euskal Herrian ere, erabakitze eskubideak izan ditzakeen ondorioen gainean; iruditzen zait gai horretan Europa foru garrantzitsua dela. Baina egia da jendeak oso urruti bizi dituela honako hauteskundeak.

Badago Kataluniako herriak eskatzen duen eskubide demokratiko bat. Espainiako estatuak demokratikotik ezer gutxi du, eta hor giltza bateren batek izatekotan, Europak izan dezake: konfrontazio hori iristen bada, eta iritsiko dela espero dut, kontsultan baietza irteten bada, Kataluniako herriak eta Masek nazioarteko babesa beharko dute eta, zehazki, Europaren babesa, Espainiarengandik ez dugulako ezer espero.

Dena dela, nire ustez, jende askok ez du bozkatzeko, eta krisiak eragin handia du horretan. Krisiari heltzeko, bi ikuspegi daude: Europak sistema neoliberalaren alde egiten du eta ez ditu momentu honetan herritarren eta behar handiena daukatenen interesak

babesten; baina ez dut oso garbi ikusten ezkerreko alderdiek ze planteatzen duten horren aurrean. Dena dela, nik bozkatzera animatzen dut jendea, eredu sozial horri ezetza eman behar zaiolako, nahiz eta oso garbi ez zaigun geratu ze neurri zehatz proposatzen dituen ezkerrek.

XABIER LATORRE
ARIZMENDIN EUROPEAN
YOUTH PARLIAMENT-EKO
ARDURADUNA

"Hezkuntzan gehiago inbertitzeko eskatuko nioke Europari"

Nire ikuspuntutik, garrantzitsua da hauteskundeetan parte hartzea,



Ainhoa Larrañaga. | GOIENA



Adrian Zelaia. | GOIENA

Bruselasen hartzen diren erabaki asko hemen aplikatzen direlako. Hala ere, hartzen diren erabakiak, gehienbat, ekonomikoak dira; Europa ekonomizista da zeharo.

Hezkuntzan, gauza batzuk egin dira: Erasmus Plus, adibidez, eta Bologna proiektua ere egin da, baina ez dakit Bologna zenbateraino aplikatu den. Karreren ordez orain graduak dira ikas-

ERABAKITZEKO ESKUBIDEARI

BAI

Gaur **Oñatin**
EKITALDI POLITIKOA
19:00etan Plazan
Marian Beitialarrangoitia

EMAN BOTOA **ehbildu**
herrikerabaki



Xabier Latorre. | GOIENA



Juanjo Alvarez. | GOIENA



Europako Parlamentuaren egoitza nagusia, Estrasburgon. | GOIENA

ketak, baina, azkenean, pedagogia ez da askorik aldatu.

Europako Parlamentuari bi gauza eskatuko nizkioke nik: batetik, lurralde bakoitzak bere sistema dauka eta ez dago koherentziarik; tituluak automatikoki konbalidatzea oso ona izango litzateke. Beste alde batetik, hezkuntza beti izan da *anaia pobrea*: beste arlo batzuekin alderatuta, oso diru gutxi inbertitzen da, eta ahalegin ekonomiko handiagoa eskatuko nuke.

European Youth Parliament-en, bestalde, lan polita egiten dute gazteek, askotariko gaiak landuz. Aurtengo gai bat hauxe izan da: zer egin dezake Europako Batasunak jendeak europar herritartasuna sentitzeko? Zergatik jendeak ez du bozkatzeko? Zenbait neurri irten ziren. Adibidez, zergatik ez dira hauteskundeak lurralde guztietan egun berean egiten? Horrek beste ikuspuntu bat emango luke.

ADRIAN ZELAIA
EKONOMIALARIA

"Ekonomia gai garrantzitsuak ez dira kanpainan izan"

Kanpainan oso gutxi aipatzen diren funtsezko gai batzuk daude. Batetik Ukrainian gertatu dena, Europaren ekonomiaren etorki-

zunean duen eraginarengatik, Errusiarekiko harremanarengatik, energia-hornidura aldetik; baina hori baino askoz garrantzitsuagoa da krisi honek izan dezakeen ondorioa Europaren garapen ekonomiko ereduaren bertan. Iparraldean eta Alemanian, herrialde emergenteekin gero eta harreman sendoagoak izateko estrategia dute, eta Ukrainian gertatu dena behar da bi helbururen inguruan kokatu behar da: batetik, Wall Street-en estrategian, Errusia eta Txina isolatzeko bidean; eta, beste aldean, Europaren eta herrialde emergenteen arteko lotura hori apurtzeko asmoan. Aipatu dugun garapen eredu hori apurtzea oso arrisku-tsua izan daiteke Europa iparralde eta Alemaniarentzat.

Beste gai bat ere badago: bankuen arazoa konpontzeko, erreskate publikoak erabiltzeak ez zuela zentzu ekonomikorik eta, horren ordez, bankuak berregituratu behar zirela esan dute Europako erakundeek. Aurrerantzean, banku baten arazoak izanez gero, akziodunen eta banku horretan dauden inbertitzaileen lepo joango dira arriskuak. Hori inflexio-puntu bat da krisiaren aurkako politiketan, eta izugarriko eragina du denongan.

Horrelako gaiak egon behar izango ziratekeen kanpainan: ze arrisku dauden eta bakoitzak ze proposatzen duen horren aurrean.

Arduradun politikoek ondo azaldu beharko lukete ze gertatzen ari den European eta ze den garrantzitsua, eta hori ez dute egin; abstrakzioen gainean egin dute kanpaina, arriskuak eta aukerak argi identifikatu gabe, eta hori da herritarrak behar zuena parte hartzeko beharra sentitzeko.

JUANJO ALVAREZ
NAZIOARTEKO ZUZENBIDE
PRIBATUAN KATEDRADUNA

"Erantzukizunaren izenean, bozkatzera joango naiz"

Honako hauteskundeak bereziak direla sinestarazi nahi izan digute Europako erakundeek, baina ez da hala. Ez da egia Europako herritarrok Europako Batzordeko presidentea aukeratuko dugunik; azkenean, Europako Kontseiluko kontziliabuluek erabakiko dute. Bi alderdi handiek behera egingo dute; bien artean presidente izateko behar dena batuko dute. Espainian, barruti bakarria izango da eta kanpaina

aspergarria eta estatalizatu izan da; ez dugu subjektu politiko europarririk.

Hala ere, herritarrok eutsi behar diogu txanpa honi, ezin dugulako egon Europako agintarien zain. Nik bozkatzera animatuko nuke bi arrazoirengatik: batetik, abstentzioa ozen kritikatzeko dute baina, atzetik, eskuak igurzten dituzte. Erakunde politiko handiek, abstentzio handi batekin eta barruti bakarrarekin, jesarleku merkeagoak lortuko dituzte. Eta bi: European aurreratu dena behera etor daitekeelako muturreko alderdiak Euroganberara iristen badira, lotsagarria izango litzatekeelako jarrera xenofoboak defenditzen dituen jendeak talde parlamentarioa izatea, eta badirudi izango

dutela. Arrisku demokratiko horrek kezkatu egiten nau.

Eta erantzukizunarengatik ere bozkatzeko dut: nahiago dut etsipenetik bozkatzera, protestatu ahal izateko eta katarsia eskatu ahal izateko, Europa estatuen arteko merienda bihurtzen ikusi baino. Horregatik, ni bozkatzera joango naiz, konbentzimendu handirik gabe, baina joan egingo naiz, argi daukadalako Europarendako zer nahi dudana, eta behetik gora aldatu behar dugulako Europa.

Europako proiektua kritikatu egin behar dugu berriz erakitzeko. Ezin da nazio-estatuak kritikatu eta aldi berean estatu napoleonikoaren antzeko zerbait egin. Herritarrekin ahaztu dira. Aldaketa katartiko bat gertatu behar da.

BERGARAN FORD MUGARRI EKAINEAN INAUGURAZIOA

Amillagan izango duzu
zure Ford zerbitzu berria

Mugarri Autoak Arrasate. Araba Etorbidea, z/g



Hauteskundeak, begirada baten

- ▶ PP, PSOE eta UPyD ez beste alderdi gehienak koalizioan aurkezten dira: Izquierda Plural (IU, Ezkerreko Ekimena-Etorkizuna Iratzarri...), CEU (EAJ, CDC, UDC...); L'Esquerra pel Dret a Decidir (ERC, NECat...); Herriek Erabaki (EH Bildu, BNG...); Primavera Europea (Equo, Compromis...).
- ▶ Espainian jesarlekua lortzeko

boto kopurua parte-hartze mailaren arabera da. 2009an (%44,9ko parte-hartzea), 260.000 boto behar izan ziren.

- ▶ Europako Batzordeko presidentea aukeratzeko eragina izango dute hauteskundeak. 28ek hautagai bat aukeratuko dute, baina Parlamentuaren onespena behar izango du.



Erakundeetako ordezkariak, lehendakaria tartean dela, Oñatin, eguaztenean. | MAIALEN TORRES

Oñatiko Lege Soziologia munduko topaleku da asteen

25. urteurrenaren harirako nazioarteko kongresuan lehendakaria eta Arartekoa izan dira, besteak beste

IRATI GOITIA | OÑATI

Munduko 200 aditu baino gehiagoren topaleku izan da Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundea. Haren 25. urteurrenaren ospakizunaren barruan, asteen egin dute ekitaldi nagusia: nazioarteko kongresua, eguaztenez gaur arte (barikua).

Horren irekiera ekitaldian elkartu dira Oñatin hainbat ins-

tituziotako ordezkariak, besteak beste: Iñigo Urkullu, lehendakaria; Josu Erkoreka, Jaurlaritzako bozeramailea; Iñigo Lamarka, Arartekoa; Bakartxo Tejeria, Legebiltzarreko lehendakaria; eta Mikel Biain, Oñatiko alkatea.

Elkarlanaren emaitza

Guztiek azpimarratu dute institutuaren sorreran instituzioen arte-

ko elkarlanaren garrantzia. Besteak beste, Jaurlaritzaren eta International Sociology Associationen elkarlanaren emaitza izan zen. "Hitzarmen bat egin zuten Soziologia Juridikoko Nazioarteko Elkar-teak eta Jaurlaritzak. Institutua abian jartzeko, baina, beste erakunde eta hainbat pertsonak ere hartu zuten parte: Oñatiko Udalak, Gipuzkoako Aldundiak eta Euskal

Herriko Unibertsitateak", adierazi du Lamarka Arartekoak.

Herria egiteko aukera

Institutuaren emaitzak ikusgarriak direla ere aipatu du Arartekoak: 400 jardunaldi baino gehiago antolatuta dira, 15.000 ikertzaile inguru erakarri ditu eta 54 herrialdeetatik etorritako 400 ikaslek baino gehiagok egin dute Nazioarteko Lege -Soziologiako Masterra.

Biain Oñatiko alkatea ere institutua erreferente bilakatu dela dio, baita asko ere behar izan dela esan ere: "Udalak, Aldundiak eta Jaurlaritzak asko ere behar izan zuten proiektua aurrera ateratzeko, eta horrelakoetan gertatzen den bezala, fruituak luzera lortzen dira. Garai hartako uzta jasotzen gabiltzala esan daiteke".

Urkullu lehendakariak, bestalde, soziologia juridikoak gizartean izan dezakeen eragina nabarmendu du: "Baliabideak eman behar dizkigu garai berrien eskareri aurre egin ahal izateko. Trantsizio unea bizi dugu eta benetan uste dut soziologia juridikoak etorkizuneko aldaketak eta behar iragartzera ausartuz egingo duela ekarpena, eta ez iragana azalduz". Lehendakariak konstituzio aldaketa jarri nahi izan du adibide bezala. Esan du 2011n alderdi popularrak eta sozialistak Espainiako Konstituzioa bi asteen aldatu zutela. Eta orduan proposatu zutela Estatuaren errealitate plurinazionala onartuko lukeen aldaketa. Gaineratu du eskaera ez dela bideratu eta auziak ez duela konponbiderik izango, zuzenbideak gizarteari kasu egiten ez dion bitartean. Horrela, baloreak bizi dugun errealitate egokitzeko soziologia juridikoan sinesten duela esan du eta horrelako institutu bat Oñatin izatea herria egiteko aukera dela.

Lapurretak izan dira Aretxabaletan eta Oñatin

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Aretxabaletako Pausoka haur eskolan hiru ume-kotxe lapurtu zituzten joan den astean, eguaztenez goizean. "Guraso batek 10:30ean utzi zuen karroa, eta eguerdian bueltatu zenean, ez zegoen. Guztira, hiru eraman dituzte, bat bikienak. Uste dugu lapurreta egin zutenak zaintzen egon zirela. Guraso batek kanpoko aldean zain zegoen furgoneta baten matrikula eta guzti hartu zuen", kontatu dute bertakoek. Hain justu, horrekin guztia-ekin bi salaketa jarri dituzte Bergarako komisarian. Segurtasun Sailak jakinarazitakoaren arabera, ikerketa zabalik dago.

Oñatin, gauzez eta kalean

Oñatin, berriz, zapatu gauean gertatu zen lapurreta, Atzeko kale eta Kalegoieneko bidegurutze inguruan, 04:00ak eta 04:30ak bitartean. Gizonezko batek atzetik heldu eta gerri parean zerbait mehatxu eginda, aldean zeraman dena emateko esan zion neska bati. Erasotzaileak kirol-jertse beltza zuela janzita adierazi du hark, Oñatiko Udaltzaingoa jarri duen salaketan. Udaltzainek, berriz, epaitegietara eraman dute salaketa, eta Ertzaintzari ere eman diote berri, "gaueko zaintzan neurriak handi dituzten", Idoia Lazpita bertako udaltzaiburuak esan duenez.

ULMA ULMA Agrícola, S. Coop. Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIALDIA

Eguna: 2014ko maiatzaren 29a.
Ordua: 14:30ean lehen deialdia eta 15:00etan bigarrena.
Tokia: ULMA Taldeko auditorioa - Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERREDA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko
2. 2013ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2014ko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2013ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea
5. 2013ko ekitaldiko emaitzak banatzea
6. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
7. Supraegiturako entitateei buruzko gaiak
8. Estatutu Sozialen testu bategina onartzea
9. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
10. Menpeko Ekarpene Finantzarioen jaulkipena
11. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
12. Ahalmek eskuordetzea
13. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri dituztela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituzten.

Bazkide guztiei jakinarazten zaie eskubidea dutela, ULMA Agrícola, S. Coop.eko helbide sozialean, proposatutako Estatutu Sozialen testu bategina aztertzeke, eta doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
Oñati, 2014ko maiatzaren 6a

ausolan
auzo lagun

AUZO LAGUN, KOOP.E. - ARRASATE

Estatutu Sozialen 32. artikulua dioenaren arabera, Ohiko Batzar Orokorreko deia egiten da.

OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIALDIA

DATA: 2014ko maiatzak 31.
ORDUA: 10:30ean, lehen deialdia.
11:00etan, bigarren deialdia.
TOKIA: Garaia Berrikuntza Gunearen Auditorioa (Arrasate).

GAI - ZERREDA

1. 2013ko BATZAR OROKORREKO AKTA ONARTZEARI BURUZKO TXOSTENA, ETA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO BAZKIDEAK IZENDATZEKO AKORDIOA.
2. MEMORIAREN IRAKURKETA ETA ONARPENA.
 - 2.1. 2013ko Kudeaketa onartzea
 - 2.2. 2014ko Kudeaketa Planaren berrestea.
3. 2013ko KONTUAK AZTERTZEA ETA ONARTZEA.
4. SOBERAKIN GARBIEK BANAKETA
5. EKONOMIA ARAUBIDEARI BURUZKO ESTATUTUEN XEDAPENAK.
 - 5.1. Sarrera kuotak eta ekarpena
 - 5.2. Kapitalari egindako ordainketa
 - 5.3. IPDK aplikatzeko irizpideak.
6. KONTSEILU ERREKTOREAREN JAKINARAZPENAK.
7. MONDRAGON TALDEARI ETA ERKOP KOOPERATIBARI BURUZKO TXOSTENAK.
8. GALDERAK ETA ESKARIAK.

Kontseilu Errektoreko Lehendakaria
2014ko maiatzaren 14a

Miloi erdi euro pasa Arantzazurako biderako

ANE ELORDI | OÑATI

Datorren astean hasiko dituzte Arantzazurako errepidea konpontzeko lanak. Hain justu, Araotz auzoko bidegurutze eta Arantzazuko Santutegiko aparkalekua bitarteko errepide tartean egingo dituzte obrak, hamaika astean. Aurrekontua, berriz, 568.083,26 euro da.

Orokorrean, errepidearen egitura hobetuko da iraunkortasuna, iragazgaitasuna eta uniformetasuna garrantzizkoak. Era berean, lanen ondorioz kaltetutako bide-seinale horizontalak berrezarriko dira, eta euste euskarriak egokitzeko dituzte. Hori bai, igoerako ibilbidea osorik konponduko da; baina beste norabidekoa ez, beharrezkoak diren zatiak soilik.

Tabakismoari aurre egiten laguntzeko, 'Kerik gabeko astea'

Adituek diote tabakismoa dela gehien prebeni daitekeen heriotza kausa

ANE ELORDI | DEBAGOIENA

Astelehenean, maiatzak 26, hasi eta 31ra bitartean, *Kerik gabeko astea* izango da, Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) antolatuta, "tabakoaren kontsumoa txikititu eta pertsona askoren bizitza salbatzeko asmoz". Bada, egitasmo horrekin bat egin, eta Debagoienean ekimena iragarri dute: *Debagoiena tabako-kerik gabe*; OMErekin bat egin eta eskualdean tabakismoa saihestu eta horrekiko mendekotasuna gainditzeko laguntzea da helburua.

Jaurlaritzako Osasun Publiko eta Mendekotasunen zuzendari Miren Dorronsorok, Inazio Azkarragaurizar Arrasateko alkateak eta Debagoieneko Ospitaleko zuzendari mediku Juan Manuel Sanzok aurkeztu dute asteon egitasmoa Arrasaten, Kulturatan. Hain justu ere, osasun eta udal

KARPAK

ESKORIATZA: M-29

11:00-13:00 Fernando Eskoriatza plazan.

ARETXABALETA: M-29

11:00-13:00 Osasun etxean.

BERGARA: M-29

11:00-13:00 eta 18:00-21:00 Irala kalean.

ARRASATE: M-29

11:00-13:00 eta 17:00-20:00 Seber Altube plazan.

ELGETA: M-30

18:00-21:00 Mendizaleen plazan.

arloetako eragileek elkarlanean egindako proiektua da hori; izan ere, antolatzaileen esanetan, "tabakoa erretzea *normalizat* ikustearen aurkakoa, osasun-esparrutik haratago dago eta ekimen soziosanitarioak behar ditu, non ahalik eta gizarte eta udal eragile gehienek esku hartuko duten".

Hala, lankidetzaren bitartez, eragileak batu gura dituzte. Gainera, beste eragile batzuk ere erakarri nahi dituzte proiektura; esaterako, farmazia elkargoak, ikastetxeak eta elkarteak. Gizarteko sektore guztiak informatu nahi dituzte, ez erretzeak dituen abantailak eta tabako mendekotasuna gainditzeko tratamendu eta tailerretan parte hartzeko aukera emateko karpak ezarriko dira eskualdeko hainbat herritan. (Egitaraua ondoko taulan)




Eskualdeko alkateak eta zinegotziak eta osasun arloko ordezkariak. | I. GALLEGO

Gaztetan hasten da erretzen

Bereziki gazteek tabakoarekin duten lotura azpimarratu dute. Datuak eman dituzte hori erakusteko: 14 eta 16 urte bitartean hasten da erretzen; 15 eta 24 urte bitarteko gazteetan, neska erretzaileak (%19,1) gehiago dira mutilak baino (%17,4). Horren harira, Debagoienean martxan jarri da *Kerik gabeko gelak* ekimena. Helburua da ikasleen artean tabakismoa txikitzea, eta Arrasateko, Bergarako, Oñatiko eta

Eskoriatzako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren mailako gazteek hartu dute parte; guztira, 400 ikaslek.

Datu orokorreki dagokienez, berriz, 15.000 erretzaile daude gure eskualdean. Eta diote tabakismoa dela gehien prebenitu daitekeen heriotza-kausa. Beste datu batzuk: bizi-itxaropenari 15 urte kentzen dizkio, kontsumitzaileen erdiak hiltzen ditu eta biritetako minbizien %90en kausa ere bada.



Etxeberría eta Azkarragaurizar (Udala), Izagirre eta Arantzabal (Goiena). | I. GOITIA

Goiena taldea beste 20 urtez izango da Arrasaten

Egoitzaren lagapenaren hitzarmena sinatu dute Goienako eta Arrasateko Udaleko ordezkariak

IRATI GOITIA | ARRASATE

Hitzarmen hori harreman baten fruitua dela adierazi du Iban Arantzabalek, Goiena Komunikazio Taldeko zuzendari orokorrak. "Arrasateko alkateaz oso harreman zintzoa, gertukoa eta ulermenekoa izan dugu. Euskara batzordetik pasa ostean, 20 urterako hitzarmena lortu dugu", adierazi du Arantzabalek. Gaineratu du garai batean *Arrasate Press*-ekin hasitako bideari jarraipena ematen zaiola horrela.

Goiena taldearen izenean Aitor Izagirre presidentek sinatu du hitzarmena, eta Arrasateko Udalen izenean, berriz, Inazio Azkarragaurizar alkateak.

Hala, biek nabarmendu dute hitzarmen horren garrantzia. Izagirreren esanetan, egonkortasuna dakarren hitzarmena delako: "Egonkortasuna eta lasaitasuna

ematen digu datozen 20 urteotarako. Oso pozik gaude eta Arrasateko Udalarik eskerrak eman nahiko genizkioko". Eta Azkarragaurizarren esanetan, "batetik, euskararen normalizaziorako eginko bidearen aitortpena da, eta bestetik, babesa ere" jartzen dute aurrera begira. Arrasateko alkateak gaineratu du Goiena herritik sortutako proiektua dela eta Arrasateko Udalarentzako garrantzitsua dela horrelako komunikabide bat herrian izatea.

Hitzarmena sinatzeaz gain, bisita gidatua ere egin dute udal ordezkariak, egoitza eraberritua ikusteko. Izan ere, Goienako lantalde guztia Arrasaten dago orain. "Bateratzeak ekarri du lankideon arteko harremanak hobekuntza, denbora murriztuz eta eraginkortasuna handituz. Kostuak ere txikituko dira", dio Arantzabalek.

EUSKADI GEHIAGO
IZASKUN BILBAO BARANDICA

EUROPA BERRIAN
www.izaskunbilbao.eu

I AM BASQUE

EAJ PNV

CEU

Europa aldatzeko botoa ematearen garrantzia azpimarratu dute EAJk eta EH Bilduk

EH Bildu, besteak beste, BNGrekin doa koalizioan eta EAJ, berriz, CiUrekin, besteak beste



Marian Beitialarrangoitia eta Luke Uribe-Etxebarria, Goiena telebistan. | ENKO AZKARATE

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Domekako hauteskunderi begira, Debagoiengan nagusi diren EH Bildu eta EAJ alderdi politikoen ordezkari bana parez pare jarri ditu asteon Eneko Azkaratek Goiena telebistako *Harira* saioan. Luze eta zabal berba egin dute Marian Beitialarrangoitia (EH Bildu) eta Luke Uribe-Etxebarria (EAJ).

ABSTENTZIO HANDIA

Beitialarrangoitia: "Gu parte gara eta hor egon behar dugu. (...) Galdera da: nori interesatzen zaio abstentzioa oso handia izatea? Gaur egungo Europa bultzatzen ari direnei: neoliberaleri, troikaren erabakien babesle direnei, eta, ondorioz, hori ez zaio Euskal Herriari interesatzen. (...) Uste dut izan zaitezkeela oso kritikiko egun dagoen Europarekin. Amestu dezakezula beste Europa bat, eta horren alde lan egin dezakezula barrutik bertan ordezkari izanda eta arituta. Eta batzuk abstentzioaren mamuarekin justu kontrakoa egin nahi dute: joan daitezela orain arteko aldatu nahi ez dutenak eta aldatu nahi dutenak gera daitezela etxean. Eta noski, bereziki, aldatu nahi dugunoi dagokigu herritarrei esatea eta konbentzitzea maiztaren 25ean ze garrantzitsua den botoa ematera joatea. Europa diferentea izan dezagun eta baita ere Euskal Herriaren etorkizunean baduelako Europak zeresana eta baduelako nola lagundu Euskal Herriko egoerari".

Uribe-Etxebarria: "Europa arlo askotan kritika daiteke, baina,aldi berean, Europa soluzioa da. Horrek esan nahi du Europa berria behar dugula, Europak zilegitasun demokratiko eta politiko handiagoa behar du, behar du herritarrekiko gertutasun handiagoa eta, batez ere, Europari dagokion

etxeko-lanak ondo betetzea. Ez baita ari Europa hori betetzen, batez ere Europa indartsu bat ez dugulako. Europa gehiago behar dugu, eta berri bat. (...) Europa indartsua behar dugu globalizazioak sortzen dituen arazoei aurre egiteko. Euskal Herrian behar dugu geure kokapena, geure aitor-tza Europaren partetik, eta erabat konbentziturata gaude geure kokapena badugula herri bezala, nazio bezala. Kontraesanik ez dago. Europa gehiago eta Euskadi gehiago bateragarriak dira. Proposatzen dugu benetako Europa federala izan dezagun, indartsua. Kezka sortzen digu Europaren proiektua bera kili-kolo eta zalantza jarri dela azken urteotan. Zatiketa oso arriskutsua gertatu da iparraldeko eta hegoaldeko herrialdeen artean. Uste dut hori ekidin egin behar dela, eta horretarako behar dugula Europa gehiago".

ENPLEGUA, EKONOMIA

Beitialarrangoitia: "Jarrantzen badugu estatuen Europa batekin, herrien errealitatea aintzat hartzen ez duena, federala izango da,

baina ez da izango behar duguna. Troikarekin gertatzen den moduan, estatuek beraien eta merkatuen interesak herritarren gainetik jarrita beste tresna batzuk bilatuko badituzte erabaki horiek hartzeko eta horiek, hain justu, herritarren etorkizunaren, ongizatearen kontra badoaz, nekez izango da soluzioa Europa. Nahi dugu beste Europa bat, herriek osatutako Europa, behetik gora eraturakoa, eta justizia sozialean oinarritutakoa. (...) Aberastasuna sortu behar da, baina aberastasuna banatu egin behar da. Ez da posible merkatuen interesak herritarren interesen gainetik egotea. (...) Hautua izan daiteke industriaren, nekazaritzaren, arrantzaren... gure ehun produktiboen alde egitea, baina administrazioak eskua hartuz, inbertituz. Behar duena da enplegua sortzeko neurriak hartu. Guretzat, horiek, zalantzarik gabe eta murrizketen kontrakoak premiazkoak diren elementuak dira beste eredu sozioekonomiko batetara joan gaiten eta herritar guztiok aukera berdintasunak izan ditugun. Eta uste dugu gaurko Europak justu kontrako bidean garamatzala".

Uribe-Etxebarria: "Betidanik defendatu dugu herritarren Europa, Agirre, Landaburu eta Irujoen garaitik. Euskadik bere kokapena eta lekua baduela European, erabakitze eskubidea dugula herri bat osatzen dugulako eta nazio bat gara. Europaren eredu soziala (...) Baina Europak ezin dezake dena egin. Elkarrekin lan egin behar dugu. Elkarlanean aritu behar dugu, bai Europa bera eta bai Europa osatzen dugun herriok ere. Gure ekarpenak ere egin behar dizkiogu Europari. Saiatu gara eta saiatzen ari gara geure euskal garapen eredu mantentzen eta garatzen. Horrek

esan nahi du oreka puntu bat eta konbinazio bat egiten ditugula: gizarte ongizate estatua mantendu, hezkuntza, osasuna eta politika soziala eta pizgarriak jarri hazkunde ekonomikoa izateko eta enplegua sortzeko, eta horretan gako nagusiak dira lau: inbertsioa (enpresek dirua behar dute); industria (helburu estrategikoa da); nazioartetaztea eta berrikuntza".

BAKEA ETA NORMALIZAZIOA

Beitialarrangoitia: "Aro berri bat bizi dugu. Aurrera egiteko gauza asko ditugu. Guk horretan urratsak egiteko palanka modura ulertzen ditugu hauteskunde hauek eta ez zaigu ahaztu behar egoera berri honek etsaiak ere badituela estatuek eta alderdi nagusiei prozesu hau ustelduko balitz ere berdin zaiela. Eta uste dugu nazioarteko komunitatea bera garrantzitsua dela eta, beraz, European indarra izateak eta bertan egoteak lan diplomatiko horretarako aukera asko ematen dituela. Urteak daramatzagu lan hori egiten izan ordezkari edo ez,

nahiz eta ordezkariak aukera handiagoak eman. Ze norbaitek pentsatzen baitu Manikalingham edo beste hainbat nazioarteko agente inplikaturako zirela Euskal Herriaren aldeko prozesuan norbaitek ahots propioarekin eta garai berri hauen alde hitz egin izan ez balie, bakarrik estatuek hitz egin izan balie? Nabarmena da bake prozesuaren mesedetan European egotea eta nazioarteko komunitateak presionatzea beti dela mesedegarri".

Uribe-Etxebarria: "Europa sortu zen bakea lortzeko, beste helburu nagusi batzuen artean. 70 urtean European hiru gerra izan genituen: franko-prusianoa, I. Mundu Gerra eta II.a. Europa egin zutenek esan zuten: 'Goazen indarrak biltzera, noski balore eta printzipio batzurenpean, hemen gerra gehiago izan ez dadin'. Eta hori lortu da, nabardura batzurenpean: Ukraina. Eta hori, uste dut, Europari zor diogula. Baina zein da kontraesana... bakea helburu nagusiaren bat izanda, ez dutela ezer egin hemen bizi izan dugun gatazka armatuaren inguruan. Irlandan bai. Zein izan zen diferentzia? Bi estatu sartuta zeudela han: Erresuma Batua eta Irlandako Errepublikak. Gure kasuan ez. Guk hori Europari helarazi diogu behin baino gehiagotan. Hortik aurrera, uste dut zorionez egoera berri bat bizi dugula Euskadin, eta gabiltza elkarbizitzaren ideian. Hor, baita ere, europar erakundeek zerbait egin dezakete; guk eskatu dugu, Izaskun Bilbaok eskatu du hainbat alditan azken legealdian, eta presionatzen jarraituko dugu datorren legealdian".

ESANAK

"Europak badu nola lagundu Euskal Herriko egoerari"

"Aberastasuna sortu behar da, baina baita banatu ere"

MARIAN BEITIALARRANGOITIA
EH BILDU

ESANAK

"Bateragarriak dira Europa gehiago eta Euskadi gehiago"

"Inbertsioa eta industria dira gako nagusietako bi"

LUKE URIBE-ETXEBARRIA
EAJ

Tertulia osoa: eskaneatu QR kode hau poltsikokoarekin.



MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 24 • 11:00



GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgpe@mondragon.edu
943 73 97 65

Arantza Santesteban | Iritzi-zutabegilea

"Hezi gaituzten moduagatik, igartzen dira sexuaren araberrako ezberdintasunak"

- ▶ Hedabideak, generoa eta komunikazioa aztergai ditu komunikatzaile txantrearrak
- ▶ "Genero trataera egokia ez da emakumeen gainean txukun berba egitea bakarrik"

ENEKO AZKARATE | ARRASATE

Emakumeen eskubideen alde lanean dihardu Arantza Santestebanek. Historian lizentziaduna da, eta, Arrasateko Emakume Txokoak gonbidatuta, emakumeek hedabideetan duten islaz, irudiaz eta emakume komunikatzaileez jardun du Idurre Eskisabel kazetariarekin batera. Goiena Komunikazio Taldearekin kolaboratu du generoaren trataeraren gaineko atala garatzeko Goienaren Estilo liburuan.

Emakumeak ezberdin komunikatzen, idazten, esaten... dute hedabideetan?

Jakina, emakumezko eta gizonezko kazetariak badaude, baina, horrez gain, izan daitezke profesional onak edo txarrak. Kazetaritza ona edo txarra egingo duzu, zure prestakuntza, balio edo jardueraren arabera. Gizonezkoek eta emakumezkoek hezkuntza ezberdina jasotzen dugu, nahiz eta hezkuntza sistema berean jardun, elkarrekin. Gertatzen da emakumeok hezten gaituztela emakume izateko eta gizonezkoak gizon izateko. Mundua ikusteko posizio ezberdinetik, mundua bera era ezberdinez interpretatzen dugu gizonezkoek eta emakumezkoek. Jendarte sexista honetan hezi gaituzten moduagatik, ezberdintasunak igartzen dira sexuaren arabera.

Komunikatzailea zara, hedabideetan jarduten duzu. Gai ezberdinak aukeratzeko dira eta gai horiek modu ezberdinez lantzen dituzte emakume batek, emakume izatearren?

Zutabegile moduan hasi nintzenean ez nion askorik erreparatu emakume izateak izan dezakeen garrantziari, baina, gerora, konturatu naiz baduela garrantzia. Askotan, gaiak aukeratzeko orduan, zentsuratu egin dut nire burua: generoaren gaia askotan aukeratzen badut arduratu egin naiz, ez dudalako espezializatu nahi emakume edo feminista izanagatik, emakume gaitan. Zorritzarrez, konturatu nahiz generoaz edo emakumez gehiegi hitz egiten duzunean joera dagoela sailkatzeko eta zeu egiteko gai horretan aditu. Gai askoren gainean idazten dut, baina generoaren gaia sarri aipatzeak horretan aditu bihurtu nau. Hitz egin arren politikaz, edo politika egiteko modu berriez edo beste gako edo gai batzuen gainean... Ez dut neure burua sailkatu nahi, eta horregatik zentsuratzen dut neure burua, eremu jakin batera zokoratu ez izateko. Nire kasuan, era inkontzientean izan arren, badu garrantzia emakume izateak.



Arantza Santesteban, eguaztenean, Arrasaten. | ENEKO AZKARATE

Beste zutabegile edo kazetari emakumeekin berba egiten duzunean sintonia berean antzematen dituzte?

Bai, sentsazio berbera da. Begirada oso entrenatua daukagu eta iruditzen zaigu gai orokorrak bihurtzen direla intereseko gaiak; hau da, politika, ekonomia..., goi-goian dauden gaiak direla. Horretaz aritzea da normal idaztea eta horretaz idazten aritzen dira jeneralean gizonezkoak, eta araua edo normala dena bihurtzen da batez ere gizonezkoen gune edo haiek ordezkatzen dutena. Uste dut emakumeok badugula dohain bat: azterketa objektibo bat eginda, emaitza da gizonezkoak idazten dutela politika edo ekonomiaz eta emakumeok hitz egiten dugula zabaltasun handiagoz, politikaz, ekonomiaz, etxebizitzaz bai, baina baita espazio pribatuari dagokien gaiez ere, amatasunaz edo harreman afektiboez...; beste kezka batzuek. Katalogo handiagoa daukagu eskaintzeko emakumeok, idazteko aukeratzen ditugun gaiei dagokienez.

Zelan tratatzen da emakumea hedabideetan?

Azken urteetan saiakera handia egiten ari da genero ikuspegi orokorra emateko hedabideetan. Euskal hedabideetan, bereziki, lan handia egin da, oraindik egiteko

asko geratzen den arren. Ikuspegi berria txertatzea, kodigoa, mentalitatea, aldatzea da kontua eta horrek denbora behar du. Geroago eta kezka handiagoa dago kontu honekiko eta baita bitartekoak ere, hedabideek informazioa egoki eman dezaten. Goienaren kasuan, egunotan ibili naiz gaia profesionalekin jorratzen eta ardura eta interes handia dago profesionalen aldetik haien lana egoki egiteko. Oso gustura aritu naiz Goienakoen. Eta ondo egitea da biztanleriaren erdia garen emakumeon errealitatea, kosmobisioa, egunero jardunean sartzea. Halere, kulturalki barneratuta daukagu hainbat rol eta estereotipo eta, askotan, gauzak ondo egiten saia-

tu arren, zaila da gako egokiekin jardutea. Emakumezkoena edo gizonezkoena, berez, dena gainditzeko saiatzea da kontua. Mentalitatea iraultzea da kontua.

Ze garrantzi daukate hitzek eta hizkuntzak berak generoaren trataeran?

Handia. Hizkuntza eta hitza dira, askotan, daukagun mundu ikuskeraren ondorioa. Mundua zelan ikusten dudana, hitzen bidez adierazten dut gehienetan. Objektibitatea ez da existitzen, bakoitzak munduaren ikuskera partikularra duelako. Baina neurri batzuk aplikatuz, eta horretarako daude hedabideetan eta komunikazioan adituak diren feministak, ari dira neurri batzuk planteatzen hiz-

kuntzaren gainean. Hori aplikatuz gero, egokiago kontatuko ditugu gauzak hitzen bitartez.

Hedabideetako estilo liburuak aztertu dituzte generoaren aldetik. Garatuta daukate atal hau hedabideek?

Aztertu ditut hainbat hedabideetako estilo liburuak eta baita hainbat eragile edo elkarrek egiten dituzten gomendioak. Estilo liburuei dagokienez, *Berria*-k edota *Argia*-k nahiko aurreratuak dituzte lan horiek. Beste batzuek neurri batzuk sartuta dituzte beren ohiko estilo liburuetan. Gero eta zalantza eta ardura handiagoa dago kontu honekiko hedabideetan, eta, horregatik, batzuek nahiko aurreratu dute gaia; beste batzuk bidean daude. Estatu Espainolean eta Latinamerikan egin direnak ere aztertu ditut. Katalunian lan handia egin dute hedabideetan genero trataera egokia bermatzeko. Horretarako behatoki berezia ere badute. Ekoziten dena ikertu, aztertu eta aholkularitza eskaintzen dute.

Aintzat hartzen dituzte arau edo jokabide horiek?

Nabaritzen hasi da. Praktika egokiak badaude. Baina arriskua dago: hedabideetan hutsunea badago gai honen gainean, eta, kezka horretatik abiatuta, momentuzko neurriek ez dute bermatzen generoaren trataera egokia ematea hedabideetan. Aldaketa sakona da eta jarraipena eta ebaluazioa egitea komeni da. Prozesu bezala hartzea. Genero trataera egokia ez da emakumeen gainean txukun berba egitea bakarrik...

Gazteen edo txikiagoen artean antzematen da matxismoa ala igartzen da beste jarrera bat?

Duela hamarkada batzuetako egoera berdintsuan bizi garela ematen du. Informazio eta bitarteko gehiago daukagu eta kontzienteago gara. Baina berdintasun formal horren atzean, egiturazko funtzionamenduak daude indartzen dutena emakumezkoen gauzak eta papera eta gizonezkoen gauzak eta papera. Uste dut emakume izatearen eta gizon izatearen inguruko geroago eta presio handiagoa dagoela. Nerabeen artean, bi izateko modu hauek indartzen ari dira, biak kontrajarriak izango balira bezala. Modu alternatiboak irudikatzen dituzten geroago eta zailtasun handiagoak daude. Horregatik dauzkagu horren emakume eta gizonezko markatuak, biko muturrak indartzen doaz eta hedabideek konpromisoa hartu behar dute azaleratzeko askatasuna eraikitzen dela izateko modu ezberdinekin.

"Idazteko gaien aldetik, katalogo ugariagoa dugu emakumeok"

"Kezka handiagoa dago generoaren trataeraren gainean"

"Barneratuta daukagu hainbat rol eta estereotipo, eta zaila da apurtzea"

"Askatasun indibiduala eraikitzen da izateko modu ezberdinekin"

ZABALIK

DIEGO MARTIARTU
goiena.net/komunitatea/



Autogolaren zain

Niri beti iruditu izan zait interesgarriagoa autogol bat sartzea gol bat sartzea baino. Gol bat sartzea arrun-keria nabarmena eta kontrako atezainari egiten diozun deskortesia handia da, zuk ez duzulako atezain hori ezagutu ere egiten eta berak ez dizulako ezer egin; autogol bat sartzea, berriz, independentzia-keinu bat da".

Demagun Neymarrek Roberto Bolañoren goiko berba horiek irakurri dituela eta halako txinparta bat piztu zaiola buru-bihotzean, eta aurtengo Mundialean, demagun, Alemaniaren kontrako finalean, Maracana estadioa bor-bor, azken minutuan, bana markagailuan, independentzia-keinu bera egitea erabaki duela eta gola bere atean sartu duela, eskumako zutoinak eta langak osatzen duten angeluari amaraun guztiak kendu eta hamarratza baloian pega-pega utzita.

Ikusleak, harmailetan txingurri, mutu gelditu dira. Jokalariak, bai brasildarrak bai alemaniarrek, harri eginik zelaian. Baina demagun, halako batean, Neymarren independentzia-keinuaz kutsatuta, txinparta batek dardarazi dituela Maracanara bildutakoen buru-bihotzak. Talde bietako jokalariek, baita epaileak eta entrenatzaileak ere, Neymar besarkatzen joan dira arineketan, zaletuen txalo artean. Independentzia-keinuak sortutako txinparta mundu guztira zabaldu da berehala. Mikel Gonzalezek sekulako gola sartu dio Bravori Anoetan. Denak poz-adurretan.

Orain partidak beste modu batera planteatzen dira: atzelariak aurkariaren ate aurrean jartzen dira, eta aurrelariak norberarenean, taldeen helburua autogolak sartzea eta kontrako autogolak ekiditea baita. Jakina, atezainei markaketa zorrotza egiten zaie, euren area barruan baloia eskuetan hartuz gero samur egiten dutelako autogola.

Berriro hasi dira jokalarien arteko demandak, liskarrak eta haginkadak. Harmailetakoak juramentuka. Abian da lehia. Ramos: txartel gorria eta kalera.

"Independentzia keinuak sortutako txinparta mundu guztira zabaldu da"

USTEAK USTE


JON BEREZIBAR | jberezibar@goiena.com

Euskaraz are banilla gehiago

Banilla kultura kontzeptua erabiltzen da produktu kultural zuri, atsegingarri, ez kritiko eta kontsumorako errazentzat. Kontserbadorea eta anestesiatzailea, publiko orokorrari zuzendua. Artearen zereginak ez du zertan asaldatzailea izan, baina deigarria da, eta paradoxa burlatia, krisiaren gorrienean ere publikoak duen banilla gosea zineman, musikan, telebistan... Hemen ere euskarazko kontsumitzaileei zigor bikoitza ezartzen zaigu sarri bazkarako gaztelarazko banillaren adulterazioa emanez. Bigarren edo auskalo zenbatgarren deribatua, euskaraz, zapore kaskarragoarekin. Pozoi goxo antzekoa, baina ez inokua.

MARRAZKIZ

ALEX UGALDE | goiena.net/komunitatea/



HANDIK ETA HEMENDIK

Zergatik izan du 'Fifty Shades of Grey' eleberriak itzelezko arrakasta?

Onintza Iureta
argia.com/blogak/onintza-irureta/

Josune Muñoz literatura kritikariari liburuazainak deika hasi zitzaizkion: "Aizu, Josune, etorri beharra daukazu. Herritarrek itxaron zerrendan daude liburuak irakurtzeko, sekula libururik irakurri ez dutenak ere liburu honen bila etorri dira, irakurri dutenak pozik daude. Etor zaitez liburuak kontatzen duena deseraikitzen, mesedez".

Muñozek [...] bateko eta besteko deiak jasota, hirurak irakurtzea erabaki zuen. Orduz geroztik Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat herritan ibili da liburuaz hizketan. Azken saioa Ondarroako Etxelilan egin du. [...]

Josune Muñozek emandako hitzaldiaren nondik norakoak: "Zelan da posible milioika ale saltzea? Batak besteari oparitzea, aholkatzea? Literatura kritikariok liburu

orori pasatzen diogun eskaner azterketa ez du gaintzen, ez da kalitate literarioa duen liburu. Bestelako arrazoiengatik harrapatu du jendea (emakumeak). [...]

Eleberri sentimentalaren eta erromantikoaren arteko nahasketa da liburu. Zer da eleberri sentimental? Neska protagonistak ikasgai batzuk ikasi behar ditu eta horiek ongi betetzen baditu bukaera ona izango da, XVIII. mendean bukaera ona ezkontza zen. [...]

Eleberri erromantikoan harremanak oso desorekatuak dira eta bukaera ez da zoriontsua izaten. Emakumea da beti galtzaile amaiera horietan [...] Liburu hau berriz, ondokoa esatera dator 2014. urtean: lasai neska, izan harreman desorekatuak, dena ondo bukatuko da, maitasunak irabaziko du.

Sexu harreman eredu bakarra agertzen da neskaren eta mutilaren artean, koitua. [...] Hasieran esan dut irakurleen gosea zein den asmatu duela liburuak: maitasun desioa. Ez dut nik esango barne desio hori izan behar ez dugunik. Kontua da eta kapitalismoak eta patriarkatuak esan behar diguten hori nola ase. Barne desioa asetzeko liburu hau

irakurri behar dut? Nik uste dut ezetz, baina hala gertatu da. 18 urteko gazteek liburu hau irakurriko dutela pentsatzeak kezkatu egiten nau".

Zer egin amildegira ez erortzeko: eleberri erromantikoa zer den kontatzen ari zela amildegiaren adibidea antzeztu zuen Muñozek. Agian, zuotako askorentzat ezaguna izango da, baina nik lehenengo aldiz entzun-ikusi nuen eta bikaina iruditu zitzaidan. Barrez aritu ginen entzuleok. [...]

Kontua da neska lirain bat amildegi ertzean dagoela. Eta hasten da: "Lagundu, lagundu, lagundu!". Zer gertatuko da baldin eta eleberria erromantikoa bada? "Trakatan-trakatan-trakatan...", badator zalduna eta zaldi gainera igoko du emakume ederra.

Ikuspegi feministatik begiratuta zer gertatuko zaio emakumeari? Esan du: "Lagundu, lagundu, lagundu!". Muñozek off-eko ahotsa imitatu du: "Neska! Eman urrats bat atzera!", eta neskak urrats bat atzera eman du. "Neska! Eman beste urrats bat atzera!", eta atzera egin du. "Neska! Eman beste urrats bat atzera!", eta neskak agindua bete du. "Neska! Salbatuta zaude!".

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiboa Elkarte
E05 Basabe Poligonoa,
20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Aitor Izagire
Zuzendari nagusia Iban Arantxabal

Zuzendaria Eneko Azkarate
Erredaktore burua Ubane Madera
Sailkatu arduradunak Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Disenua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

Maketazioa Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
Argazkilaria Imanol Soriano
Publizitatea Mireia Larrañaga,
Amaia Mundifano, Zierza Martin,
Imanol Elortza
Testuen zuzenketa Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa Marta Leturia.
Administrazioa Agurtzane Gaintzarain,
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPEREA
ARRASATE 20500:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00
berriak@goiena.com

ORDEZKARITZA
ARETXABALETA 20550:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

Publizitatea Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

Legu Gordailua: NA-3329/2000
ISSN: 2174-369X
Tirada: 20.100 ale
Difusioa: 19.951 ale



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

GUTUNAK

Esker ona eta mirespena

Laket Auzmendi

(Arran gazte antolakundeko gazteen izenean)
Sabadell (Herrialde Katalanak)

Debagoieneko kide maiteak, ezin dugu hitz gutxitan adierazi zuekin pasatako egunen ostean sentitzen dugun esker on eta mirespena. Zuekin zuen eskualdean igarotako egunak eta gauak gure bihotzetan idatzita geldituko dira.

Guretzat ohorea izan da zuen eskualdeko errealitatea ezagutzeko, oso aberasgarria izan zen larunbateko bisita-tourra, zuen konstestuen irudi panoramiko bat ulertzea ahalbidetu baitugu.

Ez dugu sekula ahaztuko Ernaik -antolakunde ahizpa eta erreferentia guretzat- Bilbon deitutako lehenengo manifestazio nazionalen parte hartu izana. Guretzat oso hunkigarria izan da Herrialde Katalanetan haien kontra borroka egiten dugun etsai berberen aurka zuekin batera ateratzea Bilboko kaleetara.

Gure bi herriok bizi dituzten momentu historikoen inguruan

izandako eztabaidek eta independentziaren, sozialismoaren eta feminismoaren aldeko borrokari buruzko elkarrizketek aberastuta itzuliko gara gure etxera. Bihotz-bihotzez eskertzen dizuegu gure kontestuen inguruan duzun jakin-mina, eta ez gure herriaren egoeratik duzuen bakarrik, baita gure iritziari eta ikuspuntuari buruz daukazuen interesa ere.

Aldi berean, zuen gaztetxe eta lokaletan elkarrekin igarotako parranda gauak, elkarrekin partekatutako bazkari-afariak eta "ahizpatasun" momentuak ez ditugu sekula ahaztuko. Zuen harrerak eta zuen eskuzabaltasunak benetan markatuak utzi gaitu. Etxean bagina gisan sentiarazi gaituzue, eta irribarrea besterik ez zaigu irteten azken detailerik txikienaz ere arduratu zaretela gogoratzean. Bai altu jarri duzuela listoa! Euskal Herriak, euskal gazteriaren duintasuna, ilusioa eta indar mobilizatzailea ezagutu ostean, benetan indarbeterik itzuli gara. Kultura harrigarria, hain paraje politak, eta zuen lurraldea nola maite eta nola defendatzen duzun

ezagutzeko aukera izan dugu. Estrategiari buruzko, antolakunde eta lan egiteko ereduei buruzko eztabaidez eta gazte mugimendu indartsuak sortzeko ideia berriez bete ditugu gure itzulerako motxilak. Eta elkarrizketa, irribarre, eta sakontzen jarraitzea espero dugun harremanez beteta.

Itzuleran, are eta ziurrago gaude, herri errebeldeetako gazteriaren borroka soilik internazionalista izan daitekeela; soilik elkarrekin lan eginez suntsituko dugu orden españolista, kapitalista eta patriarkarra. Orain, jarraitzeko uneak dira, borrokan segitzeko uneak, beti egin dugun gisan, eta ez izan zalantzarik, irabaziko baitugu! Guk ez dugu zalantzarik, hala izango baita.

Gure errealitatea bertatik bertara erakusteko ilusio handiz itxarongo zaituztegu, zuek egindako harreraren neurrian izaten saiatuko gara. Katalan kantu herrikoi batek dioen gisan: gure etxea, zuen etxea da! Gazte mugimendua eraikitzen jarraituko dugu! Sozialismoa eraikitzen! Feminismoa eraikitzen! Aurrera, gora, euren herriaren askatasunaren alde borrokan diharduen gazteria errebeldea!

Esker mila, Mila

Ane Azkarate, Aritz Oteiza eta Sara Arietaleaniz

(Liburutegiko erabiltzaile gazte talde baten izenean)
Bergara

Bergarako Udal Liburutegian lanean 25 urte daramatzen Mila Agirrezabal, Errotalde Jauregiko damari:

Unibertsitate ibilbideari ekin genionetik bigarren etxe bilakatu zaigu harrizko eraikin polita. Bizimodu berri horri heldu aurretik, nerabezaro garaian sarjentutzat hartzen zintugun. Gure istilu, garrasi eta barre algarak jasan behar izan zenituen ikasketa ordu antzu horietan. Hori gutxi ez eta bizitzako beste etapa batean sartu garenetik oihuetatik kexa eta iradokizunetara pasa gara. Bileretako iskanbilak eta asteburu zein jaiegunetarako ordutegi malgu baten beharra bilakatu dira gure kezka nagusi. Horien guztien aurrean erakutsitako konpromiso eta inplikazio nabarmena eskertu nahi genizuke bergarar guztien aurrean. Eskariak udaletxera eramanez eta emaitzak jasotzen hasi gara. Txalotzekoa da zure lana eta horregatik eskertu egin

nahi genizuke. Ezin ahaztu zurekin besoz beso lanean diharduten Laida, Garikoitz eta Marian. Eta nola ez, Marijo garbitzailearen alaitasun eta umore ona.

Besterik gabe, esker mila egun ilun hauek argitzeagatik! P.D.: eskerririk asko zuzenketa lanetan aritu diren Uxue Agirre eta Julen Muruamendiarazi.

'Fracking'-ik ez

Josu Garitaonandia

(Equo Bergara)
Bergara

30.000 sinadura batzea da helburua Legebiltzarrean Herri Ekimen Legegilea aurkezteko. Jende ugari dabil boluntario herrietan eta mendietan sinadura bila. 15.000 baino gehiago batu ditugu eta 30.000ra heltzeko laguntza behar dugu. Hurbil zaitezte *fracking*-aren kontrako postu batera eta han azalduko dizute teknika bortitz honen arriskua. Ez da Arabako kontua, Deba bailara osoan zundaketak egiteko asmoa dute. Nafarroan eta Kantabrian aurre hartu digute eta debekua ezarri diote *fracking*-ari. Nora begira gaude? frackingezaraba.org.

Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00



Amaia DJ

Gazteendako bideoklipak
Amaia Txintxurretak aurkeztuta

► Eguena, 19:30, 22:00 eta 00:20

► Parte hartzeko:

- Twitter: @amaiaDJ
- Tuenti: DJ Amaia Txintxurreta
- Whatsapp: 688 69 00 17 (ahots- edo testu-mezua)
- Telegram: 688 69 00 17 (ahots- edo testu-mezua)



DUELA 10 URTE

2004-05-19

Herriarren Zerrenda, kolokan

Kolokan zegoen Herriarren Zerrendaren parte-hartzea Europako hauteskundeetan. HZ lehiatik kanpo uztearen aldekoek ematen zuten argudioa zen legez kanporatutako alderdi baten jarraipena zela, hautagaietako zenbait aurrez HBrekin aurkeztu zirela-eta. Hiru debagoiendar zihozzen zerrendan: Enara Mingez, Mila Larrañaga eta Ramon Loiti. Loitik prentsurrekoan zioen bera aurkeztu zenean legezkoa zela HB.



HZko hautagai debagoiendarrak. | OIHANA ELORTZA

2004-05-21

Debagoieneko triatloirik ez

Ekainaren 5ean ziren egitekoak urte gutxian arrakasta handia lortu zuen kirol proba. Arrazoi ekonomikoak eta antolakuntzakoak zirela-eta, baina, urte hartakoa bertan behera geratu zen, azken unean. Antxintxika triatloio taldekoek azaldu zuten, ez zuten batu proba antolatzeko behar beste diru; horrez gain, lasterketa segurtasunez egiteko behar zituzten 100 lagunak ere ez zituzten lortu antolatzaileek.

DUELA 5 URTE

2009-05-21

Greba orokorra

ELA, LAB, ESK, STEE, EHNE eta Hiruko ordezkariak "pozik" agertu ziren eurek deitutako grebak izandako erantzunarekin, baina onartu zuten kooperatibek eragin handia izan zutela jarraipenean; izan ere, kooperatiba nagusietan lan egin zuten. Oñatiko enpresa pribatuetan izan zuten arrakasta handia.

ARETXABALETA

Mikel Arroiabe Ikasketak aukeratzean, Biologia eta Arte Ederrak ziren bere aukerak; lehena hartu eta urteetan dabil, orain, hura besteei irakasten, nahiz eta oraindik tarteka marraztu | JULEN IRIONDO

"Hasi nintzen momentutik gustatu zitzaidan irakaskuntzan jardutea"

Ogibideak eraman zuen Oiona, Arabako Errioxara, eta Oionek bertora hurbilaz: eta hara non, Txapelketa Nagusiko epaile ere izan da aretxabaletar hau: zientziak, letrak, artea... **Han bizitza antolatu samar eduki arren, Oion utzi eta itzuli zinen Aretxabaletara. Zer moduzko esperientzia izan zen hangoa?** Oso esperientzia ona izan zen. Oion Logroñotik lau kilometrora dago, eta, euskarari dagokionez, edo, bestela ere, gure bizitzan ditugun erreferentzia guztiak oso desberdinak dira han. Euskara aldetik lan pila bat dago han egiteko, eta hara iristen denak badaki egin behar duela. Baina zortzi urte egin nituen, eta ni ez naiz hangoa, ni hemengoa naiz. Momentu baten aukera izan nuen Gasteizera joateko, eta proba egin nuen, bizi Aretxabaletan egiteko helburuarekin. Oionera iritsi nintzen 28 urterekin, baina 36 nituen, eta hasten zara pentsatzen: "Nik non bizi nahi dut?". 28-30 urterekin edozein lekutan, baina gero...

Asko egiteko, baina motibagarria ere behar du Oion bezalako leku batean euskalgintzan jarduteak. Arabako Errioxako ikastolen sare bat ari ziren muntatzen garai hartan; euskaltegia ere badago.

Tiki-ttaka euskara elkarteari indarra ematen ere orduantxe hasi ginen: literatura lehiaketa antolatzen, *Mintzalagun* antolatu genuen Oionen eta Bastidan... aberasgarria da zentzu horretan. *Mintzalagun* antolatu eta 44 pertsonak izena eman, eta Aretxabaletaren erdia da Oion. Jendeak bazuen gogoak egiteko, eta hori apur bat kanalizatzen hasi ginen eta...

Bertso-eskola ere badute Oionen. Bertso-eskola ere orduan sortu zen. Kuadrilla arteko bertso txapelketa antolatu zen Araban, eta hori dela-eta pentsatu zen Arabako Errioxan ere sortu behar zela talde bat, eta apuntatu ginen. Batzuk bertsoarako, eta bertsoarako balio ez dugunok gai-jarritzaile, epaile edo... eta niri epaile tokatu zitzaidan.

Eta Txapelketa Nagusiko epaile izatera arte...

Arabian jendea behar da denaroko, euskara kontuetan-eta. Oionen hasi nintzen, eta hor jarraitzen dut; urtero dago txapelketa edo kuadrilla artekoa, eta bai, oraingoan sari bat moduan izan da Txapelketa Nagusian egotea, lehenengo kanporaketetan.

Arabakotik Nagusira, beste ardura bat sentituko da, ezta?

Bai. Jende kopurua, eta... Beldu-

HERRITARRAK



Mikel Arroiabe, Aretxabaletan. | JULEN IRIONDO

"Zortzi urte egin nituen Oionen, baina ni hemengoa naiz, ez hangoa"

"Aretxagazeta"-n binetak egitea proposatu, eta animatu nintzen"

rra, "ondo egingo ote dut, ez ote dut egingo"... Formazio saioak ere izan genituen, zortzi bat, eta ikusten duzu zure puntuazioak besteen antzerakoak direla eta, alde horretatik, lasaiago, baina 1.000 lagun publikoan, eta bertsolariak Igor Elortza... Beste jende bat da.

Gustatuko litzaizuke final batean, 14.000 lagunekin, epaile izatea? Ez dakit ba nik e! [Barreak] Lau urtean behin denez, ez dakit lau urte barru honetan egongo naizen, baina bueno, suertatzen bada, suertatzen da.

Marratzeko zaletasuna txikitatik izan duzu?

Txikitatik izan dut erraztasuna marrazkiak egiteko. Bere garaian aukera eman zidaten *Aretxagazeta*-n, eta animatu egin nintzen, eta gustura ibili nintzen. Baina lanean-eta serioago hasten zarenetik, zaletasun horietarako denbora laburragoa izaten da: Araba

NIRE HERRIAN

URKULUKO INGURUA

Nik, behintzat, kanpotik jendea ekartzen dudanean Urkulura igotzen dut. Urkulu zoragarria da. Domeka goizetan ez, jendez beteta egoten delako, baina... astean zehar zoragarria da. Aspaldi hegaztien gaineko liburu bat atera genuen Arrasateko Oskar Mayorrek eta biok; Urkulura igotzen ginen hegaztiak ikustera.

ITOGINAK FRONTOIAN

Frontenisean jokatzeko dugu, eta teilatua oso gaizki dago; euri apur bat egiten duenean izugarritzko itoginak sortzen dira. Egin dute izugarritzko kiroldegi zoragarria, frontoirik gabe, eta han ibili behar dugu. Desastre hutsa da, halako batean sustoren bat eduki behar dugu. Eta herriko umeentzat ere... ez dago lekurik.

Euskaraz-etarako irudiak-eta egin izan ditut, baina gutxi.

Eta sormen edo erraztasun hori ikusita, ez zenuen pentsatu ikasketak hortik bideratzea?

Aukeraketa egin behar zenean, lehenengoa Biologia jarri nuen eta bigarrena Arte Ederrak. Biologia aukeratu nuen, eta ez naiz damutu.

Eta biologian jarduteko era desberdinen artean irakaskuntza aukeratu zenuen. Gustura?

Bai. Hasi nintzen momentutik gustatu zitzaidan. Egia esan, ez nuen espero; bosgarren mailan nengoenean esaten nuen: "Ni irakasle? Bai zera!". Baina hasi nintzen, eta gustatu zitzaidan. Gainera, zientziak aurrera egiten du; aspaldian teknologia berriekin-eta ere hasi gara, eta horretara moldatzen ere jakin behar da, gauzak Interneten begiratu... Irakaskuntza ere poliki-poliki aldatzen doa.

HERRIAK

ESKORIATZA

Eskoriatzarren historia irudiekin osatzen dabilta

- ▶ Komertzio, industria eta ogibideekin lotutakoak batzen dabilta oraingoan
- ▶ Interneteko 'Eskoriatza iruditan' atalera igoko dituzte argazki guztiak

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Eskoriatzarren historia iruditan jasotzen duen *Eskoriatza iruditan* izeneko datu basea osatzen dabilta apirila ezker Ibone Arexola-leibar eta Miriam Isasmendi gazte eskoriatzarrak. Orain arte, aisialdiarekin eta jaiekin lotutako irudiak jaso izan dira, eta, urrira arte, garai bateko herriko merkataritzarekin, industriarekin, ogibideekin eta erdialdeko arkitekturarekin lotutako argazkiak jasoko dituzte, bereziki.

Horren harira, honakoa azaldu du Isasmendik: "Aniztasuna lortze aldera, arlo horietakoak eskatzen gabilta, baina, egia esan, etxean daukagun edozein irudik balio du. Badakigu argazki ideala lortzea, denda bateko erakusleihoa duena, esaterako, ez dela samurra. Baina askotan, zeharka, orain existitzen ez den ate edo kartel bat ikusten da".

Ahoz ahokoaren bidez badabilta zuzenean arlo horretan ibilitakoekin edo gertukoekin harremanetan jartzen. Horren bueltan, emaitza onak ari direla jasotzen azaldu du Isasmendik, honakoa azalduta: "Batzuk jaso ditugu. Asko erdialdekoak dira, eta ogibideekin lotutako kontaktuak bilatzen gabilta orain".

Originala bueltan

Etxean 90eko hamarkada arteko irudiak dituztenei dei egin diete. Astelehenetik eguenera arteko goizetan kultura etxean daudela jakinaraztearekin batera, irudiok gustura jasoko dituztela aipatu dute. Nabarmendu dute argazkiak digitalizatu ostean, originala jabeari bueltatzen zaiola.



MARI MERTXE BITERI

KOMERTZIOAK Viteri denda zaharra Jose Arana kalean.



BASI ZUBIA

EGUNGO EGOITZA Ospitalerako txerriaren zozketa bira.



GEMMA LEZETA

ELIZBIRA HERRIKO KALEETAN Eskoriatzan ere elizbirak egiten zirela agerian uzten duen irudia.



RADAR LANTEGIA

LAPIKOEKIN RADAR-EN Emakumeak garaiko Radar lantegian lanean; irudian, lapikoak esku artean zituztela.



LEIRE ERRASTI

GABONETAKO JAIOTZA Gabonetan egiten zen jaiotzaren antzezlanak Eskoriatzako plazan.



CARMEN PAGALDAI

OILOEKIN BOLIBARREN Pagaldaik eta Garrok osatutako bikotea Bolibarren zituzten oiloekin.

jendearekin bat

Bozkatu



ezker anitza



Kurtzetxikik hartu ditu herriko zenbait abere, Udalaren ekimenez

Hamar hektareako larreen bazkatzen egongo dira; hasiera baten, uztaiera arte

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Kurtzetxikiri balioa emateko proiektuaren barruan eta, bereziki, lehen sektorea bultzatzeko asmoz, hilaren 17a ezker herriko baserritarren zenbait abere Kurtzetxiki mendiaren goiko larreen daude. Atzerapenak atzerapen, joan den zapatuan 22 behi eta bost behor igo zituzten hamar lagunen artean. Baserritar talde bat 08:15ean abiatu zen Aretxabaletatik behorrek; bide zaharretik Bedoñara joan ziren eta bertatik Kurtzetxikira. Bertan elkartu ziren behiekin zetorren taldearekin; batzuk oinez heldu ziren eta beste batzuk, gurdian.

Hamar hektareako lursaila da Kurtzetxiki gainekoa, eta Udalak egokitzapen lanak egin ditu abereak bertara bideratu aurretik: besteak beste, sareko ura bideratu eta lurra ongarritu dute, kalitatezko bazka izan dezaten.



Baserritarrak abereekin, Kurtzetxikiko tontorrera bidean. | MARI CARMEN LLODIO

Moxal okela ezagutarazten

Bestalde, Udalak moxal okela herriarren artean ezagutzera eman gura du: "Gizarteak ez du okela mota hori ezagutzen, askok esango dizute ez dela jangarria. Bada, okela horren aldeko sen-

tsibilizazio kanpaina egin gura dugu udazkenean", adierazi du Udaleko Landa Garapen teknikari Pello Garaik.

Era berean, Arrasateko inguruetan behorren kopuruak gora

egin dezan baserritarrei laguntzea da Udalaren asmoa; besteak beste, errepidera irten ez daitezzen itxiturak jarriko dituzte eta uztaiera begira ura edateko eta bazkatzeko askak jarriko dizkiete.



HARREMAN

Begoña Aiastuik irabazi du saria

Harremanek eskerrak eman dizkie maiatzaren 10eko Elkartasun Egunean parte hartu zuten guztiei. Tonbolan 3.016 euro jaso ziren eta Eroski Bidaien zozketako zenbaki saritua hau izan da: 1.156; Begoña Aiastui irabazleak Kantabriako edo Asturiasko nekazaritza-etxe baten hiru eguneko egonaldiaz gozatzeko aukera izango du.

'Ezberdin baina berdin' festa gaztetxean AEDren eskutik, 18 urtetik gorakoak euskarari lotzeko

AEDk *Ezberdin baina berdin* izeneko jaialdia antolatu du bihar, gaztetxean (22:30). Helburu nagusia da 18 urtetik gorakoak euskarara lotzea: "Ezberdinak gara, baina berdinak. Euskara dugu komunean; zarena zarena, heldu euskarari!", diote. Jaialdia hasteko, AEDko taldea aurkeztuko dute eta gero jolasak egingo dituzte, "betiere umore klabean". Jolasez gain, musika eta parranda giroa izango dira; jaialdia bera abiapuntua izango da 18 urtetik gorako AEDko gazte taldea osatzen joateko.

Udan ondo sentitzen lagunduko dizugu!

GORPUTZ TRATAMENDUAK

- Fangoterapia hidromasajearekin
- Bakunterapia
- Ultrasoinuak
- Kabitazioa
- Drainatze linfatikoa

KONTSULTA MEDIKO-ESTETIKOA

Arruabarrena doktorea (elkargokide zkia.: 6.073)

- Terapia medikoak
- Gorputz mesoterapia
- Dieta: Proteifine metodoa



RPS: 228/10

AG
AMAGARA

Erdiko kalea 54 behea
20500 ARRASATE
Tel.: 943 79 09 09
www.amagaraestetikazentroa.es

"Edozein erlauntz ikusita ere, Udaltzaingora deitu"

Bertako erlea edo Asiako liztorra izan, protokoloa zein den azaldu digu Udalak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Asiako liztor inbaditzaileak hainbat buruhauste sortu ditu azken egunotan Arrasaten. Joan den domekan hiru tokitatik kendu zituzten habiak: Meatzerreka auzoko Sarazar baserrian lehenengo; Sarako merenderoan gero; eta Erdiko kalean ondoren, Kajoi tabernaren gainean, teiltupean. Asiako liztorrarekin lotutako aurtengo lehen abisuak izan ziren joan den asteburu-koak: "Berandu dabilta", zioen Seguratasun Zibileko teknikari Jose Luis Etxebarria *Porru*-k.

Alderantziz, bertako erlea "askotxo" dabil: "Giro ona egin duen egunen ostean lurretik atera dira, eta erreginek euren lana egiteari ekin diote". Domekan Musakolan bertako erlearen erlauntz bat banku batetik kendu eta errekuperatu zuten eta astelehenean Udalpe kaleko etxe bateko laugarren pisutik ere errekuperatu zuten beste bat.

Murgiondoren laguntza

Halako kasuetan seguratasun protokoloa zein den gogora ekarri digu *Porru*-k: "Edozein erlauntz ikusita ere, Udaltzaingora deitu. Udaltzainek niri pasako didate abisua balorazioa egiteko eta horren arabera beteko dut Diputazioak horretarako propio prestatuta duen orria. Ondoren, erabakiko dugu nola



Liztor asiarra kentzeko suhiltzaileen interbentzioa, Erdiko kalean. | GOIENA

ESANAK

"Lehenbailehen akabatu behar dira, izurritea ez dadin zabaldu"

J. L. ETXEBARRIA | SEGURATASUN ZIBILA

jokatu". Azaldu duenez, bertako erlea kentzen Bittor Murgiondoren erlezain arrasatearraren "ezinbesteko laguntza" dute: "Borondatezko lana da, eta eskertu

beharrekoa. Bertako erleekin dabil lanean eta beraz, erle asiarak etsaiak dira harendako". Ezin da ahaztu Asiako liztorrak bertako erlea oso modu bizkorrarean akabatzen duela.

Akabatzeko hainbat modu

Liztor asiarrarekin zer egin behar den argi dute, beraz: "Izurritea zabaldu ez dadin, lehenbailehen akabatu behar dira. Etxebizitzetan daudenean normalean suhiltzaileak etortzen dira, baina mendian gertatzen bada, non kokatuta dagoenaren arabera, beste modu batzuk daude; pozoia botata, tiroz...".

Bertso saioa eta ardo dastatzea bihar Ferreriasen, Araba Euskaraz-en alde (18:30)

J.B. | ARRASATE

Ekainaren 15ean Lapuebla de Labarcan ospatuko den Araba Euskaraz ekimena lagundu eta Arabako Errioxako ardoaren promozioa egiteko, ekintza interesgarria antolatu dute biharko. Bertso saioa eta ardo dastatzea egingo dute Ferrerias kaleko plaza berrian (18:30). Eskuerna-

gako Candido Besa upeltegiko enologo Esti Besak gidatuko du dastatzea eta, aldi berean, Ane Zuazubizkar, Paula Amilburu eta Xabi Igoa bertsoari dastatzearen gaineko bertsoak egingo dituzte. Amaitzeko, 20:00 aldera, The Potes eta Dirty Brothers taldeetako kideek kontzertu akustikoa eskainiko dute.

Askapenaren eskutik, Venezuelako brigadista talde baten bisita

Askapenak gonbidatuta, Venezuelako brigadista talde bat Arrasatera dator. Atzo hitzaldia egin zuten Iratin, *Venezuela inperialismoaren jomugan* izenburuarekin. Bihar brigadistei harrera egingo diete (10:00) eta gero herria bisitatuko dute (10:30). 14:30 aldera bazkaria egingo dute.

Luis Mari Martinez Garate | Ingeniarria eta historia-zalea

"Katalunian ere ukazioa eta itxikeria erabiliko ditu Espainiak"

J.B. | ARRASATE

Nabarralde elkarteko Beñi Agirre historialariak Kataluniaren sorrera historikoaren gaineko sarrera egin ostean hasi zen Luis Mari Martinez Garateren *Catalunya hacia su independencia* hitzaldia. Jende gutxi elkar-tu zen Kulturateko areto nagusian, baina bildutakoek adi-adi jarraitu zuten saioa.

Azaroaren 9a egun seinalatua da katalanendako. Zertarako balio izango du herri-kontsultak?

Ez da itxaropen faltsurik sortu behar. Jendartean baikortasun kezkarri bat antzematen dute; Kataluniako prozesuak traba handiak izango ditu. Espainiako Estatuaren erabateko ukazioa dago, hori oso ezaguna zaigu Euskal Herrian. Azken kasua ikusi besterik ez dago: Coca Colaren iragarki bat atzera bota dute, protagonista euskal presoek eskubideen alde dagoelako. Erabat sinestezina da. Katalunian ere ukazioa eta itxikeria erabiliko ditu Espainiak, independentziaren aldeko puxika husten joan dadin. Baina ez dute uste hori gertatuko denik; azken Diadan egon nintzen, eta jende



Martinez Garate Kulturaten. | J.B.

asko sinetsita dago independentzia dela bidea.

Ze iritzi duzu erabakitze esku-bidearen aldeko Gure Esku Dago ekimenaren gainean?

Interesgarria da, baina puntu batzuk zehazteke daude. Gure esku dago, noski, gure eskubidea da. Baina zergatik? Gizarte bat dagoelako bere burua subjektu politiko moduan erai-ki gura duena. Eta subjektu politiko horren helburu demokratikoa da independentzia definitzea. Ez dute kritikarik egin nahi; zehaztasun falta dagoela uste dute, besterik ez.

Azkena, Gure Esku Dagorekin batera

Udaberriko hitzaldi zikloa hilaren 28an amaituko da (Kulturaten, 19:00) *Independentziaren bidean, zenbat gara?* mahai-inguruarekin; Floren Aioz, Anjel Rekalde eta Txente Rekondok hartuko dute hitza. Nabarralde eta Zuztarrak Errotuz taldeak Gure Esku Dago ekimenarekin batera antolatu dute zikloa itxiko duen azken saio hori.

OHARRAK

DEIALDI BEREZIA LORE GAZTEAK TALDEKO KIDEEI
Lore Gazteak dantza taldeak 50 urte beteko ditu aurten. Hori dela eta, taldetik pasa diren dantzariak deialdia egin diete uda ondoren egingo den jaialdian parte har dezaten. Interesa dutenek honako helbidera idatzi beharko dute ekainaren 20a baino lehen: loregazteak@gmail.com.



Chatarrería
Mondragón, s.l.

Era guztietako txatarra eta metalak erosten ditugu.

• Pabiloiak, ganbarak... garbitu, eraikinak bota...

• Makineria handia dugu.

Txurisena poligonoa, 1. lokala.
Musakola auzoa, Pesako garajeen ondoan.
Arrasate
Telefonoak:
943 04 44 03 eta 605 75 70 04.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

zenbaki 
aholkulariak-abokatuak



• Juridikoa:

- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekursoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkursoa.

• **Laborala:** erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazio espedienteak.
• **Fiskala:** enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
• **Kontabilitatea:** pertsona fisiko eta juridikoak.

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12
www.zenbaki.es

Eliz musika emanaldia bihar parrokian, doan

Soprano, biolontxelo eta piano hirukote batekin batera, Goikobalu abesbatzak ere hartuko du parte

JON BEREZIBAR | ARRASATE

Ozenki elkarteak eliz musika (sakroa) emanaldia antolatu du biharko, zapatua, parrokian (20:00). Bach-en, Mozart-en eta Faure-ren lanek osatuko dute egitaraua, besteak beste, eta Goikobaluk ere abestuko du, 25. urteurreneko ospakizun ekintzen barruan. Doan da sarrera.

Igor Egidon, biolontxeloarekin
Hirukote batek osatuko du lehen emanaldia. Gasteizko Montserrat Sanchez sopranoak abestu, eta Igor Egidon biolontxelo-jole arrasatearrak eta Felipe Ainz piano eta klabe-jole bilbotarrak lagunduko diote. Sanchez kantu irakaslea da Gasteizko Udala Musika Eskolan. Prestakuntza zabala jaso du eta zarzuelan eta oratorio abeslari moduan zaildu da soprano urteetan, solista. Igor Egidon, Arrasate Musikaleko ikasle ohia, prestakuntzan eta nazioarteko makina bat orkestratan egin du ibilbidea. Hura ere Gasteizko Udala Musika Eskolako irakaslea



Goikobalu, Aramaioko San Martin elizan. | IMANOL SORIANO

da. Hirugarrenik, pianoan Felipe Ainz egongo da, eta, interpretea izateaz gain, soinu piezen idazlea eta moldatzailea ere bada. Instrumentuaz gain, hainbat abesbatzaren arduradun eta zuzendaria ere bada. Ordu erdiko emanaldia egingo du hirukoteak. XVIII. eta XIX. mendeetako piezetan oinarrituko da emanaldia, guztiak musika sakrokoak.

Goikobalu

Arrasateko abesbatzak ostean egingo du emanaldia, errepertorio garaikideagoarekin. Morales, Byrd eta Mendelssohn-ekin batera, ez da faltako, halako emanaldietan geratu ohi den moduan, Madinaren *Aita Gurea*. Arrasateko abesbatza bete-betean sartuta dago 25. urteurreneko ospakizunetan, gainera.

'Erdaldun berrien kluba' domekan gaztegunean

J.B. | ARRASATE

Domekan, doan, AED elkarteak ekoiztu duen *Erdaldun berrien kluba* antzezlanaren ikusteko aukera egongo da Pablo Urangako gaztegunean, 19:00etan.

Idoia Etxeberria oñatiarrak idatzi du gidioa eta Olatz Pagaldai eskoriatzarra da antzezlea. Euskara eta emakumea ardatz moduan hartzen dituen lana da eta gogoeta eragitea da helburua. Publiko guztiei zuzendutako formatu txikiko komedia da. "Terapeutikoa", egilearen hitzetan.

Kale-erakusketa egingo du Margo Taldeak bihar Seber Altube plazan

J.B. | ARRASATE

Orain dela bost urtetik hona Arrasateko Margo Taldeak maiztzean egiten duen kaleko erakusketa zapatuan egingo dute. Seber Altuben ipiniko dituzte margoak erakusteko eta baita saltzeko ere, goizez eta arratsaldean.

Hainbat artistaren denetarik obrak ipiniko dituzte taldekoek, eta, aitortzen dutenez, urteko hitzordurik politenetakoa izaten da. Harresi aretoan ere egin ohi dute beste bat, baina hori "formalagoa" izaten dela aitortzen du Montse Roldan taldekideak, "eta jende gutxiago joaten da" beste horretara.

Herria girotzeko nahia

Zapatuko mostrarekin, kalean egiten dela baliatuta, Margo Taldearen lana erakutsi gura dute, helburu nagusi bezala. Natura hilak, paisaiak, figuratiboa... Roldanek nabarmentzen du talde bereko kide izanik ere artistikoki oso izaera ezberdinekoak direla guztiak eta erakusketak berak ere aniztasun hori erakutsiko duela. Salgai ere egongo dira, gura duenarentzat, nahiz eta hori ez izan erakusketaren asmoa. "Iaz margolan bat" besterik ez zela saldu kontatzen du Roldanek, eta salmenta taldekide guztiek elkarrekin ospatu zutela.



Carrillo, Kajoi tabernan, bere argazkien aurrean. | JOKIN BEREZIARTUA

Koldo Carrillo | Argazkilaria

"Basoan harreman intimoa sortzen da norberarekin"

Ekainaren 7ra bitartean izango du naturari gorazarre egiten dion erakusketa Kajoi tabernan

J.B./J.B. | ARRASATE

Koldo Carrilok (Arrasate, 1985) naturarekin duen harreman intimoa erakusten du Kajoi tabernan duen erakusketan. Kolore bizietan eta paisaietan hartzen du atsegin.

Zenbatgarren erakusketa da?

Italian argazkilaritza ikastaroa egin nuenetik, laugarren erakusketa da hau. Azkena duela laupabost urte egin nuen, *Sentsaziozko parajeak*. Bai gaiaren aldetik zein kalitatearen aldetik beste jauzi bat da hau.

Zehazki, baina, oraingoan basoa da gaia.

Hamahiru argazkik osatzen dute, eta basoaren alde ezberdinak erakutsi nahi izan ditut. Barietate dezente aurki daiteke, elementuen arabera: erreka, harria, zuhaitzak, orbela... Koloreak garrantzi handia du. *Sentsaziozko parajeak* zuri-beltezten zen; oraingoan, naturan bezala, koloreak garrantzi handia dauka.

Izena ere berezia du.

Bai, apropos aukeratutakoa da. *Baso bizia, bizi basoa...* Bi zentzutan doan izenburua: alde batetik, basoa, komunitate bezala ulertuta, naturak denboran zehar aurrera daraman biziari

erreferentzia eginez; eta, bestalde, basoa da norbanakoa, kasu honetan ni, argazkilaria, oso eroso sentitzen naizelako hantxe. Bakardadean zaude, naturarekin harreman intimoa izaten da bertan eta hor murgildu eta txoko ezberdinak esploratzean datza. Erakusketarako idatzi dudan testuan esaten den moduan, askotan, bakardade horretan bilduta ematen du denbora eten egiten dela. Entzuten den bakarra uraren isuria, txoriak... dira eta zure baitara bilduarazten zaitu.

Ze erreakzio jaso duzu ikusleen aldetik?

Neu oso pozik geratu naiz lortutako emaitzarekin eta jendea asko gustatu zaio. Euskal Herrian, naturaz inguratuta gauden aldetik, jendea naturarekiko oso pertzeptiboa dela iruditzen zait.

"Jendea, dugun inguruarengatik, naturarekiko oso pertzeptiboa da"

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Edurne Iriando - Piskologoa


- Diagnostikoa - Orientazioa
- Psikoterapia: umeak, gazteak eta helduak
- Arreta psikologikoa genero indarkerian
- Laguntza eskolarrak
- Estimulazio goiztiarra
- Psikomotritzitatea eta logopedia
- Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13

arbolapeta



PUB
HAIZEA



Herri Artekoa hasiko dute gaur Uarkapen

IRATI GOITIA | ARRASATE

Herri Arteko Pilota Txapelketari ekingo diote gaur herriko pilotariak. Gipuzkoa mailako lehiaketa da eta Astigarragaren aurka neurtu beharko dituzte indarrak etxekoek. Hiru mailatan arituko dira: kadete, gazte eta seniorrak. Beraz, hiru norgehiagoka ikusteko aukera izango da gaur, 19:45ean hasita, Uarkapen. Kadete mailan, Ander Murua eta Markel Moron izango dira herriko ordezkariak; gazteetan, Josu Egia eta Joseba Garate; eta seniorretan, Ibai Bolinaga eta Aritz Zuazua.

"Pilotari onak ditugu, lehiatzeko modukoak. Azken bi

urteetan txapelketa irabazi zuten herriek kanporatu gintuzten [Hernanik orain dela bi urte eta iaz Oiartzunek]. Ikusi egin behar aurten noraino iristen garen...", esan du pilota saileko presidente Alberto Garatek. Eta gaineratu: "Urteko txapelketa garrantzitsuena eta politena da. Izan ere, herrien arteko lehia izaten da eta emozio dezentte izaten da". Horrenbestez, jendea animatu nahi izan du pilotalekura.

Asteburu honetan Arrasaten jokatuko dira partiduak eta hurrengoan Astigarragan. Puntu gehien eskuratzen dituenek lortuko du aurrera egitea.

Tolosari irabazita, Mondrate areto futbol taldea mailaz igoko da

Gaur, egubakoitza, aukera paregabea izango du Mondrate taldeak kategoriaz igotzeko. Eta balentria ederra izango litzateke, taldea sortu eta lehenengo urtean lortuko zuketelako Gipuzkoako bigarren mailara igotzea. Arrasateko mutilak oso erregularrak izan dira denboraldi osoan zehar -jokatutako 26 partidutatik 20 irabazi dituzte. Hala, igoera fasea partidu bakarre jokatu dute, gaur (Iturripe, 20:00) ligan laugarren sailkatu diren Tolosako Iurre taberna taldekoen kontra. Irabaziz gero ospakizunak izango dira, seguru, nahiz eta zapatuan txapelduna nor den erabaki beharko duten.

Emaizta onak lortu zituzten asteburuan herriko atletek

Atletismo saileko kirolariak emaitza onak lortu zituzten asteburuan. Espainiako Kluben Arteko Txapelketa jokatu zen, Iruñean. Pertikan Jonathan Perezek hirugarren egin zuen eta Istar Dapena k laugarren. Salto hirukoitzean seigarren izan zen Iñigo Uribarren. Durangon, Espainiako Kluben Arteko Ohorezko Txapelketan, Maialen Axpek bigarren postua lortu zuen pertikan. Burgoen, Espainiako Kluben Lehen Mailako Ligan, lehenengo sailkatu zen Malen Ruiz de Azua pertikan. Azkenik, Donostian, Kluben Arteko Ligan, Markel Blancok laugarren egin zuen eta Martin Berrizbeitiak, zazpigarren.

ZALDIBAR

EMAITZAK

Lasagabaster - Abokajarro	5-2
Dribling - Haizea's Weah	7-2
Aldatz - Sonografos	2-2
Iluntz - Jibaros	10-2
Betrayer - Ostantz	3-7
Sport in Tus Bragas - Fidel&Discipulos	8-3

PARTIDUAK

MAIATZAK 24, ZAPATUA

10:00 Aldatz - Sport in Tus Bragas / Ant.

11:30 Sonografos - Iluntz / Ant.

MAIATZAK 25, DOMEKA

11:30 Lasagabaster - Haizea's Weah / Ant.

12:30 Dribling - Ostantz / Ant.

SAILKAPENA

A MULTZOA		
	P	J
1 Dribling	19	5
2 Iluntz	16	5
3 Haizea's Weah	11	5
4 Sport in Tus Bragas	11	5
5 Fidel & Discipulos	6	5
6 Jibaros	4	5
B MULTZOA		
	P	J
1 Aldatz	17	5
2 Lasagabaster	16	5
3 Sonografos	15	5
4 Ostantz	11	5
5 Betrayer	6	5
6 Abokajarro	1	5

Final-laurdenak jokatu asteburu honetan

Final-laurdenak jokatu dira asteburu honetan Zaldibarko txapelketan. Dribling aurkari gogorrek B multzoko laugarren postuan dagoen Ostantzen aurka neurtuko ditu indarrak. Eta B multzoko lehenengo postuan dagoen Aldatz nor baino bor gehiago arituko da Sport In Tus Bragas taldearen aurka. Final-laurdenak izanik, antolakuntzako kideek egingo dituzte epaile lanak partiduetan.



DORLETAKO AMA



OINTXE

Dorletako Amakoak fin, Irunen

Joan den zapatuan Erlojupeko Gipuzkoako Txapelketa jokatu zen Irunen, eta Dorletako Amako txirridulariek lan ona egin zuten: txapeldunorde gelditu ziren. Asteburu honetan, berriz, Arrasateko Txapelketa jokatu da, zapatuan, 16:30ean.

Gipuzkoako alebin onenak

Alebin mailako Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen joan den domekan Ointxe! elkarteko Mondragon Lingua taldeak. 62-39 nagusitu ziren arrasatearrak Easo 2002 Txindoki taldearen aurka. Iturripe jendez bete zen etxeok animatzeko.

Sikol

lentzeria

Tel.: 943 79 89 32
Olarte kalea 7 - ARRASATE



Bila gaitzazu
Facebooken



CONBIDAPENA

ZATOZ!

Maiatzaren 28an

bertan izango den aditu baten
aholku pertsonalizatuak
izango dituzu



ARRASATE MUSIKAL

Matrikula epea
zabalik

Ekainaren 20ra arte.

Ordutegia: 10:00etatik 12:00etara

16:30etik 19:30era

Zarugalde 2, Monterron jauregia.

943 77 05 40



IMANOL GALLEGO | BERGARA

Pentekosteak gainean dira, eta Aitor Maraurik aurtengo jaiak iragartzeko egindako kartela ezin aproposagoa da. Izan ere, *Erraldoia, Erraldoia, dotore jantzia / Erraldoia, Erraldoia, perkalez jantzia* lanak Internet bidez emandako botoen eta Jai Batzordeko kideen onspena jasotzeaz gain, aurtengo jai egitarauko ekitaldi nabarmen batekin bat dator.

Jaiak egubakoitzean hasiko dira, ekainak 6, eta Reyes Azkoi-tiak izango du festei hasiera emango dien txupinari su emateko ardura. San Martin plazan batuko den jendetzak Udala Musika Bandaren doinuekin gozatu eta gero, Bitorianatxo jaitsiko da herrira.

Zapatuan, erraldoizaleek pozez hartuko dute aurtengo kalejira. Izan ere, Bergarako erraldoiez gain, Kataluniakoak, Mutrikukoak eta Hernanikoak ere ibiliko dira kalerik kale. Guztira, hogeitik gora erraldoik hartuko dituzte Bergarako kaleak bi saiotan, lehen goizean (12:30) eta bigarrena arratsaldean (18:00). "Herrian erraldioen atzetik joateko tradizio handia dago, eta aurtengoa kalejira berezia izango da", azaldu du Leire Iruinek, Udaleko Kultura zinegotziak.

Kalejiran ibili beharrean tripa bete edo sukaldean duten abilezia erakusteko, 11:00etan bakailao lehiaketa tradizionala egingo dute San Martin plazan.

Egun berean, aurtengo Pentekoste jaietako berrikuntza

Berrikuntzak eta giza katea Pentekoste jaietan

Gure Esku Dago eguneko ekintzak izango dira jaietako berrikuntza nagusiak

nabarmenetakoa izango da, San Martin plazako kontzertua; azken urteotan erromeria egin dute, eta indarra galtzen hasia zela kontuan hartuta, formatu hori aldatzea erabaki du Udalak. Hortaz, erromeriaren ordez, aurten (23:00) Iparraldeko musikariak igoko dira oholtza gainera Iparraldea Bergaran kontzertuan. Hain zuzen, Anje Duhalde, Erramun Martikorena, Mixel Ducau eta Carolin Pilliphsek eskainiko dute kontzertua.

Gure Esku Dago eguna

Domeka, Gure Esku Dago eguna, ekintzaz beteta etorriko da, eta Udala, eguna indartze aldera, elkarlanean aritu da Gure Esku Dago ekimenekoekin eta Herri Mugimendukoekin. "Jende asko espero dugu, eta horri ganoraz erantzuteko egun osoko ekintzak indartu egin ditugu", esan du Iruinek.

Umeentzako gunea ere jarriko dute. Bertan, hainbat puzgarri egongo dira, baita txirrista erraldoi bat ere. Horrez gain, eguerdian txosnagunean jatekoa emango



Maider Osa eta Leire Iruin jaietako egitaraua aurkezten. | JAGOBA DOMINGO

Domeka izango da aurtengo jaietako egun nagusia

Herriko erraldoiek kanpoko konpartsen laguntza izango dute

dute, eta horren ostean Irrien Lagunekin eta Herrixa Dantzan ekimenarekin gozatu dute bergarrek eta bisitariak. Arratsaldean kontzertuak egongo dira: Gose eta Esne Beltza San Martin plazan eta Emon txosnagunean.

Astelehenerako, berriz, kua-drillen arteko jolasak indartzeko ahalegina egin du Udalak (11:30), eta, horretarako, izena emateko aukera zabaldu dute, bai Internet

bidez, baita tabernetan ere. "Zezen-plaza bete egiten da, baina berrikuntza honekin parte hartzaile kopurua ere handitu nahi dugu", dio Iruinek. Horretarako, edozein kuadrillak ere parte hartzeko aukera izango du. Antolatzaileei lana errazteko, aurrez izena ematea beharrezkoa izango da.

Herri bazkarirako txartelak

Aurreko urteetan egondako erre-erbak saihesteko, Udalak herri bazkariko txartelen salmenta zentralizatu du: "Salmenta kontrolatzeko eta erre-erbekin amaitzeko egin dugu", dio Maider Osak, Kultura teknikariak. Txartelak atzo ezkerko kultura etxean eskura daitezke. "Espero moduan, jendearen erantzuna izugarria izan da", esan du zinegotziak.

Gehienez, 700 pertsonarentzako txartelak aterako dira, bi koloretan, 18 urtetik gorakoak eta beherakoak bereizteko. Bazkariaren prezioa, helduentzat zein gazteentzat, 15 euro izango da. Edariaz eta kafeaz gain, entsalada, paella tradizionala eta Bergarako gozotegiek egindako goxua sartzen dira menuan. 18 urtetik beherakoei ez zaie alkoholik zerbitzatu antolakuntzatik, eta eseri ere leku berezian eseriko dira. Herri bazkaria ekainaren 9an izango da, 14:30ean, San Martin plazan; euria egingo balu, Labegaraietako kiroldegian.

Eguraldia ona edo txarra izan, argi dago bergarrek ekain hasiera kalean igarotzeko moduko jai egitaraua dutela.

Musikarekin hazi, hezi eta bizi...

-Musika eta mugimendu tailerra (5 urtetik aurrera)

-Hizkuntza Musikala (helduentzat ere)

-Ahotsa, abesbatzak eta kantu bakarlaria

-Instrumentu musikalak

-instrumentu herrikoiak:

Alboka, txistua, trikitia, panderoa eta txalaparta

-Gitarra eta baxu elektrikoa, bateria eta konboak

-Biolina (3 urtetik aurrera)

-Organoa

-Musika hezkuntza berezia

-Taldeak: Orkestrak, banda, trikitixa, abesbatzak...



Bergarako Musika Eskola
Tel: 943765780
idazkaritza@bme.e.telefonica.net



Matrikula zabalik ekainaren 15era arte



Herriko aberastasun kulturalaren arrakasta

IMANOL GALLEGU | BERGARA

Herriak bisitari asko erakartzen dituela argi dago, baina apiriletik hona bisitari kopurua hazi egin da. Cntravel bidaia agentziaren eskutik, Madrildik erki-degoa ezagutzera etortzen diren turistek herriko erdigunea bisitatzeko dute. "Udaberriari hasi ginen ibilbide berri honekin, eta jendeak gustuko du", aipatu du Begoña Ruiz gidariak. Hark proposatutako bisita da, eta Madrigo erkidegoak eskaintzen dituen bidaien artean dago.

Ruiz gidariaren ustez, janaria eta ondarea dira Bergarak duen arrakastaren bi sekretuak: "Hemen turistek kultura ondare handi bat ikusteko aukera izateaz gain,

pintxoak dastatu eta erosketa egiteko aukera izaten dute". Horrez gain, Madrigo gidariak herriko Turismo Bulegoaren prestutasuna ere azpimarratu du: "Bergarako bulegoak egiten duten lana bikaina dela iruditzen zait".

Gutxienez, azarora arte

Ekain bukaeran egingo dute azken bidaia, eta irailean berriro ekingo diete bidaia horiei. "Madrilen Bergara herri ezezaguna da, baina jendea liluratuta bueltatzen da". Gidariak egiten dituzten inkestetan, euskal hiriburuen ostean, Bergara da puntuazio handiena lortzen ari dena. "Bergara erakusteko irrikaz egoten naiz", argitu du Ruiz gidariak.



BERGARA BIZI

Moda desfileko sariak

Bergara Biziko kideak hasi dira moda desfilearen inguruko sariak banatzen. Amaia San Torcuatok, moda desfileko argazki lehiaketako irabazleak, 150 euro jaso ditu. Argazkia bozkatu zutenen artean egindako zozketaren irabazlea, aldiz, Leire Pineda izan da, eta hark 50 euroko saria jaso du. Janire Iglesiasek, aldiz, desfilearen aurretik dendetan banatu ziren txartelen irabazleak, 150 euro eskuratu ditu.

'Herriarrek herra' ekimenaren barruan, eguenean Martin Garitano herrian izango da

Egun osoko bisita horretan, zenbait herri eragilerekin bilduko dira Martin Garitano eta Foru Aldundiko beste ordezkari batzuk. Udal ordezkariarekin eta langileekin hasiko da bisita, eta udal-tertxeko udalbatzarrean egingo den herri bilera irekiarekin amaitu. Horretaz gain, herriarentzat garrantzitsuak diren proiektuak bisitatzeko, eta baita kezken eta arazo berri ere jasoko dute Foru Aldundiko hainbat departamentutako zuzendariak. Eguenean, herriko gizarte eragileek ere euren proiektu eta kezken berri emateko aukera izango dute.

87 urte betetzen dituztenei omenaldia domekan

10:30ean, Santa Marinan, San Joxepeko abesbatzak giro-tako mezarekin hasiko dute eguna. Ostean, Jardungo dantzariak aurrakua dantzatuko eta gero, guztiek kalejira egingo dute San Joxepe elkartearaino. Bertan, oroigarri bana-keta eta luntxa izango dute.

Gaztetxoendako disko festa Zabalotegin, DJ Amaiaren eskutik

Bihar, 18:30etik 21:30era bitartean dantzarako giro eta aukera paregabea izango dira Zabalotegin, DJ Amaiaren eskutik. Musika dantzagarria ipiniko du hark eta gaztetxoek gura duten musika eskatu ahal izango dute.

Krav Maga, defentsa pertsonalari buruzko ikastaroa, Agorrosinen

Arte martzialetan inolako esperientziarik ez dutenek ere parte hartu ahal izango dute; izan ere, defentsa sistema praktikoa eta errealista hori ezagutzeko aukera izango dute partaideek. Izen-ematea 645 00 98 08 telefono zenbakian egin behar da.



Madrigo bisitariak Goenkalen, San Pedro parrokia atzean dutela. | MIREN ARREGI



JOXE MARI IPARRAGIRRE
BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUA

ERIZAIN LAGUNTZAILEA

Erdi mailako heziketa zikloa.
Osasun familia. A-D EREDUAK

LANBIDE ETORKIZUNAK:

- Ospitaleko erizain laguntzailea.
- Zaharren egoitzetan.
- Eguneko zentruetan.
- Lehen artapenetako laguntzailea.
- Kontsulta pribatuetan.
- Hortz-kliniketan laguntzailea.
- Gaixoen zaintza.

AURREMATRIKULA:

Maiatzaren 27tik ekainaren 6ra (biak barne)

MATRIKULA EGITEKO EPEA:

Uztailaren 9tik 16ra (biak barne)



J.M. IPARRAGIRRE B.H.I

Santa Barbara bidea z/g - 20700 URRETXU (Gipuzkoa) • Tel./ Faxe: 943 72 14 03 / 943 72 14 13
www.jmiparragirre.hezkuntza.net - 012286aa@hezkuntza.net

Bihar ospatuko dute Auzoko egitasmoaren jaia

Jaiarekin, Auzokon egiten den lana ezagutarazi eta elkarren arteko harremanak sustatu nahi dira

IMANOL GALLEGO | BERGARA

Bergaran elkartuko dira lehen aldiz Auzoko egitasmoa martxan duten herri guztietako parte-hartzaileak. Herriar guztientzat zabalik dagoen egitaraua prestatu dute horretarako, euskara ardatz izanik, jatorri askotariko hizkuntza eta kulturak ere ezagutu ahal izateko. Jaia Seminarioko karpan izango da, eta 11:30ean emango diote hasiera egunari.

Ongietorri ekitaldiaren ondoren, hurrek beren txokoa izan-

go dute munduko jolas eta eskulaneekin. Bitartean, Auzoko taldeetan egiten diren dinamikak ezagutu eta haietan parte hartzeko aukera izango dute gerturatzen diren guztiek, baita jatorri askotariko janariak dastatzeko ere. Batu taldeak emango dio amaiera festari, eguerdi aldean, euskaraz abestutako musika afrikarrarekin.

Antolatzaileek, aniztasun eta euskararen festa horrekin, Auzokok helburu duen integrazioa gorpuztu nahi dute.

Auzoko ekimena herrietan

Euskaltzaleen Topaguneak koordinatuta, Bergararekin batera, Antzuola, Aretxabaleta, Arrasate, Azkoitia, Donostia, Eskoriatza eta Oñatin ari dira Auzoko egitasmoa aurrera eramaten bertako udal eta euskara elkarten laguntzarekin.

Jatorri askotariko herritarrek harremanetan jarrita, astero ordu eta erdiz euskaraz aritzeko elkartzen dira taldeak. Izan ere, hainbat jolas zein dinamikarekin, ondo pasatzea izaten da garrantzitsuena, modu horretan euskararako lehen pausoak errazago ematen baitira.

Herri bakoitzean dinamizatzailerak arduratzen da taldea martxan jartzeaz, baina herriko euskaldunen parte-hartzea beharrezkoa da euskarara gerturatu nahi duten etorkin horiei bidean laguntzeko.

Azokako aisialdigunea dela eta, saio gehiago

I.G. | BERGARA

Oxirondo azokan egongo den haur eta gurasoentzako aisialdigunea defintzeko bilerak aurrera doaz; martitzenean beste bi bilera egin zituzten.

Azken batzarretan, egitasmoaren orain arteko ibilbidearen laburpena egin zuten. Ondoren, aisialdigunearen inguruan egindako orain arteko lanketa aurkeztu, eta horren balorazioa egin ostean, aurreantzean egin beharreko pausoak adosten saiatu ziren. Hurrengo bilera bi aste barru egingo da, eta, aurrekoek bezala, horrek ere deialdi irekia izango du.

Mariaren Lagundiak ikastolako jaia ospatuko du zapatuan

10:30ean, puzgarriekin eta zezen mekanikoarekin hasiko dute eguna Mariaren Lagundia ikastolan. Horren ostean, olimpiada, eskulan eta pintxo lehiaketarekin borobilduko dute goiza. 14:00etan bazkarian bapo jan eta gero, festak arratsaldean jarraituko du. Lagundixori agurra egin ostean, 19:00etan bukatuko dute jaiegun hori.

Herriko eta kanpoko kultura, kartzela zaharreko asteburuan

Egubakoitzak Kartzelan ekimenaren barruan, Bergarako Orkestrako hari taldearen emanaldiaz gain, Enekokarenak taldeak harpa afrikarra eta ahotsetan oinarrituriko kontzertu akustikoa eskainiko du. Domekan, aldiz, 19:00etan, Los Manucos taldeak *Barca-madrid* antzerkia taularatuko du; sarrera, 2 euro.

Azkoitiaren aurka lehiatuko da gaur Bergara, Herri Artekoan

JULEN APERRIBAI | BERGARA

Aurrera segitzen du Herri Arteko Pilota Txapelketak, eta Azkoitiaren aurka neurtuko ditu indarrak gaur Bergarak, Udal Pilotalekuan. Aurkari gogorrenetako bat izango dute bergarrek aurrean, beraz.

Maiatzaren 17an, zapatua, Errenterian itzulerako partiduak jokatu zituzten bergarrek eta bertan eskuratu zuten final-zortzirenetarako txartela. 2-1eko errenta zuten eta 3-0ekoa lortu zuten, hiru kategorietan irabazita. Kadeteek eta gazte mailakoek 4-22 eta 18-22 irabazi zuten, hurrenez hurren. Eta

nagusiek kadeteen emaitza berarekin gainditu zituzten errenteriarrek.

Bergara Hirian, finalistak

Bien bitartean, Bergara Hiria txapelketako azken finalistak erabaki dira. Nagusietan, Altunak eta Irustak osatutako bikoteak 22-11 irabazi zien Atxotegiri eta Bolinagari. Akats batzuk egin zituen arren, Altuna izan zen partiduaren protagonista. Promesetan, Arteagak eta Erasunek egin dute aurrera, Bakikuari eta Mateori 22-7 irabazita. Ekainaren 3an jokatu dira finalerdiak eta 8an finalak.



Labegaraietako boulder-gunea. | OIHANA ELORTZA

Udalak boulderra erabiltzeko araudia Pol-Polekin hitzartu du

I.G. | BERGARA

Labegaraietako boulder-gunea egoera onean mantendu ahal izateko, Udalak eta Pol-Polek hitzarmena sinatu dute. "Orain arte gunea edozeinek erabil zezakeen, eta, araudi honekin, bere mantenu egokia ziurtatzeaz gain, erabiltzaileen segurtasuna ere bermatu nahi dugu", dio Lauri Askargortak, Kirol zinegotziak.

Horretarako, Udalak boulderra dagoen gunea itxi egingo du, kiroldegiko beste gunetatik bereiztuta utzita. Gunea erabili nahi duten erabiltzaileek kiroldegiko tabernan eskatu beharko dute bertako giltza.

Nork eta nola erabili?

Labegaraietako kiroldegiko boulderrera sarrera libre izango dute, Agorrosingo kirolguneko abonua indarrean dutenez gain, egunero sarrera ordaintzen dutenek eta Pol-Poleko eskalatzailer txartela dutenek.

Eskalatzailer txartela Pol-Polen lor daiteke; horretarako, baina, Mendi Federazioan lizentzia egunean izateaz gain, txartelaren kuota ere ordaindu behar da.

Udalak eta Pol-Polek sinatutako akordio horretan, boulderra egoera onean mantentzeko, finantzatutako inbertsio programa bat ere ageri da.

KARATE KYOKUSHIN TXAPELKETA NAZIONALA. VIELLAN. MAIATZAREN 17AN.

Zorionak!

Giartzu
Kyokushin

Javi Rodriguez
Karatean Espainiako txapeladunordea, Kumite Kyokushin modalitatean

Izar Muñoz
Karatean hirugarren postua, Katas Kyokushin modalitatean

LABEGARAIETA

EMAITZAK

Minimou Taldie - Birgerias	3-6
Diego Valor - Betti Jai	4-1
Poteo Izarrak - Irama Elgeta	8-2
T.C.C. - Komando Piperrak	4-7

FINALARRUEKO PARTIDUAK

MAIATZAK 24, ZAPATUA
18:30 Komando Piperrak - Birgerias
19:30 Diego Valor - Poteo Izarrak
MAIATZAK 25, DOMEKA
18:30 Komando Piperrak - Diego Valor
19:30 Irama Elgeta - Poteo Izarrak

BEHEKO TABERNA

Menestra
eta untxia dira
gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Gosari bereziak
09:00etatik zabalik!

Matxiategi 3, behea • Bergara • Tel.: 943 76 70 11

- Afariak
- Plater konbinatuak
- Ogitarkekoak
- Hanburgesak
- Sandwichak
- Entsaladak

UGARTE


ARROZTEGIA - ALTZARIAK

ARROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 76 54 91


ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 03 46 30

BERGARA

Ikasketak egiteko aski dira...



baina hori baino gehiago eskaintzen dizugu
Mariaren Lagundia Ikastolan



**HARREMAN
PERTSONA-
LIZATUA**

**ERREALITA-
TEAREKIN
HARTU-EMANA**

**GIZARTEAREKIN
KONPRO-
MISOA**

Haur Hezkuntzako eta Gizarte Integrazioko Goi Mailako Teknikariak

AURREMatrikulaZioA:
maiatzaren 27tik
ekainaren 6ra

MatrikulaZioA:
uztailaren 9tik
16ra



**Mariaren Lagundia
Ikastola**
Espaloia 1
Tel. 943 76 25 40 / 41
ikastola@mlagundia.net
www.mlagundia.net

Agiri batean jaso dute tratu txarren gaineko protokoloa

Gizarte Zerbitzuek, osasun etxeak, Debagoieneko Ospitaleak eta ertzain etxeak elkarlanean dihardute

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Tratu txarren eta sexu eraso biktimen babes eta laguntzarako Aretxabaletan abian jarrita dagoen protokoloa hitzarmen bidez berretsi dute egunotan. Hala, hainbat erakunderen konpromisoa jasozten duen agiria sinatu dute Ana Bolinaga alkateak, Udaleko Gizarte Zerbitzuen izenean; Clemente Domingok, Aretxabaletako osasun etxeako arduradunak; Edurne Cortesek, Debagoieneko Ospitaleko larrialdi zerbitzuburuak; eta Jokin Badiolak, Bergarako ertzain etxeako ordezkariak.

Protokoloaren pausoak

Aretxabaletako Udalak orain dela urte batzuk egindako gizonen eta emakumeen berdintasunerako planaren barruan, tratu txarren eta sexu eraso biktimei laguntzeko protokoloa dauka jasota 2010a ezker.

Eta ordutik hona, bi lan lerro sustatu ditu emakumeen aurkako biolentziaren borroka horretan: batetik, instituzioetako teknikarien arteko lan koordinatua eta haien prestakuntza; eta bestetik, emakumeen kontrako biolentzia egoera baten aurrean jarraituko duen protokoloa.

Emakunderen laguntzarekin 2010ean jarri zen abian biktimei laguntzeko protokolo hori, eta

zera egin: biolentziaren gainean sakondu; erakunde ezberdinen funtzionamendua ezagutu; erakunde bakoitzaren baliabideak ezagutu; indarkeria egoera baten aurrean erakunde arteko elkarlanean eta koordinazioan sakondu; eragile guztiei jakinarazi erakunde bakoitzak zein pauso emango dituen; eta etorkizunerako lan koordinatuaren beharra jaso.

2011n bukatu zuten protokoloa egiteko prozesu hori, oinarritzko hainbat erabaki hartu eta gero. Ordutik hona, hainbat ekimen eroan dira aurrera hainbat erakunderen



Jokin Badiola, Ana Bolinaga, Edurne Cortes eta Clemente Domingo. | M.A.

Udalaren erantzuna eraso baten aurrean

Emakumeen kontrako indarkeria egoera baten aurrean Udalak eman beharreko erantzuna jasota geratu da gogoeta prozesu bat egin eta gero. Hona jasotakoa:

Herrian hilketa bat gertatzen bada, Udalak ezohiko batzarra egingo du, eta alderdi guztiek mozio bat adostu eta aurkeztuko dute. Herriko Plazan elkarretaratzea deituko dute, gainera.

Euskal Herrian izandako emakume baten hilketaren aurrean, hura hil eta hurrengo egunean elkarretaratzea deituko da plazan.

Emakumeen aurka izaten diren biolentzia egoera guztiak salatzeke, herriko sarreretan *Aretxabaletak ez du indarkeria matxistarik onartzen* leloa duten panel finakoak jarri dituzte orain dela hilabete batzuk.



Herriko sarrerako panela. | M.A.

arteko elkarlanari esker. Baina horren berri jaso duen agiririk ez da egon orain arte; elkarlan hori ofizial egin eta zein garrantzitsua den plazaratzeko, erakunde bakoitzeko ordezkariak elkar-tu dira astean udaletxean. Eta helburu nagusiak agiri batean jaso dituzte.

Protokoloaren helburuak

"Protokoloaren helburu nagusia da genero biolentziaren edo sexu eraso biktima izan diren emakumeei eman beharreko laguntza hobetzea", jakinarazi du Bolinagak. Eta gaineratu: "Aurrera eramane beharreko jarduerak hainbat erakunderen artean koordinatuko dira, biolentzia sexistaren biktima diren pertsonen eman beharreko laguntza hobetzeko erabakitako prozedurak aurrera eramanda". Gainera, koordinazio mahaia dago eratu-ta protokoloari jarraipena egiteko. Eta mahai horretan erakunde bakoitzeko ordezkari bat izango da, horretarako behar dituen baliabide guztiekin. Bestalde, prestakuntzarekin jarraitzeko asmoa ere jaso dute agirian. Eta laguntza behar izan duten pertsonen jarraipena egingo diote mahai horretan.

Gainera, erakunde bakoitzak, dagokion eremuan, emakumeen aurkako biolentziaren kontrako borrokan lan bateratua bultzatzeko konpromisoa hartu du.

Laguntzarako prozedura

Era berean, jasota utzi dute tratu txarrak edo sexu erasoak jaso dituen pertsona bat laguntza eske joaten denean erakunderen batera (Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Debagoieneko Ospitalea, osasun etxea, ertzain etxea eta Udaltzaingoa), hari laguntzeko jarraituko diren pausoak zeintzuk izango diren.

Kultura kalean eta ohikoak ez diren guneetan 7x7 ekimenarekin

- ▶ Ekainean eta uztailean, zazpi astean zazpi ekitaldi izango dira kalean
- ▶ Kontzertuak eta txotxongilo emanaldiak izango dira, batez ere

M.A. | ARETXABALETA

"Kultura ekitaldiak kalera ateratzeko helburuarekin, eta era berean, ohikoak ez diren herriko gune eta plazetara zabaltzeko asmoarekin 7x7 kultura ekimena antolatu dugu", jakinarazi du Zigor Quintanillak, Kultura zinegotziak. Hainbat modalitatetako kultura ekitaldiak izango dira kalean; besteak beste, kontzertuak eta txotxongilo emanaldiak. Bada, ekimen horretan Aretxarte merkatarien elkarteak izan du lagun Udaleko Kultura Sailak.

Dirt Jump eta trialsina

Ekainean eta uztailean egingo diren zazpi kultura ekintza elkar-tu dituzte; hortik dator 7x7 izena. Gehienak egubakoitzetan, pare



I. Miguel teknikaria, Z. Quintanilla zinegotzia eta I. Elexpuru merkataria. | M.A.

KALEKO EKITALDIAK

EKAINAK 6

Musika eskolako Kombo taldea Mitarte kalea

EKAINAK 11

Txotxongiloak, TTR taldea Gipuzkoa plaza.

EKAINAK 13

Musika eskolako banda Arlutzeko plaza.

EKAINAK 18

Txotxongiloak, Bihar taldea Santa Kurtz plaza.

EKAINAK 20

Arpa eta perkusioa Gurea atzeko plaza.

UZTAILAK 4

Dirt Jump eta trialsina Herriko Plaza.

UZTAILAK 11

The Romanticos Iralabarri plaza

bat izan ezik –horiek eguaztente-tan–, eta guztiak arratsaldeko zazpietan.

Herriko sortzaileen emanaldiak eta kanpotik etorritakoek elkar-tu dituzte. Hala, Leizarra musika eskolako Kombo taldeak eta bandak emanaldi bana eskainiko dute, eta harpa eta perkusio kontzertua Ane Artetxe donostiarrak eta Iñaki Letamen-

di tolosarrak. Txotxongilo ikuskizun bi izango dira, gainera: TTR taldeak *Urrun erreinua* eskainiko du eta Bihar taldeak, *Ipuin magikoak*.

Dirt Jump eta trialsin ikuskizuna ere izango da Herriko Plazan; eta bukatzeko, uztailean 11n, swing, blues eta funk doinuak lantzen dituen The Romanticos taldearen kontzertua.

Afrikako bidaiaren kontaktarekin hasiko dituzte II. Ostegun Bidaiariak eguenean

Josu Velasco aretxabaletarrak Ugandan eta Ruandan bizikletan egindako bidaiak kontatuko du Haizean

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Ostegun Bidaiariak lehiaketaren bigarren edizioa abian da eta eguenean, maiatzak 29, izango da lehenengo saioa. Hainbat bidaiaren esperientziak parteka-

tzeko asmoz sortu zen iaz, Aretxabaletako Udalaren eskutik eta Artemanen laguntzarekin, eta orduko arrakasta dela-eta etorri da bigarrena. Hurrengo lau asteotan, eguenean, herriko hainbat

tabernatan eskainiko dituzte bidaiaren diaporamak.

Askotariko bidaiak

Josu Velasco aretxabaletarrak Uganda eta Ruanda herrialdeetan

bizikletan egindako bidaiaren berri emango du maiatzaren 29an Haizea tabernan (21:30). Ekainaren 5ean, oster, Maialen Zabaleta arrasatearrak Sri Lankako argazkiak eta kontuak ekarriko

ditu Orly tabernara (21:30); Sri Lankari bira eman zion hark 2012ko abuztuaren bizikletaz.

Ekainaren 12an, Aritz Unamuno eta Igor Narvaez arrasatearrek Filipinetan zehar aurten eta iaz egindako bidaiaren berri emango dute, Paulaner tabernan (21:30). Urpekaritza egitera joandako lagunak bertako parajeak eta herritarrak ezagutzeko aukera izan zuten.

Eta ekainaren 19an, Iñaki Arnaiz aretxabaletarrak India hegoaldeko kontuak izango ditu herbetagai Akorden (21:30).

Goio Arrieta | Aktorea

"Istorioetan kantak sartzea dut gustuko; hori antzerkia den ez dakit"

Estreinatu berri duen 'Lore bat' antzezlanaren bigarren saioa eskainiko du gaur Arkupen (22:00)

M.A. | ARETXABALETA

Martxoan estreinatu zuen *Lore bat* ikuskizuna Eskoriatzan Goio Arrietak (Eskoriatza, 1961), eta Aretxabaletan maiatzaren 8an egin zuen lehenengo saioa. Gaur bigarrena du Arkupen (22:00) eta maiatzaren 30ean egingo du hirugarrena.

Hirugarren ikuskizuna da, ezta?

Bai; aurretik beste bi eginak ditut, bakarrizketa formatukoak. Oraingoa, oster, ez da bakarrizketa hutsa, antzezlan baizik.

Orain arteko lanik osatuena da orduan?

Neure ustez, bai, denbora luzea eskaini diot-eta. Hasieran, istorio bat nuen buruan, baina aldatzen joan naiz; irratian entzundako ipuin bat ere banuen gordeta, eta, asmorik ez izan arren, horra pasatu naiz azkenean. Aurreko ikuskizunak tokian tokikoak ziren, eta oraingoa edozein tokitan aurkezteko modukoa da.



Goio Arrieta. | IMANOL SORIANO

Zer du besteen antzekoa honek?

Antzekoa du kantuak eta irudiak elkartzen dituela; nik diot kantu kontari edo konta kantari dela. Ipuin bat da eta kantua barruan, istorioaren arabera kantua egokitzen doa, eta alderantziz.

Beste ikuskizunek ez zuten halako istoriorik, ala?

Ez, eta erronka izan da niretako euskaraz lantzea halako istorio

bat. Umorea gazteleraz landu izan dut, eta euskal umorea ezberdina dela esango nuke, ironia ukitua du-eta. Idazle baten ipuina dago egokituta istorio horretan, eta neuk ere zerbait gehitu diot. Oraingoan, gainera, ez dut alde egingo agertokitik, aurrekoetan legez.

Eskoriatzan estreinatu zenuen, Aretxabaletan ere egin duzu saio bat; zelako harrera izan du?

Benetan oso ona. Aurreko ikuskizunak ikusi ez dituenak harrituta geratu da. Donostian eta Gasteizen lagun bana etorri zitzaizdan zorionak ematera. Kalean serioa naiz, batzuetan, behintzat, eta ez zuten halakorik espero, pertsona hala aldatzea oholtza gainean.

Antzerkigintzan bete-betean sartu zara orduan?

Ez dakit... Istorio barruan kantak sartzea dut oso gustuko; niretako oso esanguratsuak izan diren taldeak eta kantak. Antzerkia den... ez dakit. Ondo pasaraztea, beste helbururik ez dut.

Hortaz, jendea animatuko dugu gaur ikuskizunera joan dadin...

Bai, gustuko dut jende asko egotea ikuskizunean; urduriago jartzan naiz, baina gusturago jartzen dut, garrantzitsua delako ikusleek jartzan duten giroa. Aratusteetan ere garrantzitsua da batzuk erdian dantzan agertzea, baina garrantzitsua da baita inguruan ikusleak egotea. Hori dut gustuko nik.

Basabeazpik antolatutako Udaberri Jaiak girotuko ditu kale bazterrak bihar

M.A. | ARETXABALETA

Badator Udaberri Jaia, Arizmendi Ikastolako Basabeazpi guneko kideen eskutik. Herriko plaza eta kale bazterrak girotuko dituzte bihar, musika eta jolasak lagun dituztela.

Basabeazpin bertan elkartu 10:30ean, eta herriko hainbat plazatara joko dute. Haur Hezkuntzakoendako ezustekoz betetako irteera gertatu dute eta Lehen Hezkuntzakoendako, jolasak Iralabarrin. Horren ondoren, 12:00etan, kalejira egingo du ikastolako konpartsak, Basabeazpin hasita.

Arratsaldean ezustekoa

Eguerdian partean taloak egiten erakutsiko dute herriko plazan, eta bitartean euskal dantza gidatuak dantzatuko dituzte. Gero, bazkaltzeko batuko dira



Kukua, iazko jaialdian. | GOIENA

pilotalekuan guraso, ikasle eta irakasleak, 280 lagun. Arratsaldean umeendako tailerrak egingo dituzte eta 16:30ean ezustekoren bat izango dela iragarri dute. Eguna txokolate beroa hartuta agurtuko dute Argitxo eta Kukuarekin batera.

Beñat Elkorobarrutiak Espainiako futbol txapelketan jokatu du Euskadirekin

M.A. | ARETXABALETA

Joan den aste bukaeran Arrigorriagan (Bizkaia) jokatuak 12 urtez azpiko Espainiako futbol txapelketan izan zen Beñat Elkorobarrutiak (Aretxabaleta, 2002). Enrique Nieto hautatzaileak Euskadiko Selekzioarekin jokatzeko aukeratutako artean izan zen Aretxabaleta kirol elkarteko kimuen taldeko jokalaririk gaztea.

Kanporaketa ezin pasatu

Hemeretzi talde elkartu ziren txapelketan, eta lehen kanporaketa Extremadura, Gaztela eta Leon eta Valentzia taldeen aurka jokatu zuen Euskadiko Selekzioak. Norgehiagoka gogorak izan

zituena; hain zuzen ere, lehenengo biak galdu egin zituen, 2-0, eta hirugarrena berdindu, 2-2. "Pena ezin irabazi eta sailkatu izana, baina oso esperientzia polita izan da bizi izandakoa", jakinarazi du Beñat Elkorobarrutiak. Txapelketa Kataluniak irabazi zuen.

Hamalau mutikoren artean

Txapelketa jokatu aurretik hainbat entrenamendu saio egin zituzten 12 urtez azpiko mutikoek. Lehenengo saioetan 28 bat elkartu ziren, eta txapelketarako 14 aukeratu zituen hautatzaileak, horien artean aretxabaletarra. Oso ondo zaindu dituztela eta giro oso polita izan dutela une gutzietan jakinarazi du horrek.



Elkorobarrutiak, futbol zelaian. | M.A.



MAITANE RUBIO

30 urte bete dituztela ospatzen

Kinto bazkaria egin zuten 1984an jaiotakoek zapatuan. 22 lagun elkartu ziren, eta, txikitean ibili ondoren, Apotzagan bazkalduta zuten. Euskararen Eguna zela aprobetxatuta, gainera, goizeko ordu txikiak arte luzatu zuten ospakizuna. "Oso ondo pasatu genuen, eta datozen urteetan ere ospatzera animatzen ditugu kintoak", diote antolatzaileek.

Odol ateratzeak egingo dituzte Arabako Odol Bankuko kideek maiatzaren 26an eta ekainaren 2an

Arabako Odol Bankuko kideak odola ateratzera etorriko dira herrira datozen bi astelehenean, maiatzaren 26an eta ekainaren 2an. Betiko moduan, osasun etxean izango dira, 16:30etik 20:00etara. Atzo goizean autobusa izan zen Durana kalean.

Odol Emaileen Elkartearen kideek herritarrak animatu gura dituzte odola ematera joan daitezen.

Kirol elkartearen eguna egingo da bihar, Mendi Astearen bueltan

Horrez gain, familiei zuzendutako bizikleta irteera ere badago goizean

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Aurrera segitzen du Mendi Asteak. Domekan hasi ziren ekintzak, elizateetatik egindako martxarekin. Eguraldiak lagundu egin zuen, eta 120 lagun inguruk parte hartu zuten ibilaldian. Martitzenean, berriz, Gabez Takarraran mendi lasterketako zati bat egiteko asmoa zegoen, baina ekaitzak zirela-eta ezin izan zituzten irteerak egin. Bestalde, ikus-entzuzkoek jende askorik batu ez bazuten ere, ez zuten hutsik egin; bereziki, *Salto base, la montaña desde otra perspectiva* izenekoak. Ikusgarria izan zen hori.

Aurrerantzean ere badago zereginik Mendi Astearen bueltan. Gaur, *Ez zaituzte galdu Eskoriatzan* lelopean, orientazio jokoak egingo dituzte plazan, 18:00etan; dagoeneko 60 umek eman dute izena. Txikitxoendako zirkuitua presatu dute plazan, eta margotzen

ELKARTEAREN EGUNA

09:30-13:00 Saskibaloia.

13:30 Motorzaleen topaketa.

13:30 Gipuzkoa mailako talde txapelketa ongi etorria udaletxean.

14:30 Herri bazkaria plazan.

16:00 Mahai jokoak plazan.

17:30 Areta futbola: trebetasun txapelketa

18:30 Saskibaloia: binakako tiro txapelketa.

19:30 Parrillada: txuleta-jana, plazan.

20:45 Champions finala.

01:00 Jai bukaerako txupinazoa.

ere ibiliko dira; gainerakoak, ostera, herritik ibiliko dira.

Bestalde, biharko, askotariko ekintzak daude aurreikusita: batetik, familian egiteko bizikleta irteera abiatuko da 09:00etan plazatik; eta bestetik, Eskoriatza Kirol Elkartearen ere bada bihar, eta horren barruan, kirolarekin eta aisialdiarekin lotutako ekintzak izango dira.

Batzuk aipatzearen, eguerdian, aurtengo denboraldian Gipuzkoa eta Araba mailan lan bikaina egin duten hiru taldeei ongietorria egingo diete udal-txean: hain justu, saskibaloian, haurren mailan, neskez osatutako Lek Eskoriatzari; eta areto futboleko kadete eta gazteetan, Arizmendi-Eskoriatza eta Eskoriatza KE taldeko mutilei. Arizmendi-Eskoriatzari dagokionez, aipatzekoa da Gipuzkoako txapelketa izateaz gain, etzi, dome-

ka, Euskadiko txapelketako finala jokatu duela Bilbon.

Elkartearen 50. urteurrena

Aurten, gainera, kirol elkarteak 50 urte betetzen ditu, eta hori ospatzeko herri bazkaria gertatu dute; paella erraldoia prestatuko dute horretarako. Dagoeneko 200 txarteletik gora saldu dituzte, eta oraindik eskura daitezke horiek. Kirol Elkartearen presidente Jabi Corbalek azaldu du txartelak 6,5 eurotan saltzen direla gaur egun klubeko jokalariek direnendako eta 8,5 eurotan jokalaria ohi eta familiako kideendako. Akeita tabernan eta Manuel Muñoz kiroldegian eros daitezke.

Corbalek nabarmendu gura izan du elkartearekiko fideltasuna eskertzeko hamar urte baino gehiagotan bazkide diren lagunek bazkaria debalde joateko aukera dutela; eta kasu horretan, Akeitan edo kiroldegian izena ematearekin nahikoa dela.

Baina Mendi Astearekin lotutako ekintzak ez dira zapatuan amaituko. Etziko, domeka, Garaioa irteera gertatu dute; 09:30era egin dute hitzordua, plazan; orientazio zirkuituak izango dituzte gertu parte-hartzaileek.

Jon Maiak emigrazioaz eta bertsolaritzaz jardungo du gaur

Berbalagunak taldearen eskuetik, *Emigratitok bertsolaritzara* berbaldia egingo du gaur Jon Maia idazle eta bertsolaria. Familia erdaldunean jaio eta euskal kulturak duen diziplina zailenetakoan txapelketa izateraino iritsitakoa da Maia; eta hain justu, jauzi hori zelan eman zuen azalduko du 19:00etan kultura etxean hasiko den hitzaldian.

Asteburuan plazan jarriko dute Gure Esku Dagoren mahaia

Ekainaren 8an erabakitze eskubidearen alde egingo den giza kateko metroen salmentarako mahaia jarriko dute plazan bihar eta etzi, eguerdian eta iluntzean. Gure Esku Dago ekimenetik jakinarazi dute Eskoriatzako kilometroa Kanpanzarren izango dela eta 10:00etarako bertan egon beharko dela; giza katea 12:00etatik 12:30era bitartean izango da.

Adingabeen legeari buruz egingo dute berba

M.B. | ESKORIATZA

Hezkuntza Foroak antolatuta, adingabeek legeak hausten dituztenean gurasoendako zer-nolako ondorioak izan ditzaketan aztertuko dute hilaren 27an, 18:00etan, herriko kultura etxean.

Carmen Torres, Gipuzkoako abokatu elkargoko kidea, izango da hizlarietako bat; 28 urtez zuzenbide penalean abokatu izandakoa eta adingabeen koordinatzaile Abokatu Elkargoan. Horrez gain, EHUko Zuzenbide Fakultatean adingabeen legearen inguruko masterrean irakasle. Bestalde, Marina Areta ere bertan egongo da, Gipuzkoako Adingabeen Epaitegian gizarte langilea, hain zuzen ere. Berbaldia gaztelaniaz izango da.

Martxan da leihoetako loreen lehiaketa

M.B. | ESKORIATZA

Udaberriarekin batera, zazpigarren urtez jarraian, leiho eta balkoietako loreen lehiaketa gertatu du Udalak. Urtero moduan, lehiaketa parte hartu ahal izateko ez da beharrezkoa izango izena ematea; lorez, aihen-belarrez edo beste edozein landarez apaintzearekin nahikoa.

Dena dela, aurten edozeinek proposatu ahal izango du bere gustuko balkoi edo leiho bat. Ekainaren 13ra arte jaso ko dira proposamenak kultura etxean, 943 71 46 88 telefono zenbakian edo *kultura@eskoriatza.net* helbidean.

Sari bakarra banatuko da, 100 axtrokikoa; eta erabakia San Pedro bezperan, ekainak 28, jakinaraziko da.



Xabier Oiangurenen lanak ikusgai

Aste osoa eman du Ibarraundi museoan Xabier Oianguren eskoriatzarraren *Gipuzkoa* izeneko pintura erakusketak; eta interesa dutenek gaur arte bisita dezakete, honako ordutegian: 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 19:00etara. Gipuzkoa osoko lekuak islatu ditu Oianguren margolanetan, hala nola baserriak, kaleak eta paisaiak; Eskoriatzako San Pedro eliza ere jaso du.

Bigarren eskuko azoka egingo dute domeka goizean plazan

Etzi, domeka, bigarren eskuko azokaren zortzigarren edizioa egingo dute plazan, 11:00etatik 14:00etara bitartean. Azken azokan izandako arrakasta dela eta, azokaz gain, goizean zehar Rockalean kaleko rock musika egiten duen taldeak joko du plazan eta inguruetan.

OHARRAK

KANPO JOLASAK

Oraingo astean ere kanpo jolasak izango dituzte Tortolis ludotekara joaten diren haurrek. Gaur arratsaldean izango dira horiek.

SKATE FESTA

Gaztelekuan ere askotariko ekintzak dituzte: bihar, skate eta grafiti festa; eta etzi, hockey partidua.



KONPONKETAK:

Txapa

Margoa

Mekanika

Xabier Legorburu | Mairuaren Alardearen Elkarteko lehendakaria

"Herritarren parte-hartze barik, Alardea ez da ezer"

Martitzenean aurkeztu zuen Alardearen Elkarteak 'www.antzuolakoalardea.com' webgunea

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Webgune propioa dauka Mairuaren Alardeak. Atzetik, baina, lan handia dagoela azaldu du Xabier Legorburuk.

Zergatik webgunea?

Webgunea Alardearen bilakae-raren ondorio da. Zaharberritze prozesua egin genuen. Azterketa bat egin zen lehengo Alardetik gaur egunera egokitzeko. Prozesu aberatsa izan da eta oso emaitza polita eman du. Hori egin da, ikusten genuen, baina, Alardea gizarteratu beharra geneukala. Horregatik, egungo baliabide-tara egokituta, webgunea izatea beharrezkoa ikusten genuen.

Zeintzuk dira ezaugarri nagusiak?

Hainbat atal ditu, baina hiru dira nagusiak. Sarreran, Alardea gerturatze bat egiten da. Zer den adierazten da bertan, eta zati finkoa da: historia, jatorria, partaideak, herriko armarria, bandera... Alardea deskribatzen duen zatia da. Bigarrena parte-hartzaileri zuzendua dago. Hala, Alardeko parte-hartzaileri desberdinen deskribapena eta duten funtzioa azalduko da argazkiekin lagunduta. Hirugarrenik, ikus-entzuzko atal dinamikoa dugu: artxi-boko argazkiak, irudiak eta

audioak batuko dituen atala.

Sare sozialetan baita ere.

Bai; Twitter eta Facebook bitartez komunikatzeko bideak ere baditugu, Alardeko kideekin eguneroko hartu-emana izateko.

Alardearen aldaketek harrera ona izan dute?

Bai; 2009an Alarde berria aurkeztu genuen, eta uste dut baietz. Eszenifikazio berriak gustuko ditu jendeak. Alardearen gaineko iritzia jakiteko egin genuen inkestan, herritarrek oso ondo baloratu zuten berrikuntza hura. Alardeak transmititzen zituen balioak ere beste era batera azaltzen dira eta egungo gizarte-ko balioetara egokitu dira.

Balioak webgunean badatoz?

Bai. Alardearen figura duintzea zen helburuetako bat, eta lortu genuen. Mairuaren buruzagia duindu egiten da, eta adierazpen horren isla da daraman janzkera eta plazan egiten duen adierazpena bere hizkuntzan. Genero arteko berdintasuna ere azpimarratu nahiko nuke. Izan ere, emakumeak Alardeko kargu garrantzitsuetan ere parte hartzen du. Herrien arteko anaikidetzak ere transmititu nahi dugu; gatazkak egungo balioetara egokituta ere konpontzen dira.



Xabier Legorburu, Antzuolako Herriko Plazan. | MAIDER ARREGI

Zeintzuk dira Alardearen berezitasun nagusiak?

Geurea dela eta Antzuolan bakarrik egiten den Alardea dela. Gaur egunera egokitzen joan dena eta bertan azaltzen diren Antzuolako musika eta dantza bereziak: Iparragirrek egindako Antzuolako Alardeari buruzko bertsoak eta Trokeo dantza, hain justu.

Antzuolarrei eta elkarteari esker bizirik mantendu da ohitura hori.

Hori zoriontzekoa da. Gure lana batez ere guk geuk jasotako ondarea dela, herriarena dela. Nahi duguna da biharko ere horrela uztea. Horregatik, herritarren parte-hartzea oso garrantzitsua da. Harro eta oso gustura gaude parte-hartzearekin, arlo ezberdinetako jendeak parte-hartzen duelako, oso zabala da parte-hartzea.

Ondare immaterial izendatzeko lanean jarraitzen duzue.

Hori da gure helburua. Alardeak behar duen babesa izan dezan lanean jarraitzen dugu. Jaur-laritzarekin eta Diputazioarekin hari gara lanean Alardea ondare immaterial izendatzeko. Egia da oraindik nahiko berde gaudela eta hasierako pausoa gaudela. Baina, elkarlanean, Alardeak merezitako babesa izango duela espero dugu.

Alardearen bi protagonistak buruhandi bilakatu zenituzten.

Iaz egindako ekimena izan zen. Gure helburuan barneratuta geneukan ekimen hori; izan ere, parte-hartze barik, Alardea ez da ezer. Parte-hartze hori bermatzeko etorkizuna gure txikiak dira, eta txikiengana hurbiltzeko modu goxoa eta erakargarria zela ikusi genuen. Udalari proposamena egin, eta Iñaki Mataren laguntzarekin proiektu polita egin da.

Errugbi Eguna ospatuko dute bihar, zapatua, lehenengoz

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Sekulako ahalegina egin dute aurten Errugbi Eguna Antzuolara ekartzeko. Ahalegin horretan Asier Odriozola aritu da, besteak beste, eta pozik azaldu da aurten lehenengoz Antzuolan egingo delako Errugbi Eguna. "Helburua da errugbia herritarrei gerturatzeko eta ezagutzera ematea. Bailaran zaletasun handia dago", azaldu du Arrasateko taldeko jokalaria.

Egitarauak azken uneko aldaketak izan ditu. Hala, Arrasate-Durango partidua eguerdiko hamabietan jokatuko da, Eztalan. Festa giroan ospatu gura dute eguna: "Partiduaren ostean, hirugarren denbora herrikoia Mox tabernan egingo dugu; partidua komentatzeko elkarteko gara bi taldeak. Nahi duen oro etor daiteke. Horren ondoren, triki-poteoa eta bazkaria egingo da. Herritarrei eta Arrasateko Errugbi Taldeari eskerrak eman nahi dizkiet laguntzagatik". Kontzertuak gaztetxean: Neit Rojrn eta Enciskados taldeekin. Bukaera DJ saioak emango dio.

Fiare banka etikoaren gaineko hitzaldia izango da hilaren 29an

Possible eta beharrezkoa: Gure esku Fiare Banka Etikoa izenburupean aurkeztuko dute Antzuolan Fiare banka etikoa. Fiare gizartearen egoera hobetzeko gizarte ekintzan lan egiten duen banku etikoa da. Olanaren, maiatzaren 29an, 18:30ean egingo du hitzaldia Juan Karlos Olaetak.

OHARRAK

LAN ESKAINTZA

Bi peoi hiru hilabeterako kontratatuko deialdia. Langabezia egotea eta 2013ko urriaren 17ko Jaur-laritzaren ebazpenen baldintzak bete behar dira. Lanbiden izena eman behar da. Informazioa: lanbide.net.

'BIZI TABAKORIK GABE'

Bizi tabakorik gabe programaren gaineko informazioa izango da gaur, Zurrategin, 18:30etik 20:30era.

SARI BANAKETA

Patxiko Txerren Ipuingintza-ren 2014ko emaitzak jakinaraziko dituzte hilaren 28an, 18:00etan, Torresoroan. Apika taldearen saioaz gozatzeko aukera izango da.

Energia aurrezteko argiteria sistema berria jartzen dihardute herriko eskolan

Dena ondo bidean, maiatzean lanak bukatuta egotea espero dute

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Apiril bukaeran hasi zituzten herriko eskolako argiteria aldatzeko lanak. Jon Agirrezabaldek dihardu lan hori egiten, Migel Altunako praktiketako ikasle Juanekin batera.

Lehenengo solairuan lanak egin da, orain, bigarren solairua eta liburutegiko argiak aldatzea falta zaiela azaldu digu: "Haur eskola osoa, jantokia, lehenengo solairuko pasilloa, gelak eta komunak egin ditugu. Orain, bigarren solairua eta liburutegiko argiak aldatzea falta zaigu; ea maiatzean bukatzen dugun".

Kontsumoa jaisteko

Energia aurrezteko helburua kontatu du Valen Moñuxek, Hiri-gintza teknikariak: "Erdia baino gehiago aurrezteko lortuko da. Izan ere, argiteria arruntaren orde, led sistema daraman argi-



Jon eta Juan argiteria aldatzen liburutegian. | MAIDER ARREGI

teria jartzen dihardugu". Hiru motatako argiteria jarriko dute: hodi formako fluoreszente arruntak eta luzeak, karratuak diren plazioak eta *downlight* izeneko argi borobilak eta sabaian integratuta daudenak. Emergentzia-

ko argiak ere aldatzeko aprobe-txatu dutela azaldu du Moñuxek. 28.000 euroko aurrekontua dauka. "Jaur-laritzaren eta EVE elkartearen laguntza espero dugu; aurrekontu osoa beteko dugu modu horretan", azaldu du.

Zabalok eta Agirrezabal, puntuko txapeldunorde

MAIDER ARREGI | ANTZUOLA

Martitzen goizean jokatu zuten Juanita Zabalok eta Pilar Agirrezabalek Gipuzkoako Puntu Txapelketako finala, Donostian. Hain zuzen ere, parez pare Usurbilgo bi emakume izan zituzten, eta haiek erraz nagusitu zirela kontatu dute. "8-4 galdu genuen; ez ginen oso ondo ibili, kartak ere ez zitzaizkigun etortzen-eta", azaldu du Juanita Zabalok antzuolarrak.

Finala oso polita izan zela azaldu du Zabalok berak: "Lizargaratek eta Lizasok maila ona erakutsi dute; zortea ere bada, karta oso onak etorri zaizkie-eta".

Bada, esperientzia ezin hobea izan dela gaineratu du hark, eta ez zutela finalera iristerik espero.

Bertako produktuen alde lan egiteko eskaria

Eskola Agenda 21 barruan, proposamenak egin dizkiete ikasleek agintariei

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Txurro saltzailea egoten den tokian udan zukuak eta frutak saltzen dituen postua jartzea, Gabonetan produktu ekologikoen otarreak banatzea herriko denden bitartez, herriko baserriarren produktuen aldeko kanpainak egitea eta azoka astean gehiagotan egitea. Horiexek izan dira herriko ikasleek udal agintariei egindako proposamenetako batzuk.

Elikadura jasagarria landu dute herriko ikasleek urtean

zehar Eskola Agenda 21 programaren barruan: irteerak egin dituzte, baratzeak landu eta azoka eta supermerkatuetara joan, adibidez. Martitzenean, udal agintariendako proposamen zehatzekin joan dira udaletxeko osoko bilkuren aretora.

Bertako kontsumitu

Mikel Biain alkatea eta Landa Garapeneko udal teknikari Aitor Gerenabarrena egon ziren proposamenei erantzuten eta biek

onartu zuten ideia ona zela udan zukuak saltzen dituen postua jartzea. "Horretarako eskaerarik, baina, ez dugu jaso. Txurroak edo pizzak saltzekoak bai, baina zukuak saltzeko ez", esan zien gaztetxoek alkateak.

Herriko baserriarrek ekoizten dituzten produktuen alde egiteko ere eskatu zuten gaztetxoek, publizitate kanpainak eginez, diru laguntzak emanaz edo herriko jatetxe, eskola edo jaietan bertako produktuekin egindako jator-



Alkatea ikasleen proposamenei erantzuten martitzenean. | O.E.

duak prestatuz. Proposamen horiei erantzunez, moxalaren haragiaren aldeko kontsumoa sustatzeko egindako kanpaina eta Herri Eguneko bazkaria bertako produktuekin eginda egoten dela adierazi zien alkateak, adibide moduan. Dena dela, herriko produktuak kontsumitzea ere baserriarrei laguntzea dela gogorarazi zuten.

Diru laguntzei dagokienez, Gerenabarrenak azaldu die Oñatiko Udalak hiru bide dituela zabalik baserriar eta abeltzainei laguntzeko, eta "nahiko aitzindaria" dela. "Batetik, abereei emateko edo lurra ureztatzeko erabiltzen duten ura ordaintzeko laguntzak ematen ditu; bestetik, baserriar obra egiteagatik ordaindu behar duten tasak hobiarriak ditu; eta azkenik, beste diru laguntza bat du azpiegitura handitzea gura izanez gero".

Herritarrendako baratzeak

Herritarrendako baratzeak jartzeko proposamenari, martxan dagoen proiektua dela erantzun die alkateak: "Teknikariak herriko hamar gune aztertu ditu, ikusteko horretarako aproposak diren edo ez. Lursailaren orientazioa, tamaina eta egoera, adibidez, kontuan izanda, hiruzpalau aukeratu ditugu. Lursailak lotzean, oharrak jarriko ditugu atarrietan, proiektuaren berri emanaz eta interesa izan dezaketenen herritarrek izena non eta noiz eman behar duten azalduz".




JON ZUBIZARRETA - HAIZEA URRESTARAZU
ELKAR HEZI

"Baratzea jarri dugu ikastetxean; ikasleok zaindu dugu. Bertako produktuak jatea eta eskola eta jatetxeetan menu osasuntsuak egotea proposatu dugu".



IRATI BARRENA - JOSEBA ANDUAGA
TXANTXIKU IKASTOLA

"Erosketak, gehienetan, gurasoek egiten dituzte, baina badute azokara joateko ohitura. Badakigu garrantzitsua dela bertakoa eta sasoikoa kontsumitzea".



BEÑAT BARRENA - JULEN ALBERDI
URGAIN

"Konposta egiteko gune bat jarri dugu guk ikastetxean eta bideo bat ere egin dugu, nola eta zertarako erabiltzen dugun azaltzeko".



Lagunarteko bi kide Martinezi oparia ematen, Anoetan. | TXANTXIKU TXURIURDINAK

Oñatiko txakolina eta gazta Iñigo Martinez jokalariairendako

O.E. | OÑATI

Oñatiko produktuekin osatutako oparia egin dio Txantxiku Txuriurdinak lagunarteko Realeko Iñigo Martinez jokalaria bizkaitarrari. Herrian egindako txakolina eta gazta eman dizkiote, hain zuzen ere.

Lagunarteko bi kide

Txantxiku Txuriurdinak lagunarteko konpromisoa hartu zuen Iñigo Martinezek gola sartzen duen aldiro Oñatiko produktuen sorta bat emateko. Eta horixe egin dute Realeko jokalaria ondarrutarrak sartu duen azken golaren ondoren.

Hala, Murgialdaiko txakolina, Azkarretako gazta eta


Codorniu xanpain botilarekin osatutako produktu sorta eman diote, eskura, lagunarteko bi kidek. Martxoaren 10ean Rayo Vallecanoren aurka sartu zuen golagatik eman diote orain opari hori, egutegi kontuak direla eta ezin izan diotelako lehena eman.

Lagunarteko kideen artean zozketa eginda, Mikel Abaunzi tokatu zitzaion produktuak jokalaria ematea. Harekin batera joan zen, Anoetara, Iñigo Aranburu, lagunarteko zuzendaritzako kidea.

Bestalde, Txantxiku Txuriurdinak lagunarteko kideek bazkaria egingo dute datorren zapatuan.

Bataioa berrizatzeko elizkizunean

Jaioberriak zirela gurasoek emandako bataioa berritu dute herriko hamazortzi gaztetxok. Lehen Hezkuntzako seigarren mailako ikasleak dira, eta sei urtez katekesian ibili ostean berritu dute kristau izateko nahia. Joan den domekan, maiatzaren 18an, egin zuten elizkizuna, Oñatiko San Migel parrokiaren.



K.E.

Aurten 40 urte beteko dituztenek bazkaria egingo dute ekainean

Aurten 40 urte beteko dituzten oñatiarrek kintada egingo dute datorren ekainaren 7an. Soraluze ostatuan egingo dute bazkaria. Joan gura duenak, baina, ekainaren 1a aurretik eman behar du izena. Beharrezkoa da. Laboral Kutxan zabaldu duten kontu honetan egin beharko da, 10 euro sartuta: 30350005350051050373.

Giza katerako metroak saltzen egongo dira bihar, zapatua, Foruen plazan

Oñatiko Gure Esku Dago taldeko lagunak ekainaren 8an Durango eta Iruñea lotuko dituen giza katerako metroak saltzen egongo dira bihar. Foruen plazan egongo dira: goizean, 11:30etik 13:30era eta arratsaldean, 19:00etatik 21:00etara. Metroak ez ezik, Gure Esku Dago ekimenaren materiala ere izango dute salgai; kamisetak eta poltsak, adibidez.

The Northagirres taldeak zuzenean joko du Pakon domekan

The Northagirres talde urretxuarrak joko du domekan Pako tabernan, 19:30ean. Lau kidek osatzen dute taldea eta egiten dituen kantetako batzuk lasaiak dira, folk-rock amerikarretik eta Neil Young akustikotik gertu daudenak, adibidez. Beste batzuk, berriz, The Rolling Stones-en rockan-roletik gertuago daude.

Hitzaldi zikloaren berri eman du Oñatiko EAJk

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Oñatiko EAJk hitzaldi ziklo bat antolatu du, "Oñatiko etorkizunerako proiektua osatzeko egoera ekonomiko larri honen testuinguruan", Lourdes Idoiak azaldu duen moduan. Eta jarraitu du: "Pertsonak dira gure proiektuaren ardatz, ekonomiaren susperetzea eta oñatiarren bizitza kalitatearen oinarrituko den pertsonendakok proiektua da". Hala, ekitaldi horien helburua "Oñatiko egoera sozio-ekonomiko eta kulturala eragile eta alderdikide desberdinekin aztertu eta partekatzea da". Egibar, Erkoreka, Anasagasti eta Redondo etorriko dira, besteak beste, Oñatira datozen asteetan.



Lourdes Idoaga. | EAJ

Jolasak, pintxoak eta musika bihar Urgain egunean

O.E. | OÑATI

Errekaldeko Guraso Elkarteak antolatuta, Urgain eguna egingo dute bihar, zapatua. 17:00etatik 20:00etara, herri-kirolekin lotutako jolasparkea egingo da Foruen plazan. Gainera, Errekaldeko Guraso Elkarteak kideek makillaje, kareta eta globoflexia tailerrak egingo dituzte eta Zuazolakoe, berriz, pintxoak.

Eguna borobiltzeko, institutu kanpoan kontzertua egingo dute Urgaingo ikasle ohiek; Txuletons taldea eta DJak ere egingo dira.

Txantxiki, Potx eta Motx, Acesma eta Ilunpetan, Eteon jardunean

Eltzia egitasmoak herriko talde eta eragileak Eteon batu gura ditu

I.G. / O.E. | OÑATI

Eltzia egitasmoa gero eta definituagoa dago eta Eteon eraikina ari da itxura berria hartzen. Herriko eragile eta taldeak bertan batzea da egitasmoaren helburua, eta horietako hamahiruk, adibidez, eraikin horretan dute egoitza dagoeneko. Gurutze Gorria, Bertso Eskola eta Ortuzabala dira adibide bazuk. Erabiltzaileen Koordinazio Taldeko lau kideekin egon da GOIENA.

Elkarren ondoan

Txantxiki elkarteak, esaterako, umeak eta gurasoak elkarrekin egoteko tokia prestatu du. "Jolasarako erabiltzen dugu eta gurasoak elkar ezagutzeko. Baina proiektu ako ditugu buruan: guraso eskola martxan jarri eta ikastaroak eta tailerrak egin, adibidez", dio Haritza Ruedak. "Lurra jarri dugu, umeak erosoago egoteko, eta jostailuak etxetik ekarri ditugu", gehitu du Oihana Ruizek.

Potx eta Motx pailazoen ere Eteoko gela batean prestatzen dituzte euren ikuskizunak. "Hemen, gainera, musikarekin entseatzen dugu, eta horretan asko irabazi dugu. Eltzia garatu



Ruiz, Muñoz, Rodrigues, Zubia eta Rueda, Eteon. | IRATI GOITIA

ahala eraikinak ere beste itxura bat hartuko du eta nahiz eta jakin gero agian beste gela bat izango dugula, gustura gaude eta egitasmoaren barruan jarraitu gura dugu", dio Josu Zubiak.

Acesma elkarteak ere badu bere tokia Eteon. "Kajaz gainera dugu momentu honetan. Izan ere, hementxe batzen dugu arropa eta beharra dutenei bidaltzeko prestatu, kaxetan sartuz", azaldu du elkarteak Ibis Rodriguesek. Eta gaineratu du: "Oso pozik gaude hemen gaudelako".

Ilunpetan argazkilaritza taldeak estudio txiki bat du lehen pisuko pasilloko lehen gelan. Elkarteko kideek eurek ikasten jarraitzeko moduan atondu dute. Itziar Bastarririk hortxe eman du azken ikastaroa. "Gorka Salamerok Ruper Ordorikari egindako argazkia ere hementxe dugu, zabaldu barik. Denok elkartu eta lokala inauguratu gura dugu, eta orduan zabalduko dugu, agian", dio elkarteak Ekain Muñozek. Gaztelekuko gela iluna hara eramango dute.

EKTko kideen ahotik

TXANTXIKI

Hamabost bat familia elkartu ziren umeak eta gurasoak elkartzeko lokal bat eskatzeko. Egun, profil askotariko 30ek baino gehiagok erabiltzen dute Eteon dutena.

ACESMA

Hasieratik dago Eltzia egitasmoaren barruan. Kultura ekitaldiak antolatzeko eta erabilitako arropa batu eta beharra dutenei bidaltzeko erabiltzen dute.

POTX ETA MOTX

Joan den urtean estreinatu zuten Eteoko lokala. Hortxe egiten dituzte entseguak. Eteoko talde erabiltzaileen arduradunen taldean ere badaude.

ILUNPETAN

Abendua ezker dago argazkilaritza taldea Eteon. Herriko beste elkarte batzuen ondoan egonda, bestela zailak izango ziren harremanak sortzea erraztu duela diote, eta, sinergiak batuz, elkarrekin proiektuak ere egin dituztela.

Araba Euskaraz eta Ibilaldia, ikastolan

O.E. | OÑATI

Txantxiki ikastolak hainbat ekimen antolatu ditu Ikastolen Federazioak Araban eta Bizkaian egingo dituen festekin bat egiteko. Batetik, autobus antolatu dituen egunaren leian Gernikan egingo den Ibilaldia jaira joateko.

Bestalde, bertso kata antolatu du Araba Euskaraz-en alde. Oñatiko bertsolarien saioa eta ardo dastatzea antolatu dituzte egubakoitzerako Pago Uso elkarteak. Joan gura duenak bost euro jarri beharko ditu astelehena aurretik.



ANE ELORDUI

Toti Martinez de Lezea, Elkar Heziko ikasleekin

Toti Martinez de Lezearen bisita izan dute aste honetan Elkar Hezi ikastetxeko gazteek. Hain zuzen, Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako ikasleekin egin du topaketa idazleak. Nur liburuak izan dituzte mintzagai, eta solasaldi polita izan dute. Liburu sinatzeko ere eskatu zituen ikasle batek baino gehiagok.



Lenceria
eta
Korseteria

Bidebarrieta kalea 19
Tel.: 943 78 34 44
OÑATI



**AHOLKULARI
PERTSONALA**

Maiatzaren 27an
aditu batek zure
zalantza guztiak
argituko dizkizu.
ZATOZ GURERA
eta oparitxo
bat jasoko duzu!





ALAIK ERRETIRATU ELKARTEA

Txapeldunak tutean eta musean

Alaiak erretiratu elkarteak antolatuta, briska, tute eta mus txapelketak jokatu ziren hilaren 13an eta 14an. Briska txapelketan, Kontxita eta Juli Garitaonandia izan ziren irabazleak; tutean, Ana Mari eta Elena Arrizabalaga; eta musean, Bittor Kortabarria eta Antonio Elejalde. Hiru txapelketetan lehen saria irabazi zutenek gazta zati bana eraman zuten etxera. Antolatzaileek eskerrak eman dizkiete parte-hartzaile guztiei.

Europako Mendietara irteera antolatu du Orixol elkarteak

Orixolek irteera antolatu du Europako Mendietara (Picos de Europa) ekainaren 14ko eta 15eko astebururako. Izena emateko azken eguna ekainaren 8a da; honako kontu korrante zenbakian egin behar da ordainketa: 3035 0161 28 1611005178. Orixoleko bazkideek 70 euro ordaindu behar dute eta gainerakoek, 75 euro. Ekainaren 14an 06:30ean irten-go dira, autobus geltokitik.

Udalak 'fracking'-aren aurka sinatzera deitu ditu herritarrak

Hidrokarburoak ustiatzeko teknika bat da *fracking*-a, eta, Udalaren arabera, teknika hori erabili den lekuetan "kalte latzak" eragin ditu. Proiektua ikerketa fasean dagoen arren, aurkakoez EAEn *fracking*-a erabil ez dadin lege proposamen bat egin gura dute, eta, horretarako 30.000 sinadura lortu behar dira; udaletxean zein Udal Liburutegian sina daiteke.

Gure Esku Dagoren festa gaur, giza katerako "beroketa ariketa"

Jatekoa, edatekoa eta kontzertuak egongo dira plazan, 19:00etan hasita

JOKIN BEREZIARTUA | ARAMAIO
Gure Esku Dago taldeak festa antolatu du gaurko Bizente Gokoetxea plazan, 19:00etan hasita. Jaialdi "xumea" antolatu dute eta helburua izango da ekainaren 8an Durango eta Iruñea lotuko dituen giza kateari begira "beroketa ariketa" egitea.

Hasteko, saiheskiak jateko eta ardoa edateko aukera egongo da, eta, mokadutxo egiteaz batera, bertso eskolako kideek bat-

bateko koplak eskainiko dituzte. Bertsolariez gainera, zuzeneko musika ere egongo da plazan bertan: Manex Arriolabengoak eta Maria Izagak joko dute, eta baita Sutrai musika taldeko neska gaztetxoek ere.

Autobuserako txartelak gaur

Bestalde, ekainaren 8an Irurtzun aldera joan behar dute aramaioarrak. Gaur bertan erosi ahalko dira autobuserako txartelak, eta

izena emateko azken eguna maiatzaren 31 izango da. Era berean, egun horretan jarriko dute azken aldiz metroak saltzeko mahaia okindegi aurrean, 19:00etan.

Gure Esku Dago taldeak giza katerako 100 metro saltzea jarri zuten helburu, baina kopuru hori gainditu dute dagoeneko: "140 metro saldu ditugu eta kopurua igotzen ari da, ia etengabe. Hiru autobus bete ditugu dagoeneko", adierazi dute.

NIRE USTEZ

XABIER HERRARTE



Ekonomatue

Jakingo dozuen moduen jua daneko urtebete honetan herrixek bere esku dauko ekonomato bat. Ekonomatuen modelue aspaldi asmautekue da eta bertan baz-

kide edo lagun multzo batek produktuek beste dendetan baiño merkiau eskuraketako aukerie izeten dau. Gure kasue, oster, ez da berdiñe; izen be, guk daukun bentajie ez da produktuek merkiau eskureketiena, gaixek zuzenien, bittarteko barik, base-rrittarren eskutik erostailien eskure jasotiena baiño.

Baiñe hori beroi baiño interesgarrixaue da bertako produktuek konsumiduten dittuaule, zeiniek eta zela ekoiztute dazen jakinde. Betibe ekologikue lehe-

netsitte eta jasangarrittasunen printzipiuek beteta.

Mobimentu txiki hau barrez bizi eta indertsu dau eta horren adibide garbixe Aramaixon jua da astien egin zan Lorabarrri deittuteko aste kulturala. Bertan, hitzaldi, ikastaro, dastaketa eta zapatu goizeko bertako produktuen ferixie egin zan, bestiek beste. Honek herri txiki baten dauken inportantzia kontuen eukitte, ekimen honen bueltan dabitzenai zorionak eta animuek aurrera be holaxe jarraitu daixien.

Zerbait aldatzen ari da Uribarrin

Aukera berriak!

Izan haien berri gure webgunean

www.sukia.com

ONGI ETORRI

Zatoz eta hitz egingo dugu

600 902 224

Bista ederrak

Atikoak 198.000 €-tik hasita



UTE URIBARRI
sukia GEDI

ELGETA

Hondakinen kudeaketaren kontsultan 954 elgetar daude botoa ematera deituak

Botoa aurrez ere eman daiteke; zabalik da horretarako eskaera egiteko epea


LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Ekainaren 22an egingo dute Elgetan hondakinen kudeaketaren gaineko herri kontsulta. Hilabete eskas gelditzen den honetan, botoa emateko zabaldu dituen aukeren berri eman du Udalak. Jakinarazi dute errolda ikusgai dagoela udaletxean, eta 954 lagun daudela kontsultan parte hartze- ra deituak.

Kontsultaren bitartez herri- tarrek ze bilketa sistema lehenesten duten jakin gura du Udalak, eta galdera zehatza honakoa da: "Udaletxean adostu den hondakinen bilketa sistemarekin ados zaude?".

Parte hartzeko hiru bide

Herritarrek hiru bide dituzte kontsultan parte hartzeko: lehenengo, kontsulta egunean —ekainak 22— 09:00etatik 20:00etara udaletxean egongo den mahai- an botoa emanda.



Errolda ikusgai udaletxean. | L.Z.

Bigarrena, aurreko astean —ekainaren 16tik 20ra— bulego orduetan udaletxera joan eta botoa emanda.

Eta hirugarren bidea da botoa aurrez emateko aukera eskatzea. Interesatuak eskaera egin behar dute udaletxean, eta dagoeneko

zabalik dago epea. Maiatzaren 19an zabaldu zuten eta ekainaren 11 izango da azken eguna.

Udaleko talde politikoei kontsultaren emaitza errespetatzeko konpromisoa hartu dute, parte- hartzea, gutxienez, erroldaren herena bada.

Oier Amorrortu | Iñigo Cabacasen lehengusua

"Lanean jarraituko dugu; ez dugu nahi epaileak kasua artxibatzea"

L.Z. | ELGETA

Irma Orozko abokatuarekin batera izan zen Amorrortu gaztetxean hitzaldia egiten.

Zein puntutan dago ikerketa?

Egozte herriak izan dira, artean beste ertzain batena —bost dira guztira—, eta lekukotasun berriak ere aintzat hartu ditu epaileak. Deklarazioak hartzen jarraitzen du epaileak.

Oso luze doa.

Bagenekien horrela izango zela, ehunka lekuko daudelako, baina bi urte pasa eta deklarazioak hartzen jarraitzea... larregitxo



Oier Amorrortu. | L.Z.

iruditzen zaigu, bai. Eskatzen dugu epaileak kasu honi ordu gehiago eskaintzea. Baita ere gure eskakizunak aintzat hartze- ko. Esaterako, Herrikoan sartze- ko agindua eman zuen ertzaina egozteko edo ikertzeko zer gertatu zen bezperan dispositiboa prestatzeko egindako bileran.

Herriz herriko aurkezpenetan zer azaltzen duzue?

Gau hartan gertatutakoa jasotzen duen ikus-entzunezkoa erakusten dugu eta prozedura judizialaren berri ematen dugu. Jendeak galdetzen du prozedurari buruz, baita ere epailearen jarrera zein den. Lanean jarraituko dugu frogari berriak lortzeko. Ez dakigu hau guztia noiz eta nola bukatuko den, baina epailetarako bidea zabaldu nahi dugu. Ez dugu nahi epaileak kasua artxibatzea.

Rock doinuak eta puntako bertso saioa aste bukaeran herrian

L.Z. | ELGETA

Rock kontzertua gaur, barikua, eta puntako bertso saioa bihar, zapatua. Horiak astebururako proposamenak oraingoan.

Hiru talde izango dira gaur gaztetxean, eta 22:30ean hasiko da kontzertua. Argies, Penadas por la Ley eta Toni Metralla y los Antibalas izango dira taula gainean, eta sarrera bost euro da. Argies talde argentinarra da, eta, biran datozela baliatuta, Elgetara gonbidatu ditu gaztetxeak. Bidelagun izango dituzte Elgetako kontzertuan Penadas por la Ley taldea —Bilbon finkatutako talde argentinarra— eta Toni Metralla y los

Antibalas —Parabellum eta Macarrada taldeetako kide ohiek osatzen duten Bilboko talde beteranoa.

Bertso saioa, zapatuan

Zapatuan, berriz, puntako bertsolariak izango dira Espaloia kafe antzokian, 22:30ean. Maialen Lujanbiok, Igor Elortzak, Unai Iturriagak eta Sebastian Lizasok egingo dute bertso- tan. Gaiak jartzen Manex Agirre ariko da. Sarrerak salgai daude aretoan bertan zein *on line*. Prezioa da: aurrez zortzi euro, bertan hamar euro eta Goibeko euskara elkarte-ko bazkideen- dako sei euro. (Ikus 32. orria)

923 herritar daude domekan botoa ematera deituak

Europako Parlamentuko orde- z- kariak aukeratzeko hautes- kundeak egingo dira domekan, eta hauteskunde- mahai baka- rra egongo da Elgetan. Uda- letxean egongo da zabalik, 09:00etatik 20:00etara. Orain dela bost urteko hauteskun- deetan abstentzioa %48,6koa izan zen herrian.

Ekainaren 8an omenaldia Martin Elortza gotzainari

1966an hil zen Martin Elortza, Peru aldean urte asko eman ostean. Gaur egun zabalik da haren beatifikaziorako pro- zesua, eta Pasiotarren ordenak omenaldia egingo dio Elgetan. Meza eta herri bazkaria egin- go dituzte, besteak beste. Txartelak laster ipiniko dituz- te salgai.

OHARRAK

IPUINEN ORDUA, 17:20AN

Udal Liburutegian, gaur, barikua. 3-8 urte arteko umeendako ipuin kontaketa egingo dute.

MENDI IRTEERA, ZAPATUAN

Kantsatzekek antolatuta, irtee- ra Peña del Castillora, Elgetako plazatik 08:00etan abiatuta.

BISITA LUBAKIETARA

Domekan, 10:00etan, Interpre- tazio Zentrotik abiatuta. Izena

emateko: 943 79 64 63 edo turismo@debagoiena.net.

NEKAZARIEN KOOPERATIBA

Urteko batzar orokorra deitu dute oraingo domekarako, hilak 25, 12:45ean, Ozkarbi elkar- tean.

GURASOENDAKO HITZALDIA

Bideberrik antolatuta, hilaren 27an, 17:00etan, eskolan. Gaia: adimen emozionala.

LEINTZ GATZAGA

Eskola Txikien proiektua berbagai gaur, egubakoitza, Labidean

UBANE MADERA | LEINTZ GATZAGA

Udalerriko guraso talde bat Gatza- gan Eskola Txikia sortu guran dabil. Bertako Udala ere bat dator bide horren alde egitearekin. "Gure herriak, txikia izanik ere, bere nortasuna dauka. Txikita- sunean handi da Leintz Gatzaga. Eskola da herria bizirik mantent- zen duena. Eskola da herriari arnasa ematen diona. Eta txikia izanagatik ere, herri baten arda- tza izan liteke. Horregatik dira garrantzitsuak Eskola Txikiak. Herria ezin da eskolarik gabe ulertu: umeek ematen diote bizia, eta umeek eskola behar dute. Eskola Txikiak herri txiki- etako bihotza dira"; horixe da proiektu

tu horren bultzatzaileen ikus- puntua.

Angiozarko esperientzia

Bada, gaurko, egubakoitza, proiektu hori herritarrekin partekatze- ko herri ekimena anto- latu dute, Labidean. 18:30ean hasita, *Eskola bizia herri bizia* dokumentala emango dute lehenengo. Eta horren ostean mahai- ingurua egingo dute, Gipuzkoako Eskola Txikien lehendakari Nagore Iñurategi angiozartarra gonbidatu dutela. Hain justu ere, besteak beste, Angiozarko Esko- la Txikien esperientziaren berri eman gura dute gaurko herri ekimenaren bitartez.

LEINTZ GATZAGA

Herriko udalekuetarako izena emateko epea zabalik dago

U.M. | LEINTZ GATZAGA

Ekainaren 30etik uztailaren 18ra bitartean izango dira aurt- en udalekuak Gatzagan. Iazko filosofiari eutsita, ekintza mor- doxka eta gehienak herrian egitekoak antolatu gura dituzte, herriko giroa indartzeko helburuarekin, besteak beste. Edozelan ere, urteroko irteera, gaua kanpoan pasatzeko anto- latuko dutela ere iragarri dute. Uztailaren 19tik 20ra bitartean egin gura dute hori. Lekua zehaztu bezain laster jakinara- ziko dute.

Udalekuon ordutegia finka- tuta dute: 11:00etatik 13:00ak arte, eta 17:00etatik 19:00ak arte.

Baita prezioak ere: ume baten- gatik 30 euro ordaindu behar dira eta birengatik, 50 euro.

Eta izen-ematea zabalik dagoela iragarri du Gurel elkar- teak, udalekuon antolatzaileak: ekainaren 13a aurretik eman behar da izena. Labidean egin behar da hori, edo ludotekan.

Bi begirale

Udalekuotan, gura duten neska- mutikoei parte har dezakete, adin mugarik gabe. Bi begiralek jardungo dute haiek zaindu eta dinamizatzen; urtean ludotekan diharduten begirale biek, hain zuzen ere: Beñat Agirreurretak eta Garazi Orobengoak.

LEINTZ GATZAGA

Gure Esku Dago-ren katean jarduteko deia

U.M. | LEINTZ GATZAGA

Gure Esku Dago dinamika- k ekainaren 8rako deitu duen giza katean 23. kilometroa beteko dute gatzagarrek, eta herritarrek metroak erosten "animatzen" dabiltzala jakin- arazi dute. Edozelan ere, oraindik metroak erosteko aukera badagoela gogorarazi dute, egun horren bueltako kamisetak ere salgai daudela eta gaiari buruzko informazioa eskuragai. Interesa duenak Labideara jo dezake.



Mikel Arexolaleiba. | IMANOL SORIANO




Gorka Kintana. | IMANOL SORIANO



Martxel Balantzategi. | JOSETXO ARANTZABAL



Imanol Zeziaga. | IMANOL SORIANO



Iker Barbero. | JULIO CALLEJA

SASKIBALOIA

Ointxe da EBArako momentua

- ▶ Hamazazpi urte pasa dira Arrasateko taldea –Urbina Maltzaga– EBA mailatik jaitsi zenetik
- ▶ Asteburuan Iturripen jokatu duten Lauko Finala irabazita, MU kategoria horretara itzuliko litzateke

XABIER URZELAI | ARRASATE

Iritsi da ordua. Hamazazpi urteren ostean Arrasatek EBA mailan saskibaloia taldea izan dezake. Eta gainera, helburu hori lortzeko MUK etxean jokatu du oraingo asteburuan fase erabakigarria, Lauko Finala: "Nire kirol bizitzako astebururik garrantzitsua da", dio garbi Mikel Arexolaleibak. Eta taldeko beste jokalariek esanguratsu batek, hainbat igoera fase jokatu dituen

Gorka Kintana *beteranoak*, garbi du mailaz igotzeko momentu aparta dela: "Urteak daramatzagu helburu horren bila, eta jokalariek gazte osatutako talde honekin lortu dugu hor egotea".

Ez da lehenengo aldia

Urte hauetan guztietan zuri-moreek behin baino gehiagotan izan dute helburu hori gertu, oso gertu. 2005/06 denboraldian Zaragozako Unibertsitatearen kontrako

finalean galdu zuten aukera, eta hurrengo denboraldian ere Zaragozako Utebok amaitu zuen etxe-koen ametsarekin. Hala, 2007/08 denboraldian, Iñaki Merinoren aginduetara taldeak sekulako denboraldia egin zuen eta Lehen Nazional Mailan txapeldun geratu ziren Gamarra, Alartzia, Mallabi, Kintana, biaindarrak eta konpainia.

Orduan, baina, EBArako igotzeko klubak diru asko jarri behar zuen mahai gainean, eta, atzetik zetozen jokalariek gazteen aldeko apustua eginda, ez igotzea erabaki zuten. Ondorengo bi denboraldiak gogorrak izan ziren; gazteek ardura handiak hartu behar izan zituzten, eta larri ibili ziren mailari eusteko: "Duela hiruzpalau urte esperientzia falta zitzaigun, eta erraz galtzen genituen partiduak", dio Barberok, atzera begiratu. Baina gazte kuadrilla hura hazi egin da, eta kategoria handi geratzen ondo menderatzera pasa dira.

"Finalerdia, gogorrena"

Etxeko taldeaz batera Lauko Finalerako sailkatu dira Azkoitia Azpeitia ISB, Deusto Loiola Unibertsitatea eta Tabirako Baque. Hala, ligan okerren sailkatu den Tabirakoren kontra jokatu du MUK bihar finalerdia (17:00), ustez, talde *errazenaren* kontra. Baina argi esaldi horrekin: "Guztien artean kontrario txarrena da biharkoa, duda barik", dio Kintanak, eta gainontzeko jokalariek bat egiten dute horrekin: "Finala baino zailagoa izango da finalerdia gaintzea; oso talde irregularra da Durangokoa, eta ligan euren kontrako biak irabazi bagenituen ere, kontrario gogorra izango da".

LAUKO FINALA**ZAPATUA 24**

17:00 MU- Tabirako Baque.

19:00 Azkoitia Azp.- Deusto.

DOMEKA 25

12:00 Finala.

Partidu guztiak Iturripen jokatu dira.**ESANAK**

"Zalantza barik, nire kirol bizitzako astebururik garrantzitsua da hau"

MIKEL AREXOLALEIBA | JOKALARIA

"Aspaldi ez da gertatu, baina jendeak Iturripen beteko duen esperantza daukat"

GORKA KINTANA | JOKALARIA

"Epaileak baloia airera botatzen duen unean gozatzen hasteko ordua izango da"

MARTXEL BALANTZATEGI | JOKALARIA

"Ligan erakutsi dugu lau horien artean onenak izan gaitzkeela; etxean jokatu dugu, gainera"

IMANOL ZEZIAGA | JOKALARIA

"Azken lau denboralditan egindako lanaren emaitza da; gogoz handiz gaude"

IKER BARBERO | JOKALARIA



ULMA Forja, S. Coop.

Oñati

OHIKO BATZAR NAGUSIA DEIALDIA

Eguna: 2014ko maiatzaren 30a.
Ordua: 09:00etan lehen deialdia eta 09:30ean bigarrena.
Tokia: ULMA Taldeko auditorioa – Oñati (Gipuzkoa)

GAI ZERRENTA

1. Aurreko aktaren onarpenari buruzko informazioa eta bazkideak izendatzea Batzar honetako akta onartzeko
2. 2013ko ekitaldiko memoria irakurtzea eta onartzea eta 2014ko gestio plana berrestea
3. ULMA Taldeari buruzko txostena
4. 2013ko ekitaldiko urteko kontuak aztertzea eta, badagokio, onartzea
5. 2013ko ekitaldiko emaitzak banatzea
6. Heziketa eta Kooperatiba Sustapenerako eta interes publikoko beste helburu batzuetarako kontribuzioa aplikatzea (IPDK)
7. Supraegiturako entitatei buruzko gaiak
8. Estatutu Sozialen testuategina onartzea
9. Ekonomia araubideko estatutu-xedapenak
10. Menpeko Ekarpen Finantzarioen jaulkipena
11. Kontseilu Errektoreko lehendakaria izendatzea
12. Kontseilu Errektoreko kideak berritzea
13. Zaintza Batzordeko kideak berritzea
14. Kontseilu Sozialeko kideak berritzea
15. Ahalmenak eskuordetzea
16. Galde-eskeak

OHARRAK: Bazkideei gogorarazten zaie sozietatearen egoitzan eskuragarri ditzutela urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuen kanpo ikuskaritzak egindako gestio txostena, Batzar Nagusiaren deialdiaren epean zehar aztertu ahal izan dituzten. Bazkide guztiei jakinarazten zaie eskubidea dutela, ULMA Forja, S. Coop.eko helbide sozialean, proposatutako Estatutu Sozialen testuategina aztertzeko, eta doan emateko edo bidaltzeko eska dezaketela.

KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA
 Oñati, 2014ko maiatzaren 16a

MOTORRA

Bergarari Oñatik hartuko dio erreleboa, cross country proban

XABIER URZELAI | ARRASATE

Urte asko pasatu dira Oñatin azkeneko motor lasterketa egin zutenetik –moto-kros lasterketak izan ziren 80ko hamarkadan–, eta bihar, zapatua, cross country modalitatean motor hotsa entzungo da ostera ere, antolatzaileek Urrutxu eta Santipillau inguruetan jarri duten zirkuituan –lehen auto-krosa egiten zen inguruetan.

Antolatzaileek 80 pilotu inguru espero dituzte –Bergaran duela hamabost egun batu zen pilotu kopuru antzerakoa–, eta, hain zuzen ere, hantxe izango dira Bergarako klubeko ordezkariak, eta, noski, lasterketa etxean jokatu, hainbat oñatiar ere animatu dira. Hala,

Gorka Egaña, Iñaki Mendizabal eta Michael Jimenez junior mailan eta Gorka Guridi seniorretan ibiliko dira lehian. Zoritxarrez, Xabier Arnaizek ez du parte hartuko, lesio bat dela eta azken orduan atzera egin behar izan du-eta.

Erresistentzia proba

Bihar 15:00etan hasiko dira motorrak lehian. Sei kategoriatan banatuko dute proba, batera irtengo dira denak, eta arratsaldeko lehen orduan egiazta-zeak egin ondoren hasiko da lehia. Bi orduko erresistentzia proba izango da, eta denbora tarte horretan itzuli gehien ematen dituztenak igoko dira podiumaren gorenera.



Bergaran, duela 15 egun izandako proban, irteerarako gertu. | I.S.



Antzuolan jokatuak derbian lortu zuen Bergarak mailari eustea. | I.S.

FUTBOLA

Bergarak lasai jokatu ahal izango du ligako azkena

Hasieran uste baino puntu garrantzitsuagoa batu zuten mahoneroek Antzuolaren kontrako derbian

X.U. | ARRASATE

Bergarak dagoeneko eginak ditu etxeko lanak, eta, horrenbestez, Aitor Arrateren mutilek lasai asko jokatu ahal izango dute bihar Aurrera taldearen kontra (17:30, Agorrosin).

Joan den asteburuan gorabeherak izan ziren matematikoki azken jardunaldira arte taldeak zelan iristen ziren jakiteko, eta asteleheneko *Goiena*-n Bergarak puntu bat gehiago beharko zuela esan bagenuen ere, ez, matema-

tikoki arriskutik kanpo daude. Erabakitzeke dagoena da Hondarribia edo Vasconia, bietako zein jaitsiko den.

Hala, ligako azken jardunaldi honetan, etxeko taldeek ezer gutxi dute jokoan, Aretxabaletak agur esan dio-eta bigarren sailkatzeko aukerari. UDAkoek Zarautzen jokatu dute bihar, Aloña Mendik Beti Gazteren bisita izango du (domeka, 16:30), eta azkenik, Antzuolak Tolosan amaituko du liga txapelketa.

MENDI LASTERKETAK

Debagoieneko hamar atleta izango dira Zegama-Aizkorri proban

Domekan egingo dute mendi lasterketen artean proba esanguratsuen, Zegama-Aizkorri maratoia. Eta Debagoieneko hamar lagunek hartuko dute parte bertan; besteak beste, lasterketak irabazten ikusi ditugun Iban Letamendik eta Iñigo Altzolak.

FUTBOLA

Arizmendik Euskal Ligara igotzeko partidu erabakigarria du bihar

Mutrikuren kontra *final* erabakigarria dute Arizmendiko senior mailako emakumezkoek. Hala, klubeko ordezkariak zaleei dei egin diete, gainera, partidua etxean jokatu dutelako (zapatua, 15:30, Ibarren).

ESKUBALOIA

Bulegoetan lor dezake Izarraitz Aloña Mendik mailaz igotzea

Lauko Finalean laugarren sailkatu ostean talde oñatiarrak Euskadiko Txapelketara zuzenean igotzeko aukerak galdu zituen. Baina, datorren denboraldira begira aldaketak egon daitezke maila horretan; eta baliteke lauko finalean egondako denak igotzea.

LANBIDE HEZIKETA DEBAGOIENEAN

"etorkizuna zure esku"

ARETXABALETAN

ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola

Etxebarri auzoa, z/g - 22Pk.
20550 ARETXABALETA
© 943 79 79 00 / 943 79 79 43
ia@iaretxabaleta.com
www.iaretxabaleta.com



BERGARAN

IEFPS Miguel Altuna GLHBI Bergara

Ibargarai, 1
20570 BERGARA
© 943 76 24 91 / 943 76 38 40
imaltuna@saremail.com
www.imaltuna.com




OÑATIN

Ate irekiak:
Maiatzak 28, 18:00etan
(Larraña egoitzan)

IES RM Zuazola - Larraña BHI

San Lorentzo, z/g
20560 OÑATI
© 943 78 21 50
013015aa@hezkuntza.net
www.onati.net



AURREMATRIKULA: Maiatzaren 27tik Ekainaren 6ra. **MATRIKULA:** Uztailaren 9tik 16ra.



KIKO VENENO . BETAGARRI
 HERRITMO: KUKAI,
 OREKA TX, KALAKAN . DAMBA
 IÑAKI PLAZA . YEMAMAN
 JOSEBA IRAZOKI . MAKALA
 JAZZ FUNK BAND . JALISKO
 BAND . THE POTES . URKO
 MENAIA . KONTAKT DANTZA
 MERY MAY . FAMILY MBOLO

Arrasate Debagoiena
 Maiatzak 30/31 Ekainak 1



www.mundumirafesta.com

ANTOLATZAILEK:



BARESLEAK:



KULTURA

Bertsotan, Gipuzkoako txapelaren bila, domekan

- ▶ Bertsolari gazteen topaleku izango da Arrasate: finala goizean eta jolasak, berriz, arratsaldean
- ▶ Gipuzkoako txapela eskuratzeko lehian, zortzi gazte; horien artean, Maider Arregi oñatiarra



Maider Arregi oñatiarra Zumarragan egindako saioan eskuratu zuen finalerako txartela. | GIPUZKOAKO BERTSO ELKARTEA

A. ARANBURUZABALA | ARRASATE
Gipuzkoako Eskolarteko finala eta Gipuzkoako Bertso Eskolen Eguna egingo dute etzi, domeka, Arrasaten.

11:00etan hasiko da, Amaia antzokian, bat-bateko finala (sarre-ra doakoa da); ondoren, elkarrekin bazkaldu eta Arrasateko Txatxilipurdi elkarteak gidatutako jolasak egingo dituzte arratsaldean. Debagoienean bertsolari-ritza sustatzeko urteetan egindako lana eskertzeko asmoz ekarri dute aurten hona.

Zortzi bertsolari oholtzan

Bertso txapelketen ohiko egitura orokorra izango du domekakoak ere: hasteko, bertsolari bakoitzak bere agurra kantatuko du, lau oinak emanda zortziko txikian

bertso bana egin beharko dute gero, binaka zortziko txikian bina bertso ondoren eta segidan gaia emanda beste bi bertso, zortziko handian horiek; eta saio puntuagarria bukatzeko, bakarka, puntuari erantzun eta gaia emanda bertso bana egin beharko dute. Saioa borobiltzeko, bada, ohiko bukaerako agurra kantatuko dute. Lehiaketa bukatuta, bapateko eta idatzizko bertsoen sariak banatuko dituzte; Leintz Bertso Eskolako sortzaile taldekoa den Patxi Goikoleak jantziko dio bat-bateko irabazleari txapela.

Zortzi dira Amaia antzokiko oholtzan lehiatuko direnak: Amaia Urbietta (Zarautz), Aratz Igartzabal (Gibiria), Eneko Arristegi (Segura), Iñigo Ibañez (Azpeitia), Iraitz Mateo (Oiartzun), Jon

DATUA

100

BERTSO ESKOLA

Haur eta helduenak barne, horiek dira Gipuzkoan dauden bertso eskolak; udalen laguntzarekin etorkizun oparoa dutenak.

Gurrutxaga (Azpeitia), Maider Arregi (Oñati) eta Paul Iruretagoiena (Ataun). Horiek guztiek, aurten lehenengoz, bertso eskolako ikasleek prestatutako gaiak kantatuko dituzte. "Gai-jartzaile lanetan jarduteko aukera ere

eman nahi izan diegu. Inazio Usarralde eta Egoitz Aizpuruk lagunduta, ikasle talde batek prestatutako gaiak jarriko ditu domekan Maialen Lujanbiok. Asmoa da hurrengo txapelketetan ere bide horretatik jarraitzea", azaldu du Edurne Soraluzek, Gipuzkoako Bertso Eskolako koordinatzaileak.

Bertso-afari formatuan

Bost kanporaketa izan dira: Azkoitia, Lasarten, Zumarraga-Urretxun, Mutrikun eta Zarautzen. "Bertsotan modu goxoagoan egiteko helburuaz, mahaiaren bueltan izan dira kanporaketak. Batez beste 50 lagun inguru batu gara saioa, eta, giro bikainean, 34 bertsolariaren primerako saioekin gozatu dugu", dio Soraluzek.

Debagoieneko sei bertsolari izan dira horien artean: Ixak Sarasua, Ane Zuazubiskar, Marixe Ruiz de Austri, Maider Arregi, Urko Arregi eta Gontzal Belategi. "Ez da broma bailara batetik sei aurkeztea; asko esan nahi du horrek, bertan egiten den lan handiaren erakusle", gaineratu dute antolatzaile taldeak.

Ekainaren 21ean, Orion

Euskal Herriko bertso eskolen arteko Txapelketa Nagusia dute hurrengo hitzordua. Herrialdeko bina ordezkari joango dira; baita domekako irabazleak ere.

Egun osoko jaia antolatuko dute, bazkaria eta erromeria, besteak beste. Bazkarirako txartelak eskuragarri daude dagoeneko, Bertsosarrerak.eu atarian.

PATXI GOIKOLEA | LEINTZ BERTSO ESKOLAKO SORTZAILEA

"Txapelketak aproposak dira eskolan ikasitakoa praktikan jartzeko"

Domekako bat-bateko irabazleari txapela jantziko dio bertsolari-ritza eskarmentu handia duen arrasatearra.

Pozik, irabazleari txapela jantzeko eman dizuten aukeragatik?

Bai; nahiko pozik, ohorea da. Eskertuta nago lehenago egindako lanengatik gaur egun ere gogoratzen direlako; akaso, *jolasengatik* esan beharko nuke, guretako lana baino gehiago jolasa zelako.

Leintz Bertso Eskolaren hazia ereindakoa zara.

Bai, baina ez nintzen bakarrik ibili, gertutik nituen Juanito Akizu eta Xanti Iparragirre. Juanito eta biak bertsozaleak ginen; Xanti, berriz, bertsolaria zen. Beraz,



bertso-teknika ondoen maneiatzen zuena. Asko ikasi genuen guztiok, elkarrekin.

Nola ikusten dituzu gaur egungo eskolak?

Gogoan dut Mikel Mendizabal bertsolari fitxatu genuela bertso eskolen lehenengo arduradun moduan. harrezkero, lan handia egin du urteetan Mendizabalek, besteak beste, bertso eskolak herri guztietara zabaltzeko; gaur egun, ezagun da egindako ahalegin hori, oso indartsu eta osasuntsu ikusten ditut eskolak.

Ze garrantzi ematen diezu bertso eskola arteko txapelketei?

Oso handia. Eskoletan ikasitako hitzekin jolasteko teknika praktikan

jartzeko modu aproposa da. Txapelketa horietatik sortzen dira, gainera, biharko bertsolariak. Era berean, bertsozaleasuna sustatzeko ere balio dute, polita da oholtzaren bi aldeetan gazteak ikustea.

MAIDER ARREGI | BERTSOLARIA

"Txapela baino gehiago, saio txukuna egitea dut finalerako helburu"

Domekan oholtza gainean izango da Arregi, finalisten artean.

Zein aurreikuspen dituzu?

Ez nago oso urduri; oraingoz, behintzat. Nire helburua saio polita egitea da. Hor dago txapela, bai, baina nire helburua ez da txapelaren bila joatea, arriskutsua da hori. Guztion artean saio polita egingo dugulakoan nago.

Eta lehiakideak?

Ez ditut aurten bertsoan ikusi, baina ezagutzen ditut gehienak; bertso-udalekuean eta parrandan elkarrekin ibilitakoak ere bagara. Maila ona daukate guztiek.

Ze oroitzen dituzu Zumarragako kanporaketaz?

Oso gustura geratu nintzen egiten nuen saioaz eta baita egun zen giroaz ere. Bertso afari formatuan izan zen, eta formatu horrek pre-sioa kentzen dio txapelketari.

Zer diozu eskolartekoaz?

Bertsolari gazteek plazara ateratzeko lehenengo pausoa da; beraz, garrantzitsuak, nire ustez.

Finala jokatu, ze asmo duzu gerorako?

Arratsaldeko jokoetan geratzeko asmoa dut, parte hartzen ez badut ere, giroaz gozatzeko, behintzat.



Doke taldeko kideak eta obraren zuzendaria eta egilea, martitzeneko aurkezpenean. | JAGOBA DOMINGO

Galderaz jositako antzezlanarekin ospatuko du Dokek 10. urteurrena

'Galderak' lanaren estreinaldia hilaren 31n egingo dute, Aramaion, eta egunotan azken ukituekin buru-belarri dihardute taldeko kideek

JAGOBA DOMINGO / J.B. | ARRASATE
Doke antzerki taldeak hamar urte betetzen ditu aurten, eta, urteurrena ospatzeko, *Galderak* aurkeztuko dute datorren asteburuan. Estreinakoa Aramaioko kultura etxean egingo du Arrasateko antzerki taldeak; izan ere, azken entseguak bertan egiten jardun dute, argiztapena, eszenaraztea eta azken ukituak moldatzeko. Maiatzaren 31n egingo dute estreinaldia eta joan den irailean hasi zuten prozesuaren lehenengo helmuga izango da. Itziar Rekaldek zuzendu ditu oraingoan ere Doke antzerki taldekoak, eta, amateurrek izanik ere, aktoreen "ofizio handia" nabarmendu du zuzendariak.

Jose Mari Velez de Mendizabalek idatzitako testua moldatu du Rekaldek, beste behin; hala

ere, testu bat baino gehiago eman zizkiola aitortu du zuzendariak, eta idatzi guztien artean *Galderak* antzezlanaren bihurtu den testua aukeratu zuen. Testu originala bakarrik bezala zegoen planteatuta, eta horri, antzeztu ahal izateko, forma eman diote.

"Erantzunik ez"

Galderak obra arin bezala definitu dute egileek, "ikusteko eta gozatzeko erraza"; hala ere, horrek ez omen du esan nahi gai sakonak ez dituztela lantzen. Pertsonaiek galderak planteatuko dituzte taula gainean, eta asko erantzunik gabe geratuko direla gaineratu dute; egunerokotasunean gizarteak planteatzen dizkigun galderak, hain zuzen. Rekaldek hasieratik berresten du "erantzunik ez" duela eskuratzen

antzezlanak, baina bai makina bat galdera taularatu. Hala, "galdera askoren erresoluzioak bizitza osoa hartzen du, eta horri buruz dihardu lanak". Planteatzen den galdera bakoitzeko pertsonaia bat dago antzezlanean, eta joko hori erakusten da.

Esan bezala, estreinakoa datorren zapatuan izango da, baina dagoeneko beste emanaldi batzuk lotuta dituztela esan dute. Aurreratu dutenez, Aretxabaletan eta Arrasaten, aktoreen herrian. Obra ikusteko, baina, abendura arte itxaron beharko dute ikusleek. Horrez gain, *Paradisuko atean* obrarekin egin zuten moduan, Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmena lortzea espero dute, horrela udatik aurrera *Galderak* Arabako hainbat herritarra eraman ahal izateko.

Lujanbio, Iturriaga, Elortza eta Lizaso bihar Espaloian

Bertsoz ospatuko dute hamargarren urteurrena

ANE ELORDI | ELGETA

Elgetako Espaloia Kafe Antzokian bertso saioa antolatu dute biharko, hamargarren urteurrena dela eta. Punta-puntako lau bertsolari arituko dira kantuan: Maialen Lujanbio, Igor Elortza, Unai Iturriaga eta Sebastian Lizaso. Bertso saioa 22:30ean hasiko da, eta Manex Agirre aramaioarra arituko da

gai-jartzaile lanetan.

Bailaran bertsozaletasun handia dagoen arren, aretoetan egiten diren jaialdien kopurua ez da handia; beraz, jendea bertso gosez egongo da. Gainera, Manex Agirrerren esanetan, Elgetan arituko den laukotea garantia da beti, eta saio arrakastatsua izatea espero da, ikus-entzuleak asetzeko bestekoa. Jaialdian umorea egongo dela aurreikusten da, baina gai serioak ere landuko dira; ondorioz, saio gorabeheratsua izatea espero da, batez ere, sentsazioei dagokienez. Izan ere, askotariko gaiak izango dituzte kantagai; eta gaurkotasuna eta toki-kotasuna nagusi izango diren arren, denetariko gaiak landuko dira, eta ohiko egoerak ere. Sarrerak Espaloian eskura daitezke, edo Internet bidez: zapatuan, 10 euro; aurretiaz, 8; eta bazkideek, 6.



Maialen Lujanbio. | GOIENA

Ruper Ordorikaren kontzertua gaur Arrasaten, Koolturen eskutik, doan

J.B. | ARRASATE

Eguraldi ona bada Monterron parkean eta txarra eginez gero, berriz, Amaia antzokian (22:00). Biak ala biak agertoki dotoreak, inondik ere. Kooltur ekimenak antolatu du kontzertua, ikasurtea ixteko. Mugalaris-en konpainian, Ordorikak *Azukre koxkorak* lana aurkeztuko du eta bere erreperatorioko ohikoak ere joko ditu. Bere garaian *Haizea garizumakoa* aurkeztu zuenetik ez du jo oñatiarrak Arrasaten. Monterronen, gainera, sekula ere ez du jo oñatiarrak. Ordorikak kontaktzen duenez, Kooltureko taldearen



Ordorika. | I.S.

insistentziak eta nahiak "argitu" omen zion kontzertua jotzeko gogoia, asko saiatu direla eta "pozik" dagoela. Abestiak oraindik guztiz aukeratu barik dituela esan du.



MUNDUMIRA | Goiena Klubeko bazkideendako

Mundumirako sari sorta

Goiena Klubeko kidea bazara, irabaz ezazu sari hauetariko bat. Animatu eta parte hartu!



- 8 Mundumira kamiseta
- Euskal Herria Aldizkaria, urte osoko 5 harpidetza
- Euskal Herria Aldizkariaren produktuekin, 5 pack.



PARTE HARTZEKO:

Telefonoz: 943 25 05 05 E-postaz: kluba@goiena.com

WhatsApp: KLUBA [Mundumira] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

SMS: KLUBA [Mundumira] [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa. Epea: maiatzaren 27ra arte. Irabazleen berri maiatzaren 30eko GOIENA paperean emango dugu.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketaren helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestioztatzea. Eskubidea izango duzu datuak sartzeko, hain zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatziz: kluba@goiena.com

goienakluba[™]
Euskara irabazle, denok irabazle!



Trikitixaren eta panderoaren inguruan elkartuko dira bailara osoko lagunak. | ARRASATEKO TRIKITIXA ESKOLA

Trikitilariak, euren festa eguna ospatzeko gertu

Bihar, zapatua, bederatzi herritako 200 trikitilari batuko dira Arrasaten

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Bailarako trikitilari eta pandero-joleek euren festa izango dute bihar, zapatua: 10. Debagoieneko Trikitixa Eguna. Arrasaten egin zen lehenengo aldiz eta, bailarako herri guztietatik eta Soralezetik pasatu eta gero, sorterrian da bueltan, berriz Arrasateko Trikitixa Eskolako antolatuta. Hori dela eta, berritasunekin dator; adibidez, ikur berria. Maixa Lizarribar irakasleak Arrasate Irratiari hone-

la esan zion: "Lekukoak bailaratik buelta osoa eman du eta pentsatu genuen polita izango zela hori gorde eta beste bat egitea".

Artisauen lanen zozketa

Egun horren helburua trikitilariak elkarrekin topaketa egitea da, eta aurtan 200 inguru batuko dira, 300 bat bazkaritarako. Eskolak lau gunetan banatuko dira -Musakola, San Andres, Erguin eta Herriko Plaza- hamaiketako-

rako; gero, denok Biteri plazan batuko dira eta "kalejira erraldoia" egingo dute Herriko Plazaraino. Hortik aurrera, eskola bakoitza modu librean ibiliko da, bazkaldura arte. Eskola bakoitzak kantu bat prestatu du eta "bakoitzak bere momentutxo" izango duela esan du Lizarribarrek.

Beste berritasun bat: pandero egile artisauak izango dira Herriko Plazan, eta haien lanak zozketatuko dira arratsaldean.

Sei herritako 250 ume dantzari batuko dira Aretxabaletan

L.K. | ARETXABALETA

Etzi, domeka, ospatuko da Aretxabaletako Haurren Eguna, eta 250 ume eta gaztetxo espero dituzte antolatzaileek, Leizarra Musika Eskolako dantza taldekoek. Aurten, gainera, nobedade gisa, Eskoriatzako dantzariak ere etorriko dira; denetara, zazpi talde batuko dira: Oñatz (Oñati), Lore Gazteak (Arrasate), Txikitxu (Arrasate), Urrats (Soralez), Oinarin (Antzuola), Eskoriatzako, eta antolatzaileak, Aretxabaletako dantzariak.

Leizarra Musika Eskolako arduradun Mariatzen Urkiak azaltzen du Eskoriatzaren parte-hartzea nondik etorri den: "Orain dela urte asko, Eskoriatzan ere bazeukaten dantza taldea, baina gero musika eskolak hartu zuen bere gain horren

irakaskuntza. Komentatu genien ea euren parte hartuko zuten, eta baietz esan ziguten". Zehazki, Eskoriatzako 11 ume dantzari etorriko dira Aretxabaletara.

Ikasi dutena erakutsi

Adin askotako ume eta gaztetxoak ibiliko dira; Aretxabaletako taldekoak, adibidez, 5 urtetik 14 urtera artekoak dira. Ikasturtean zehar ikasi dutena jendaurtean erakusteko modua izango dute domekan, banaka eta denek batera.

Eguna 10:30ean hasiko da, Herriko Plazan, harrerarekin; 10:45ean, hamarretako hartuko dute; 11:30etik 13:15era, talde bakoitzak bere erakustaldia egingo du. 17:00etan, Herriko Plazan denek batera alardea egingo dute.



lazgo alardea, Aretxabaletako plazan. | GOIENA

Pirritx, Porrotx eta Marimototsek 'Bizipoza' ikuskizuna egingo dute Aretxabaletako plazan

L.K. | ARETXABALETA

Debagoieneko herri gehienetan zabaldu dute aurretik Pirritx, Porrotx eta Marimototsek euren *Bizipoza*, eta gaur, egubakoitza, Aretxabaletako plazan egingo dute ikuskizun hori: aire zabalean; beraz, sarrera-txartelik erosteko behar barik. Ikuskizuna 18:00etan hasiko da.

Bihotzarekin sentitu

Debekuak ez direla ezarri behar, begiekin ez bada ikusten bihotzarekin sentitu behar dela eta beste hainbat kontu garrantzitsu gogoraziko dizkiete ume eta gurasoei hiru pailazoez eta euren lagunek. Eta, ohi bezala, nahikoa kantu eta dantza egiteko aukera izango dute ikusleek.

'Liburua, arimaren ispilu' erakusketan, bisita gidatuak

L.K. | OÑATI

Oraingo aste bukaera da *Liburua, arimaren ispilu* erakusketa bisitatzeko azken aukera, Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Xabier Egaña artistaren *Liburua, bigarren irakurketa* delako eskultura erakusketak eta zaharberritutako 1495. urteko inkunableak osatzen dute erakusketa.

Elementu bakoitza areto baten dago, biak elkarren ondoan. Inkunableak zer diren azaltzen duen bideoa ere ikus daiteke, euskaraz edo espainolez.

Bihar, zapatua, Xabier Egañak gidatutako bi bisita emango dira, bat 12:00etan eta bestea 18:00etan, biak espainolez. Erakusketak zabalik iraungo du bi egunetan, 11:00etatik 14:00e-

tara eta 17:00etatik 19:00etara.

Santutegiaren historia

Erakusketa hori Arantzazuko Santutegiak, Arantzazuko Adiskideak elkarrekin eta Arantzazu Gaur fundazioak elkarlanean antolatu duten programa baten barruan dago, Santutegiaren historian oinarritzko objektu izan zen liburuaren gainean.



Leintz
GARRAIOAK, S.L.

Leintz Garraioak, urbano zerbitzuaz gain, txangoak, ezkontzak, sagardotegiak e.a.

LEINTZ GARRAIOAK S.L.
Musakola, 20 (Pereda)
20500 ARRASATE

Tel.: 943 71 27 07 / Faxa: 943 79 14 19
Posta-e: leintzgarraioak@leintz.com
www.leintz.com





Gorka Urrutia | Goitibehera pilotua

Gorka Urrutia, goitibehera zaharrarekin eta goitibehera berriaren karkasarekin.

"Goitibeheretatik ezin da bizi; beraz, autoekin lotutako lan batean ibiltzea gustatuko litzaidake"

JON MOÑUX | ESKORIATZA

Gorka Urrutiak 18 urte ditu eta eskoriatzarra da. Mantenu ikasketak egiten dihardu Oñatin. Orain dela urtebete inguru, gurasoei ezer esan barik, goitibeheretan lehiatzen hasi zen. Gaur egun, baina, bere afiziorik handienetakoa bilakatu den goitibehera txapelketetan parte hartzen jarraitzen du. Baserri ondo zirkuituan entrenatzen da. **Nola hasi zinen goitibeheretan?** Gurasoei ezer esan gabe hasi nintzen, ez zidatela utziko pentsatzen nuelako. Lagunek animatu ninduten. Nik, egia esan, gauza gutxi nekien goitibeheren inguruan. Halako batean, Oñatin goitibehera lasterketa bat zegoe-la jakin nuen, eta nik egindako goitibehera batekin animatu

nintzen bertan parte hartzera. Hain gustura ibili nintzen, hurrengo egunean Bergaran zegoen beste jaitsiera batera ere joan nintzen.

Noiz kontatu zenien gurasoei?

Aurretik aipatutako jaitsiera hauek egin ondoren kontatu nien gurasoei. Orduan, ganorazko goitibehera bat egin nuen aitarekin, aurrerantzeko jaitsieretan parte hartzeko. Orain ere aitak asko laguntzen dit. Amari, berriz, beldurra ematen dio eta poliki ibiltzeko esaten dit.

Zenbat jaitsieratan hartu duzu parte?

Debagoienean jokatzen diren txapelketez gain, Euskal Herriko txapelketa guztietan hartu dut parte. Eskoriatzako jaitsieran, gainera, lehenengo postua lortu

nuen herritarren artean. Hori dela eta, txapela eta kopa eraman nituen.

Zuk egiten dituzu, gainera, zure goitibehera guztiak.

Bai, hala da. Aitaren laguntzarekin egiten ditut, eta lagunek ere asko laguntzen didate. Goitibeherak egiteko erabiltzen dudana materiala burdina da, eta autoaren pieza batzuk ere erabiltzen ditut. Motorraren piezak ere erabili ohi ditut.

Zenbat goitibehera izan dituzu?

Lau izan ditut, guztira. Lehenengo biak oso sinpleak ziren. Beste bietan, berriz, ordu asko sartu ditugu eta lan asko egin dugu. Geroz eta hobekien egiten ditugu. Orain daukadan goitibeherarekin arazo batzuk izan ditut, eta aldaketa batzuk egiten ari naiz.

Arriskutsuak dira goitibeherak?

Material ona erabiliz gero eta segurtasun neurri egokiak jarrita, ez dira arriskutsuak. Hori dela eta, entrenatu eta autoa ondo muntatu beharra dago.

Badago zaletasunik Euskal Herrian?

Nik baietz esango nuke. Eskoriatzan, adibidez, afizio handia dago eta edonork hartzen du parte jaitsieretan; bai gazteek, eta baita helduek ere. Hala ere, eskaera badagoen arren, eskaintza ez da oso handia gure bailaran, Eskoriatzan, Bergaran eta Oñatin bakarrik izaten baitira horrelako txapelketak.

Auto lasterketak ere gustatzen zaizkizu.

Askok gustatzen zaizkit. Bai autoak, eta baita auto lasterketak ere. Zirkuiturako auto bat daukat, gainera. Edozelan ere, ez dut auto karreretan parte hartzen, baina, inguruan laster-

keta bat egonez gero, beti joaten naiz ikustera.

Nondik datorkizu kotxeekiko zale-tasuna?

Txikitatik gustatu izan zaizkit autoak eta motorrak. Aitari ere asko gustatzen zaizkio; beraz, mundu hori txikitatik bizi izan dut etxean.

Gertu dago Bergarako jaietako goitibehera txapelketa. Parte hartuko duzu bertan?

Bai; esan bezala, inguruko jaitsiera guztietara joaten naiz. Beraz, Bergarakoan ere hartuko dut parte. Hala ere, aurretik Oñatin beste txapelketa bat dago, eta hara joango naiz lehenago. Orain, presaka nabil goitibehera berria prestatzen.

Etorkizunerako zer plan?

Ez dakit zer egingo dudan etorkizunean. Goitibeheretatik ezin da bizi; beraz, autoekin lotutako lan batean ibiltzea gustatuko litzaidake.

PERTSONALA

Zure herriko txokorik gustukoena: Atxorrotz.

Bizi izateko leku bat: Eskoriatza.

Pelikula bat: nire bizitza pelikula bat da.

Asteburuko plan perfektua: lagunekin zirkuitu batera joatea.

Gustuko duzun pilotu bat: Valentino Rossi.

Goitibeherarekin joateko leku bat: Apotzaga.

Lan perfektua: auto artean.

Amets bat: Rallyetan lehiatzen hastea.

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Zumaraga. Etxebizitza salgai. Oso eguzkitsua. Bilogela, egongela, sukalde eta komuna. Dena kapora begira. 638 33 03 01

103. ERRENTAN EMAN

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza ematen da errentan Erguin kalean, ikasleentzako, ikasturte bukaera arte. Guztiz jantzita. 450 euro hilean. 606 86 71 97

Costa Ballena (Cadiz). Uztaierako eta irailerako etxebizitza ematen da errentan Bi logela, terraza eta garajea. Hondartzatik gertu eta igerilekua. 679 84 62 48

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo Aretxabaleta. Arrasaten zein Aretxabaletan errentan 2-3 logelako etxebizitza bila gabiltzan bikote bat gara. 674 13 91 59

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan, merke. Hiru logelakoa gutxienez. 648 46 90 51

Arrasate. Etxebizitza behar dut errentan. Bilogelakoa gutxienez. Deitu 638 25 73 91 edo 943 79 80 05 zenbakietara

Arrasate. Pertsona batendako moduko etxebizitza behar dut errentan, merke. Arduratsua naiz eta lana daukat. Blanca. Deitu 608 07 69 45 telefonora.

Arrasaten edo Aretxabaletan. Altzari gabeko etxebizitza hartuko genuke errentan. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 652 76 21 51

Arrasaten. Neska arduratsua naiz eta alokairuko etxebizitza bilanabil Arrasaten. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 675 00 93 22

Baserrirako etxebizitza. Kaixo! Sorailuzeko hirugazte gara eta Debagoienean errentan dagoen baserrirako etxebizitza. Baldintzen inguruan hitz egiteko prest gaude. Mila esker, plazerra izango da! 645 71 50 50

Bergara. Bergarako mutil ba etxebizitza txiki edo atiko bila. 666 46 69 69

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan. Hilean 200 euro, gastuak barne. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 697 66 89 20

Arrasate. Neska batendako logela bat behar dut, etxebizitza konpartituan, merke. Interesatuok, deitu zenbaki honetara: 666 20 06 03

Bergara. Logela bat errentan hartuko nuke. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 672 68 57 77

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Etxeko lanak egiteko emakume bat behar da. Astean behin, 4 orduz. 622 50 84 68

Laneskaintza. Antzuolan, hiru urteko bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko, esperientzia duen emakume euskaldun bat behar da. Pposible bada, Antzuola edo oso gertukoa. 606 27 87 47 edo 606 26 71 53

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Nagusi eta umeak zaintzeko edo garbitasunak egiteko gertu nago: taberna, atari, bulego zein etxeetan. 625 86 99 51

Arrasate. Emakumea gertu nagusiak zaintzeko, etxean bertan bizitzatzen. Sonia Gomez. 632 84 02 30

Arrasate. Nagusiak zaintzen, garbiketaren edo sukaldaritan lanetan arituko nintzateke. Marta Cecilia Ocampo. 671 15 96 97

Bergara edo Arrasaten. Neska euskalduna haurrak zaintzeko prest larunbat, igande eta jaiegunetan. 688 61 11 01

Bergara, Arrasate edo Oñati. Erizain laguntzailerik ikasketak dituen mutila nagusiak zaintzeko gertu. San Juan de Dios lan egindakoa eta esperientzia handikoa. 943 78 62 19 edo 639 66 57 88

Bergara. Adinertaineko emakumea, informak dituen, goizetan umeak eta nagusiak zaindu zein etxeko lanak egiteko gertu. 610 34 97 88

